

JOKIN APALATEGI (arg.)

Joxemartin Apalategi Begiristain

M. Jaione Apalategi Begiristain

Jokin Apalategi

Ur Apalategi Idirin

AITONA GUREAREN
MAKILAKIXKI

JOXEMARTIN GOGORATUZ

IRUDIA

Munduate Baserria

Utriusque Vasconiae

Liburu hau Jokin Apalategik zuzenduriko AHOZKOAK
sailean argitaratzen da

JOKIN APALATEGI (arg.)

Joxemartin Apalategi Begiristain

M. Jaione Apalategi Begiristain

Jokin Apalategi

Ur Apalategi Idirin

AITONA GUREAREN
MAKILAKIXKI

JOXEMARTIN GOGORATUZ

IRUDIA
Munduate Baserria



© Jokin Apalategi (arg.)

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2006ko maiatza

ISBN: 84-934066-9-4

Lege-gordailua:

Azala: Itsaso Kondearena Apalategi, Iruña

Diseinua eta maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3.

20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Banatzailea: BITARTE - 31195 Berriozar (Nafarroa).

Tel.: 948-302239

AURKIBIDEA

Hitzaurrea. Jokin APALATEGI	7
<i>Makilakixki</i> ipuinaren azterketa antropologikoa	
Joxemartin APALATEGI	13
1. Felipe aitona gureaz itaunka	13
1.1. Felipe Apalategi: <i>Makilakixki</i> kontuzaharra (Joxemiel Barandiaranen transkribapena, 1921) ..	18
1.2. <i>Makilakixki</i> kontuzaharra (Sagrario Yarnozek euskara baturako moldatutako bertsioa, 1982) ...	20
2. <i>Makilakixki</i> . XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako banako kulturkideek jasotako lekuan lekuko Antropologiazko historia Ataunen	22
2.1. Sarrera	22
2.2. Metodologia	23
2.3. Pertsona	24
2.4. Etnografia-Antropografia	26
2.5. Etnografia elkarrizketen eta irrati grabaketaren transkribapenak	28
2.6. Analisia	68
2.7. Tesia	84
3. Bibliografia	86
<i>Makilakixki</i> ipuinaren azterketa pedagogikoa	
M. Jaione APALATEGI	89
1. <i>Makilakixki</i> ipuinaren ibilbide pedagogikoa	89

1.1. <i>Makilakixki</i> ipuina: Felipe Apalategi berrie- mailea eta Joxemiel Barandiaran ikerlaria	92
1.2. Zer da azterketa pedagogikoa egitea	96
1.3. Pedagogiaren bilakaera zientifikoarekin kezkatu . . .	100
1.4. <i>Makilakixki</i> pedagogia zientifikoaren eta esperi- mentalaren argitan	105
1.5. <i>Makilakixki</i> ren erabilera pedagogikoa argital- penen bidez	106
2. Ondorio pedagogikoen garaia	129
2.1. Izkutuko balio pedagogikoa	130
2.2. Ahalmen didaktikoak	131
2.3. Ipuinaren mezua	132
2.4. Moldaketarik gabe sortua, eskolarako egokitua . . .	132
2.5. Bat eta bi	133
3. Bibliografia	134
Makilakixki ipuinaren azterketa psikosoziologikoa	
Jokin APALATEGI	139
1. Justizia kontsistentearen inbentzioa	139
1.1. Sarrera edo ipuinaren eta soziologiaren arteko lotura egiteko aitzakia	139
1.2. Justizia ideiarene jatorriaz	141
1.3. Justizia ideiarene eraikuntza haurrengan	145
1.4. Justiziaren garapena edo pertsona helduen argumentario moralaren egitura	154
1.5. Justizia kontsistentea	158
2. Bibliografia	161
Epilogo: Joxemartin gogoratu	
Ur APALATEGI IDIRIN	163

HITZAURREA

Felipe Apalategi Goikoetxea (1864-1945) aitona gurea, bere osasunean pattaldurik aurkitzen baitzen, ni neu sortu eta bi urte geroago hil zen; ordurarteko seme-alaben seme gehienei edo pre-muei bataiokoan besoetan hartuz aita-pontekotza eta bere izena eman zienean, tradizio hura nirekin ezin errepikatu izan zuen. Haustura gertatu zen halaberharrez. Honela, baserriaren jarraipena egiteko izendaturik zegoen bere seme Joxek nirekin aita pontekotza estreinatu zuen, eta orduz gero berak ordezkatzeko zuen baserriaren leinu berrituan txertatu ninduen. Urte batzuk geroago, aitona-amonak hil eta gero, Joxe nire aita pontekoa, baserriaren jarraipena bertan behera utziz, Donostiara joan eta hiriko eraikuntzan promotore bihurtu zen.

Denbora joan ahala gertakizun hauek gogoetagarri egin zaizkit, Euskal Herriaren bilakaera giza eta gizarte zientzien ekarpenetatik aztertzeke gogoa eman didatelarik. Izan ere, urte gutxi-
ren buruan, gure familian gertaturiko hausturak, proportzioak gordeaz, euskal gizarte guztiaren hausturak ere izan direnez, eta Felipe aitona gurearen ondare preziatuena bezala justiziari buruzko kontuzahar edo ipuin bat (bata eta bestea geroago Pedagogiazko atalean definituko dira; hala ere, orobat, erabiliko ditugu lan osoan) jaso dugunez, eskura jarri zait antzinako gizarteetan justizia kodigoek arautzen zutena gaurko gure gizarte sistemetan

zertan gauzatu den galdetzea, eta galdera horrek gaur ere guztiontzat garrantzia duenez, eginkizun horretan murgiltzea erabaki dut, miaketa testuinguruetan ahalik eta gehien zabalduz. Eta lan hori egiteko okasio hoberik ezin nuela aurkitu berehala ikusi nuen, zeren familia bereko lau belaunaldi gai honen ardatzean gurutzaturik pentsatzen jartzeko aukera etxean nuela jabetu bainintzen. Gainera horrelako gai batek merezi du lantzea, giza eta gizarte zientzietan aipatu bai baina gutxi edo gaizki praktikatzen den diziplinartekotasuna nola eraiki daitekeen erakusteko.

Gogora dezagun Felipe aitona gureak bi kontuzahar adierazgarri eskaini zizkiola Joxemiel Barandiaran auzokideari 1921ean. Orain horietariko bati itsatsi nahi dizkiogu begiak gogoeta egiteko; *Makilakixki* izenez antzinako justizia kodigo edo arautegi deigarri bat agertzen duenari, hain zuzen. Akaso ez al da betidanik arazo izan justiziaren gaia gizarte orotan, gaurko postmodernoan barne? Geroztik, zer dela eta, baztertu dugu justizia kodigo hura? Planteamendu berriagoekin oro konpondu dugulako? Ala, ur zikinarekin batera, haurra ere kanpora bota dugulako? Azter dezagun, orduan, zer gertatu den gaur egungo sistema konstituzionaletan dauzkagun justizia proposamenak eraikitzeko ibilbidean: zer arautzen digute eta zer arautu gabe uzten? Zeren ez dezagun pentsa gizarteko eremu guztiak arauturik dauzkagunik konstituzio sistema horien pean. Gure aitonaren kontuzaharrak darabilen gaia gori-goria izanik eta, bestalde, jabeturik familian antropologo bat, pedagogo bat eta psiko-soziologo bat geundela, “kontuzahar hori zergatik ez aztertu jakintzarteko edo diziplinarteko begiradan?”, esan nion neure buruari. Hara nola sortu zen lan honetarako parada.

Hasteko, Felipe aitona gurea nor zen jakin nahi duenari informazio zenbait emango diogu, lekukotasunak baitauzkagu. Antropologiak, berriz, kontuzahar horren kokapenaz, errealismo imaginatiboaz, eta abar, ezagutzak zabaltzen lagunduko digu. Ondotik, *Makilakixki* kontuzaharrak euskal hezierak orduan izan zituen erabilpenen eta eraldaketen berri emango zaigu Pedagogiatik. Eta azkenik, gaur egungo psikosozioologiak kontuzahar

horren muina den justiziaren gai horretatik zer ikaskizun atera daitekeen esango digu.

Gaur egun psikologia sozialean arras indarrean dagoen eta ikerketa gaien alorrean aurreko oro errausten ari den kolektibismo-individualismo binomiopean agertzen den teoria bat bada. Teoria honen ordezkari nagusi diren Triandis (1989) eta Markus eta Kitayema (1991) autoreek, gizabanakoa/gizartea oposaketan oinarrituz, unibertsaltzat suposatzen duten gure kultura indibidualistaren lerro partikularra dena, dimentsio bipolarra eraman ez argumentatzen dute. Horien aburuz, gizabanakoa ardatzeko egiten duten kulturak bere espresiorik gailenenean liberalismoa besarkatu duten gizarteetan leudeke, ez beste inon, eta hori egiten duten neurrian, existitzen dira. Honela bada, liberalismo politikoaren objektibuekin parekatuko litzateke gizabanakoaren dimentsioa: gero eta handiago den diferentziaketa, independentzia, autosufizientzia eta arrakasta sozialarekin, alegia. Baina hau guztia gizabanakoaren kultur garapena liberalismoaren alde baikorretik adierazteko baliagarri bada ere, ez da bidezkoa, gizabanakoaren kulturak liberalismoaren sarean erortzean galtzen dituen aukerak eta itsasten zaizkion alde ezkorrak aipatu gabe gelditzea. Goazen horiek zeintzuk diren azaltzera.

XIX. mendean bi esparrutan bereiztutako gizarte batasun batean garatuko da gizabanakoaren bizitza. Alde batetik, esparru publikoa zegoen, zeinetan gizabanakoaren askatasuna printzipio orokorren dependentzian jartzen baitzen. Horretan sartzen zen politikaren alorra, zeinaren eginkizun nagusia baitzen mundua eraldatzera norabidetutako arau sozialak definitzea eta, gizabanakoa ezinbestelakoa izatetik libratu eta, hiritar bezala etorkizunaren egiletzat aldarrikatzea. Bestetik, esparru pribatua zegoen, ekonomia, erlijioa eta familia bezalako alor desberdinez osatua, eta horietan gizabanakoaren askatasuna izaera prepolitiko bateko antolaketa sozialen arauarekin zedarritua aurkitzen zen. Honela, familia edo erlijio egitura jakin bateko izateak sostengu sozial eta birbanatze ekonomiko baten sarean txertatzen zuen gizabanakoa. Zuhaitz genealogiko batean edo historia jakin batean sartuz ere,

erreferentzia eta laguntza eskaintzen zizkion. Hau guztia, hain zuzen, garrantzi handikoa zen, zeren, gizabanakoa esparru pribatuko sareetan zenbat eta errotuago egon, orduan eta hobeto lortzen baitzuen esparru publikoetako askatasuna. Hori bai, emakumeen bizkar egindako gizabanako maskulinoen sustaketa eragiten zuen.

Baina XX. mendean demokrazia eta liberalismoa konfunditzen saiatu ahala esparru pribatuko alorrak desarautzen joan ziren. Bistan da jokabide horrek ekonomian ugazaben zoriona ekarri zuela. Pixkanaka-pixkanaka, darwinismoa manipulatu, gizarte sozialeko justizia eta moralak erreferentziazteko orduan, oihaneko legearen hautespen naturala eskatuko dute boteretsuek. Absolutu orenen baztertzek esparru erlijiosoaren arauak indargabetuko ditu. Familiaren demokratizazioarekin, berezko justizia arauak galduz, beste arlo batzuetako kodigoen erreferentziapen jauziko da. Mendeetan landutako familiarteko loturazko harremanak konnibentzia eta lehiatzeko harremanekin ordezkatzeko dira. Ekonomia liberalak, esparru erlijiosoaren erlatibizatzeak eta familia demokratikoak, bada, eztabaida leku bilakatu konpondu beharko dituzte hemendik aurrera barren gatazkak zuzenbide publikoaren erreferentzian. Baina zer dira familia, ekonomia, erlijioa bezalako alorren zat, zuzenbide publikotik printzipiozko eduki propiorik gabe sortu eta, oportunitate eta eraginkortasun argudioen gainean funtsatuz gero, egunerokoa kudeatzera datozen prozedura corpus horiek? Demokrazia eta liberalismoaren arteko nahasteak edo berdintzeak justiziarik gabeko gatazka leku bihurtu ditu bizitzako esparru pribatuak. Zuzenbide publikoak arautu nahi duen mundua komuntzat jotzen du, baina aldi berean antzinako gizarte komunitarioaren antolaketak abolitu egiten ditu. Hala ere, haiek zekartzaten identifikazioa, afiliazioa, solidaritatea eta gutxienezko baliabideen bermea ez du ordezkatzeko. Bere hodeiertzean giza kondizioaren unibertsalitatea dauka, baina bere ekimena Estatu-nazioaren markora mugatuta gertatzen da. Bere hiritarren adierazpenen erreprezentazioa errebindikatzen du, baina lehen aldiz eraikitako esparru

publikoa auzitan jartzera datorrena kondenatzen du. Hala ere, esparru publikoak estali dituen esparru pribatueta zegoen aniztasunaren publikotasuna beharko luke. Zeren esparru publiko bat balioko gerta dadin, aburuen aniztasuna, interesen gatazka izaera eta ikuspegiaren diferentzialitatea errespetatzetik igaro behar da. Esparru publiko oro politiko bihurtuz gero, politikoaren kontrolpean eta dependentsian altxatzen den neurrian, bizitza demokratikoaren kalitatea dilindan jartzen da. Hortik ateratzeko, gizarte zibilean eztabaida libreen eta gatazken esparru publiko autonomoak diruz eta berme publikoz antolatu behar dira.

Liberalismoak, bada, gizabanakoak gizarte prepolitiko bateko antolaketa sozialen bidez justizia kodigo batekin sendoki arauturik zituen integrazioa, solidaritatea, zorte berdina, eta armonia soziala birrindu ditu demokrazia eta askatasunaren izeanean. Gizarte prepolitiko bateko antolaketa soziala gidatzen zuen justizia kodigo bat zer nolakoa izan zitekeen aitona gurearen kontuzaharrak erakusten digu. Orain gauden historia unean ez da arazoa antolaketa sozial prepolitiko haiek berreskuratzearena, baizik eta haiek betetzen zituzten helburuak eta egitekoak bete-raziko dizkiguten antolaketa sozial berriak prestatzearena. Zeintzuk liratekeen ordezkioak? Askatasunaren ideia berri behar dugu, hasteko. Guztientzat askatasun berdina izan daitezen, ez da aski gizabanakoak printzipio horrekin bateraezina den oro egiteari uko egin behar diola erakastea. Hori bezain garrantzitsua da askatasun baikorraren eragile bilakatzea, esparru publikoan ekimen kooperatiboak eramanez, alegia. Bestalde, ez dira antzinako komunitarismo organikoaren garaitan bezala moralak eta politika nahastu behar. Guztiaren gainetik legokeen etika edo moral baten aldarrikapenik ez da egin behar. Gizarteko arlo bakoitzak bere formaziozko printzipioetatik justizia kodigo bat aurkitu behar du. Eta gainerako arloetan sortuko diren justizia kodigoekin “kontzertazioaren praxi eraginkorra” lantzea izan behar da helburu.

Liburu honen irakurleari, atal deberdinen irakurketan murgildu aitzin, ohar pare bat egin nahi dizkiot. Anitzetan, han eta

hemen, esaten da, zuok giputxok euskara batua amaren sabaletik jasotzen duzutenez, ez dakizute gainerako euskaldunok egiten ditugun ahaleginak eta amore emateak nolakoak izaten diren euskara batura lortzeko orduan. Otoi, azter ezazue, Joxemiel Barandiaranek, 1921ean, aitona gurearen *Makilakixki* kontuzaharra transkribitzean darabilen euskara, eta Joxemartin Apalategik, 2004an, Ataunen jaso berri duena nolakoak den gaur egun ere. Esango al didazute zer duen euskara batutik Ataungo gipuzkera horrek? Eta, hala ere, gipuzkeran gabiltza bada! Hain zuzen, hizkuntza konparaturako balioaren arrazoi hau batetik, eta lekukotasunak lekukoek ematen duten hizkera hartan zehatz-mehatz transkribatu behar direla beti dioen antropologoaren irizpide zorrotza kontuan hartuz, bestetik, gure aitonaren kontuzaharra bi bertsiotan ematea erabaki dugu.

Jokin Apalategi

MAKILAKIXKI IPUINAREN AZTERKETA ANTROPOLOGIKOA

Joxemartin Apalategi
Antropologo ikerle-irakaslea EHU

1. Felipe aitona gurezaz itaunka

84 urteko ama gureari, Natalia Begiristain Urbiztondori, Ataungo Sangregorioko Ezkalune etxeko bere etxebitzan 2004.09.04.6.15:30/15:49 bitartean egindako elkarrizketa. Erabilitako izen-laburpenen adierazpenak ondokoak dira:

ABjm = Apalategi Begiristain joxemartin

BUn = Begiristain Urbistondo natalia.

(Grabaketaren transkribapena Donostian Ibaetako Kanpu-sean Antropologia Fakultatean Joxemartinen Bulegoan 2004.09.09.4.09:35/12:31 egindakoa da).

ABjm- 000/014: Hemen gaur bi mila eta laugarren urteko irailaren lauan, larunbata, arratsaldeko hirurak eta erdietan, Ezkalune etxeko bigarren solairuan amagurea Natalia Begiristain Urbiztondoren etxebizitzan eta egongelan biok eserita. Elkarrizketa txiki bat egin nahi dizut gaur ere ama. Etaa galdera da baa inoiz zuri entzun izan dizudan zerbaitez nola Joxemiel Barandiaranek han nee Sara etxean zuri eta zure senarra aitagurea

Inixio Apalategi Agirreri, ba hain zuzen zure senarra eta gure aitari, aitaren aita Felipe Apalategiri buruz esandakoaz. Hori nahi dizut eskatu berriro esatea hemen grabatzeko.

Bun- 014 / 046: Bueno! Baa Don Joxemiel etorri zala lehen-dabiziko urtea einda Balearraindik eta etxea etorri eta esan ziela:

Ni ez noa gehigo!

Zer ba umea?, ta.

Nik eztet balio. Nik eztet ezer egin, eta ni ez noa gehiago!

Eonai ixilik umea!

Ez, ez ez, nik ez det balio estudiatzeko!

Ta gelditu ziela baa disgustauta, txoratuta, gurasook! Hurrungo euneko arratsalden juten da Felipe Munduatekoa, etaa agurtu ta hizketan hasi ta, esan ziela:

Bueno, bueno! Motiko honek ein dizue ba markaak keta!

Bai honexek markak! Ez emen do ezer ein da, hau gehigo ez dihoala, honek eztola balio estudiatzeko ta, eta...

Ixilik zaitea ixilik! Bi urte, bi urte ein da etorri da ta! Bi uurte ein ditu zuen semeek!

Ixilik zare!

Bai, bai, bai! Atzo eon naiz, atzo! Balearraina jutea gertau zitzaidan da nik kuriosidadea euki non jakitea, bai!, etxe-ko bezela nola gean ba, aber umea zer mouzko haserea eman zoon eta, esan zioela, baa bi urte ein zittula umeek.

Da ordun amak hotsein ziola:

Joxemiel! Etorriai umea pixka aten, etorriai!

Eta etorri zala motikoa korrikan da, esan ementzion:

Umea, ze esan diuk? Hi bi urte einda etorri haiz Balearraindik. Da Felipek Munduatekook, ekarri dik notizie. Hue han izen dek atzo ta hitzein dik.

Eta bea han zeon, Felipe han zeon:

Bi urte ein dittuk! Ze esaten aiaiz?

Eta, bueno!, zorauta motikoa, da amare bai. Eta motikoa ordun jarrai zala ia pixka at hola aideatu, arrotuta eta amak esan ziola:

Umea gauza at esaten diat eee! Ikuste al dek ze saar arbolea daukun etxe aurren. Dana beteta puntaz! Hoi

eztek arrotzen nee! Eta hikee nahi diat hoola ikastea: frutaz bete bai, baino arrotu ezein!

Eta zoratuta gelditu ziela ta, hoi baa askotan guri, aitteen zea batez ee kontatzen zion Don Joxemielek. Askotan aikatzen zoon harrek hoi Munduaten! Eta hoola ta klaro ta beti aitte gero juten ginenen aittek kostunbrea zoon, hombre lehenau hoolako errespetook zien!, eta txapela kendu eta agurtzeko:

Bueno, bueno, bueno mesedez, mesezdez! Hik keztaiat nahi txapelik kentzea nei, hi re aittekatik nook naizena ta!

ABjm: 046/047: Hori Saran Joxemiel Barandiaranek gure aitari aitortzen zion?

BUn: 047/048: Bai Jauna, bai Jauna!

ABjm: 048/049: Etaa hola hitzeitten zenutenen Saraan nee, zein lekutan egoten zineten?

BUn: 049/058: Sukaldeen normaleen! Juten ginen gu eta hantxe eoten zan hue sukalden eseita zean da gure tartulie, nola hain etxeko zien, Munduatekook eta Peunezaharrekok! Pues hantxe! Eta oain hau e esango izut. Hau e politte da ta. Bueno, klaro! Nik kostunbre bezela ba nik beti zerbait ematen niola Pilarleri. Ta Pilarrek esan zian:

Baino zertako ibiltzen zea beti zerbait ekartzen? Ez-taukezu hoola ibili beharrik!

Eta esan zion:

Umea, oso ondo ikusten dinat honek keitten dona! Honek hiri kariñoa eakusten din. Eta hi kee ematen dion zerbait eta, hoixe den munduko izitea dana! Eta biok gelditzen zeate pozik!

ABjm:058/058: Hori nork esan zion?

BUn: 058/066: Don Joxemielek Pilarri, bere hiloari. Hoola izaten zien gue hizketaak! Ta hain apala ta hain jatorra zan ta gero pues asko aitek keta beak kee zea haundie zoen da asko hitzeitten zan Munduatekokatik eta Peunezharrekokatik. Hoiik kee hartueman haundiik zittuen eta, jososo gustora pasatzen zan! ¡Don Joxemielekin eotea gustoa izaten zan guutzat eta beantzako zan poza izugarrie, aitte juutea! Ta guu hainbeste juten ginen biok gen-dela ta oso eskertuk iziten ginen!

ABjm: 066/: Orduun Peunezaharreko kook eta Munduateko kook benetan nee etxekoneko lagun haundiik zien!

BUn 067/075: Oso, oso! Garai hartan, ba gaur aber nola bizi geal, ba hoola inguruko jendeek eozin gauza falta zanen etxeen baa etxekonea juten zien, etxekonea juten zan. Esaten zan:

Ai, aizu hauxe eztauket! Eta, mesedez emango al diazu? Enkarguta juten naizenean ekarriko izut. Eta horreaino, horreaino, danok hola ibiltzen ginen! Ta Munduateko kook Peunezaharrea jungo zien ta Peunezaharreko Maria Munduatea mila aldiz baita re. Hori neonek ikustakoa da! Ta hoixe, trato hoixe zeukeen! Oso familie! Oso familikook!

ABjm 075/076: Maria Joxemielen ama

BUn 076/076: Ez!

ABjm 076/076: Alaa...

BUn 076/077: Maria!. Maria Peunezaharrekoa!

ABjm 077/077: A, arreba!

BUn 077/077: Patxin, Patxin...

ABjm 077/077: Aa, Patxin andrea.

BUn 077/086: Baai! Hori Patxin andrea. Baai! Baai, horik ia gerokook zien! Han Patxiin, esto bai, Mikela, horren gizona, eon!, ¿zer zoon ba izena, Don Joxemielen anai horrek? Ai hoixe ez naiz akordatzen, ke pena! Nola zon izena? Hori gu etxen han, haibeste aldiz eoten zan ba! Beti hori Olaztia ta hor asko taa joo Peunezaharreko zea. Zer zoon izena harrek? Gizon hola moxtakaa, potxolo bat, oso zea zan. Tabernan gu etxen Hergonen, mila aldiz!

ABjm 086/086: Bainan ez zan Marian nee gizona Patxi?

BUn 086/088: Bai! Marian gizona zan Patxi. Hau Mikelan gizona. Jesús! Bai, ee, Don Joxemielen aitte. Ta horrek zer zoon?

ABjm 088/089: Aa, bai! Ta Mikela beree ama!

BUn 089/090: Ama! Mikela zan bere ama, bai!

ABjm 090/091: Ta zuuk ezagutu zenituen biak?

BUn 091/108: Baai! Nik ezautu nittun horiik. Taa esan deana osoo pues pertsona jarrera haundikook keta, zuzenak eta

zintzook! Peunezaharreko jendea oso zea izin die hortan, oso jasotzeko, beti, beti gauzak jasota ta etxe inguruk ta dana ta oso nortasun haundiko jendea zien, nortasun haundiko jendea! Han etzendun ikusiko hola. Nik etxen ne bai, sukalden da, majinat aldiz! Peunezaharren ni aittekin, Jesús, aitte zeola askotan! Esan deana haak etxeko zien eta. Eta zer, ta zure arreba gazteena Jaione? Maria hemen baleo esango loke, alaba bezela! Alaba bezela, beti Peunezaharren han. Ta hoi esaten zoon beti,

Umea ze?

Ta nik esnea Maria

Esne zalea gue Jaione ta.

Nik esnea eango et.

Ta esnea eaten beti ta, neskatoa!. ... baita esaten zoon. Enee alde zonen neskato harrek esaten zian

Aaai, hau da hutsunea gu etxen!

Beti han, bakizu, edadekoa Peunezaharreko gazteena beak keta. Launek keta eta holaxe! Peunezaharren hortan nee oso jende atseine zien. Oso errespeto haundikoa ta iñookikoak zien!

ABjm 108/108: Bueno ba eskertzen dizut ama!

BUn 108/116: Gero hemen Marikruz izin gendun aldamen bizitzen baita ere Peunezaharrekoa. Eta hori re bai, hori re, beti pixka at gorra baino arreta haundiko pertsona, bizimoduko pertsona zan Marikruz, oso! Ta horrek ke bai, eee Jaionek kee, baai!, bere alaba Gurutxe horrekin da zea Peunezaharren arteen Maria zeola, amandrea zeola. Ta geo hemen nee bai, beti alkarrekin ibiltzen zien biik!. Gu etxen ne bai, hoor!. Ta Gurutxe taa Jaione edade batekook ta oso launek die beti.

ABjm 116/117: Oso ondo ba! Eskerrikasko!.

BUn 117/117: Baai.

ABjm 117/119: Eta orain hirurak keta berrogei ta bederatzu minutu denean amaitzen degu. Ta berriro ama, eskerrikasko! Emandako testigantzagatik.

BUn 119/ 123: Mila esker ni kee zuri esan dizudan gauzakaatik. Eskertu diazulako mila esker!

ABjm 123/123: Semea!

BUn 123/123: Semea! Bai nere semeri, bai!

ABjm 123/124: Eskerrikasko, berdin ama ta holaxe urte askotan elkarrekin!

1.1. Makilakixki kontuzabarra

(Joxemiel Barandiaranen transkribapena, 1921)

Mundûn asko bezela, etxe batên aitte iru seme kiñ bizi ementzan.

Seme zârrena morroi jûn ementzan oso urrutia.

Urtea bete ondoenên, soldata ordez asto'at eman ementzioén; eta asto orrek, beâri ei'zak urrea es'ezkeo, urrea eitte ementzôn “.

Ala, bê etxea zêtorra, gau batên ostatuz urrutikoetxe batên geatu ementzan.

Eta oiakôn, ostalariri esa'ementzion: ez geo nè astôri “ei'zak urrea” esan.

Baño motille oia jûntzaneko, ostalarik eitte ementziôn astôri: ei'zak urrea. Eta astôk urrea galanki eiñ ementzion.

Urdûn ostalarik asto aren tokiñ ue bezelako beste asto'at jarri ementzôn.

Urrungo goizên, artu ostalariñ astoa berea zôlakôn, eta motille oso alai bê etxea jûn ementzan.

Es'ementziên, bâ bê aittêeri ta anaiêi nolako astoa zekarren. Eta ala, lurren zâlduta izara aundi'at jarri ementzioên, eta aren erdiñ gue asto ori, antxe urrea ein zezan.

Ei'zak urrea, esa ementzion motillek.

Baño urreik ez ementzan azaltzen an.

Ei'zak urrea, beiz ê.

Ta urrea nun eingo zôn ze, izara guztie simaurtu ementziên.

Geo seme bigarrena jûn ementzan morroi.

Ta urtea bete ondoenên, mai bat ema'ementzion bê nausîk.

Jartzak bazkârie eo aparie es'ezkeo, mai orrek bazkârie eo aparie bertan prantatzê'ementzôn.

Ala bâ, motill oi bê etxea zêtorra, gau batên, anaie zârrenai astoa lapurtu zioên etxe artan bertan ostatuz geatu ementzan.

Ta oiakôn ostalarîri esa'ementzion: ez geo mai oni "jartzak bazkârie" esan.

Baño ue oia jûn zan urduko, ostalarîk jartzak bazkârie esa'ementzion mai orri. Ta maiek bertan bakârie prantau ementzôn.

Ta urdûn ostalarîk mai ue izkutau ta ue bezelakoxe beste mai bat, aren tokiñ jarri ementzôn.

Urrungo goizên motill arek, artu ostalarîn maie berea zôlakôn eta aldein ementzôn.

Etxea jûn zanên esa'ementziên bê aittêi ta anaiei nolako maie zêkarren, ta ala, mai orri, danan aurrên, deadar eitte ementzion: jartzak bazkarie.

Baño maiek ez ementzôn eze prantatzen.

Motill gizâjoa, ez da arritzekoa ta, oso triste geatu ementzan.

Geo anaie gaztêna jûn ementzan morroi.

Ta urtea bete zônên, bê nausik makilla'at ema'ementzion.

Makilla orrek ba ementzôn adur ikusgarri'at. Beân aurrên makillakixki esa'ezkeo, motill oi ez beste inguruko guztik joka txikitu bearrên astê ementzan.

Ala, gue motill oi ba ementzeotorren (sic) bà etxea, eta gau batên beste anaiei lapurreta ein ziên etxe artan bertan ostatuz geatu ementzan.

Apalondôn, lotâ abitu zanên, ostalariri esa'ementzion ze: geo nê makillêi ez esan "makillakixki".

- Ez, ez, eantzu'ementzion ostalarîk.

Baño ue oia jûn zaneko, artu makillea eta ;makillakixki! deadar ein ementzion ostalari lapurrek.

Baitta makilla oi asten da baztar guztik txikitu bearrên, danak joka, ostalarie eta etxeko beste guztik. ;Arek atâ ementzôn an ixkimillea!

Urdûn ostalarie, estu ta larri, makillên jabeâna jun da, makilla oi geau azin zezan erregu ein ementzion.

Baño bestêk ezetz, eantzu'ementzion, alik eta aren anaiei lapurtutako astoa ta maie eman artên etzôla geatu âzingo makillaik.

Ta ala, ostalari pikaro arek astoa ta maie biurtu emen ziotzan.

Urduûn gue motill oi bê makill, asto ta mai, etxea jûn ementzan.

*Andi aurrea danak ondo bizi izé'ementzien.
Oi ala bazan sartu deilla kalabazan.*

1.2. Makilakixki kontuzabarra

(Sagrario Yarnozek euskara baturako moldatutako lehen bertsoia, 1982)

Munduan beste asko bezala, etxe batetan aita hiru semerekin bizi zen. Seme zaharrena morroin joan zen oso urrutira.

Urtea bete ondoren, soldataren ordeztu bat eman zioten ; eta asto hark, berari "egizak urrea" esanez gero, urrea egiten zuen.

Hala, bere etxera zetorrela, gau batetan, ostaturiz urrutiko etxe batetan geratu zen.

Eta oherakoan ostalariari honela esan zion:

-Ez gero nire astoari " egizak urrea " esan !

Baina mutila ohera joan zenerako, ostalariak esan zion astoari :

- " Egizak urrea " .

Eta astoak urrea galanki egin zion.

Orduan ostalariak, asto haren tokian bera bezalako beste asto bat ipini zuen.

Hurrengo goizean, berea zelakoan, ostalariaren astoa hartu, eta mutila, oso alai, bere etxera joan zen.

Esan zion bada bere aitari eta anaiei nolako astoa zekarren. Eta hala, izara handi bat jarri zuen zabalduta, eta haren erdian gure asto hori, urrea hantxe egin zezan.

- " Egizak urrea " - berriz ere.

Eta izara guztia, zimaurturik utzi zuen astoak.

Gero seme bigarrena joan zen morroin.

Eta urtea bete ondoren, mahai bat eman zion bere nagusiak.

" Jarzak bazkaria " edo " afaria " esanez gero, mahai hark bazkaria edo afaria bertan prestatzen zuen.

Hala bada, mutila bere etxera zetorrela, gau batetan, anaia zaharrenari astoa lapurtu zioten etxe berean ostaturiz gelditu zen.

Eta oherakoan, ostalariari honela esan zion :

-Ez gero mahai honi “ jarzak bazkaria ” esan !

Baina hura ohera joan zen ordurako, ostalariak “ jarzak bazkaria ” esan zion mahaiari. Eta mahaiak bertan bazkaria prestatu zuen.

Eta orduan, ostalariak, mahaia ezkutatuz, hura bezalakoxe beste mahai bat ipini zuen haren tokian.

Hurrengo goizean, mutil hark, hartu ostalariaren mahaia berea zuelakoan eta alde egin zuen.

Etxera joan zenean esan zien aitari eta anaiei nolako mahaia zekarren, eta honela deiadar egin zion mahaiari denen aurrean :

-“ Jarzak bazkaria”.

Baina mahaiak ez zuen ezer prestatzen.

Mutil gizarajoa, ez da harritzekoa eta, oso triste gelditu zen.

Gero anaia gazteena joan zen morroin.

Eta urtea bete zuenean, bere nagusiak makila bat eman zion.

Makila horrek bazuen adur ikusgarri bat. Bere aurrean “ makilakixki ” esanez gero, mutil hura ez beste inguruko guztiak jota txikitu beharrean hasten zen.

Hala, gure mutila, etxera bidean, gau batetan, beste anaiei lapurreta egin zien etxe hartan bertan ostalariak gelditu zuen.

Afalondoan, lotara abiatu zenean, ostalariari hau esan zion :

-Gero nire makilari ez esan “ makilakixki ”.

-Ez, ez – erantzun zion ostalariak.

Baina hura ohera joan zenerako, hartu makila eta “ makilakixki ” ! deiadar egin zion ostalari lapurrak.

Eta hasten da makila hori bazter guztiak txikitu beharrean, denak joka, ostalaria eta etxeko beste guztiak. Hark atera omen zuen han ixkanbila !

Orduan ostalaria, estu eta larri, makilaren jabearengana joan eta makila hura geldierazi zezan erregu egin zion.

Baina besteak, ezetz erantzun zion ; arik eta haren anaiei lapurtutako astoa eta mahaia eman artean ez zuela geldieraziko makilarik.

Eta hala, ostalari zital hark astoa eta mahaia bihurtu zizkion.

Orduan gure mutila bere makila, asto eta mahai, etxera joan zen.

Handik aurrera denak ondo bizi izan ziren.

2. Makilakixki XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako banako kulturkideek jasotako lekuan lekuko Antropologiazko historia Ataunen

Felipe Apalategi Goikotxeak *Makilakixki* kontuzaharra Joxemiel Barandiaran bere etxekoneko antropologoari kontatu zion 1921ean. Eta 83 urte beranduago Feliperen biloba den Joxemartin Apalategi Begiristainek antropologiatik analizatu digu.

(Testu hau, 48007 BILBON – Mandobide 2, 2.A. etxeko bere liburutegian, 2004-05-05.3.10:06/11:14tik 2004.07.07.3.17:57arte idatzia da).

2. 1. Sarrera

Nire ikerlan hau lehen-lehenik eskaintzen diet gure familia hedatuko guztiei nire hazketaren eta heziketaren oinarriak nire lurbizidenbora guztirako hortxe eskuratu nituelako: Inixio Apalategi Agirre aitagurearen aldekoiei eta Natalia Begiristain Urbiztondo amagurearen aldekoiei; eta baita nire zuzeneko euskal antropologo maixu eta lagun handienei ere eskerrak jende aurrean beste behin ematen dizkiet: nire ataundarkide Joxemiel Barandiarani, nire “aitabitxi” Julio Caro Barojari, nire herkide Manuel Lekuonari, nire herkide Josemari Satrustegiri, nire herkide Josemaria Jimeno Juriari, nire herkide Jesus Altunari, nire herkide Joamari Apellanezi eta nire herkide Piarres Lafitteri; azkenik nire ikerlan hau egiteko egun elkarrizketatu ditudan nire lau ataundarkide berriemaileei: samartindar Sabino Bikuña Lasari, sangregoriotar Pilar Barandiarani (Joxemiel Barandiaranen iloba eta laguntzaile paregabea.), sangregoriotar Mariarrosario Agirre Egañari eta amagurea den sangregoriotar Natalia Begiristain Urbiztondori.

2. 2. Metodologia

Hemen ondoan ikerlan hau egiteko hasiera-hasieratik ehuntatik ehun kontutan hartu ditudan metodologiazko zenbait printzipio aipatuko ditut, besteenak batzuk eta nireak beste batzuk.

“Pertsona bakoitza da edozein kulturatan oinarria”

Geroz eta indar gehiagoz ari naiz defendatzen banakoa dela edozein kulturatan oinarria eta hori halaxe dela banako bakoitzaren lurbizidena guztian. Honen froga ederra ataundar antropologo eta apaiza zen Joxemiel Barandiaranek 32 urte egin zituen urtean, 1921ean alegia, bere lankide gehiagorekin Gasteizeko Apaizgaitegian sortu zuen aldizkarian, *Anuario de la Sociedad / de Eusko=Folklore* (“Vitoria / Imp. Lib.y Enc. del Montepío Diocesano / S. Antonio 8 y 10”) idatzi zuen artikuluan “Breves instrucciones prácticas / para el investigador folklorista” (11/29 orrialde bitartean) eman zigun, “Reglas generales” (13/15 orr.) idatzian metodologiazko hamabi printzipio aipatuz. Hauetako seigarrenak, hain zuzen, azpimarratzen du gizabanakoaren garrantzi paregabea kultura bat zer den aztertu nahi dugun guztiontzat.

Hemen ondoan hitzez hitz aldatuko dut:

“6. Es preciso atender, no sólo a las creencias, usos y técnicas colectivas, sino también a las manifestaciones individuales. Estas nos darán a conocer más íntimamente el fenómeno de la plasticidad, o sea la tendencia a aceptar ideas nuevas; fenómeno, cuyo estudio es tan interesante para la psicología experimental, como también lo es el del conservatismo o la adherencia del pueblo a las antiguas costumbres y creencias¹. Observaremos, pues, de qué manera el individuo, como tal, se desarrolla en medio de la vida de todo un pueblo; qué posición

¹ Detallada descripción de estos dos fenómenos la hace R. Rivers, (1921), “Conservatism and Plasticity” (*Fol.-Lore*, vol. XXXVII, pág. 10, London).

adopta frente a las creencias y prácticas colectivas; si se deja influir por ellas y hasta qué grado; si él influye en los usos colectivos y cómo; si crea producciones nuevas y originales, y si trata de ganar prosélitos y en qué forma. Al tomar nota de una creencia o de una costumbre, será conveniente preguntar si se conocen hechos ocurridos al informante, y apuntarlos detalladamente en caso afirmativo². A este propósito serían muy de desear monografías que comprendiesen la vida cultural íntegra de individuos cuidadosamente seleccionados. Únicamente así llegaremos a conocer la vida interior de un ciclo cultural”.

Hemen bereziki azpimarratu nahi dut antropologo Joxemielen aipameneko azken esalditik “únicamente” hitza. Azken urte hauetan nire antropologiako ikerketetan horixe bera izan baita nire metodologiako printzipio nagusietako bat. Honi buruzko nire azken aipamena eta indartsuena 2004ko ekainaren 23an, asteazkena, Donostiako Hotel Londresen berrogei eta hamar euskal ikertzaileok idatzi genuen *Euskal Curriculum: Kultur Ibilbidea, Herritik Mundura Eta Mundutik Herrira* liburuan (710 orrialdetakoa) aurkeztean egin nuen. Nire artikulua izenburua hauxe da: “Folk / lore eta antropo / etnologia edo pertsona / talde jakintza” (415 / 443 orrialde bitartean). Hortik hartuta hemen ondoan hitzaldatuko dut nik egun pertsona bakoitzari edozein kulturatan ematen diodan etengabeko lehenetsuna gure haurrei hori nahitaez irakatsi behar diegula heziketa osoan oinarrizkoenezat jotzen dudalarik:

2.3. Pertsona

- Edozein pertsona zatiezina edo indibiduo da.
- Beti, humanitatearen hasieratik.

² W. Schmidt (1914), “ L'étude de l'ethnologie ” (“Semaine d'Ethnologie religieuse II^a session”, pág. 45-49, Paris). Barandiaran, José Miguel de, 1921, 13.

- Nonahi (familian, auzoan, herrian eta ikastolan adinaxe bere bizitza guztiko beste lekuetan).

- Eta edozertan.

Irakasle bakoitzak eta ikasle bakoitzak beti lehen-lehenik pertsona edo indibiduo/zatiezina izan behar dute kontuan, heziketa ez-eskolarra eta eskolarraren lehen-lehenengo oinarria delako.

(Lanaren atal hau, Apalategi Begiristain Joxemartinek 2004: 421 bezala izendatzen du.

48007 BILBON – Deustuko Unibertsitateko liburutegian
2004-05-05.3.13.4.10 : 30/11: 30 idatzia da).

“Pertsona bat dagoelarik dagoen edozein lekutan beti edozein pertsona zientziarentzat ikergarria da”.

XXI. mende hasieran gaudelarik hamaika gauza gure bizi-tzetan aldatu dugu. Horietako bat ikerlanen munduan eman-dako aldaketak dira. Esate baterako antropologia XIX. mendean eta ia XX. mende osoan kolonietako kulturen ikerlantzat bakarrik askok eta askok ematen zuten. Oraindik ere ikuspegi haren aztarnik ez zaigu falta behin baino gehiagotan. Horregatik diot nik pertsona dagoen edozein leku beti ikergarri dela nola antropologiarentzat hala gainerako pertsona zientzientzat eta berdin-berdin gainerako bizidun eta gauzen zientzientzat, hots, biologia eta fisikarentzat barne. Hemen oinarrian mundu osoa eta areago unibertso osoa batasun bat da eta hori beti, noiztik hasita ez dakigularik eta noiz arte ere ez dakigularik.

Agertu dudan metodologiazko printzipioaren alde C.W. Watsonek bere artikulu batean, “Constructing the field: ethnographic fieldwork in the contemporary world” (173/174 orr.), dioen pasarte bat hemen ondoan hitzaldutuko dut. Artikulua *The journal of the royal anthropological institute. Incorporating man* aldizkarian, Volume 1 Number 1 March 2001, dago argitaratua:

“The strenght of all the contribution is their challenging demonstration of the way in wich locations of fieldwork are

now negotiated by anthropologists, and how the older Malinowskian paradigm of the isolated researcher in the field away from home has been superseded. There is some suggestion, and this is stressed by Caputo in her account of her research in urban Canada, that North American universities still look askance at graduate students who wish to conduct their research at 'home' and in their recruitment policies prefer those with a knowledge of a non-Western region. In my experience, this policy seems not to operate in European universities, all of which recognize the validity of anthropological research wherever it is carried out. As the contributors show, the orientation to anthropology at home is not simply a matter of the rejection of the notion of a foreign exotic place for one's fieldwork, but a matter of working in different sites where the boundary of home and the field, the personal and the professional, disappears. Pink, in her discussion on Spanish expatriates in Britain, and Dyck, in his thoughtful autobiographical piece on doing research in Canada on school sports and the ethical dilemmas he faced, both emphasize this point". (Watson, C.W., 2001: 173/174).

2.4. *Etnografia – Antropografia*

Etnografia egiteko Ataungo Sangregorioko Munduate baseriko aitonagure Felipe Apalategi Goikoetxeari (1864 / 1945) buruz, eta baita ere berak 1921ean bere etxekoneko Peunezaharre baserriko auzotar arkeoantropologo berrijasotzaile Joxemiel Barandiarani esandako *Makilakixki* kontakizunari buruz, egun Ataunen jende zaharren artean berriemaile batzuk aukeraturaz eurekin elkarrizketa motz batzuk grabatu eta gero hemen oso osorik transkribatuko ditut. Hala ere, esan behar dut etnografia hau ez dela aitona gurea Felipe berari egin izan balitzaio bezalako oinarrizkoa. Baina bera gehiago edo gutxiago ezagutu zutenen antropografiari garrantzi handia ematen diot neure ikerlan honetan antropografia txikienak ere ikertzaileoi beti frogabide zaizkigulako.

Aurrez aipatu dut nola Joxemiel arkeoantropologoak, Gasteizko Apeztegian, 1921eko abenduan, *Anuario de la sociedad de*

eusko=folklore sortu zuenean, “Breves instrucciones prácticas para el investigador folklorista” artikulua argitaratu zuen, eta gaur egun ere metodologian oinarritzkoenetakotzat jotzen ditudan hamabi arau erakutsi zituen. Hauetakoa bi, hamaikagarrena eta hamabigarrena, hemen ondoan hitzez hitz emango ditut ohar gaitezen XX. mende hasieran egungo goi teknologiarik berri bilketarako antropologoez ez zeukatenean nolako antropografia-rako bidea eskaini zien bere inguruko euskal antropologoei:

“11. No confiemos los datos a la memoria. En cuanto los conozcamos, apuntémoslos en un papel o cuadernito que siempre llevaremos en el bolsillo. Al lado de cada dato escribiremos el nombre, la edad, la naturaleza y grado de cultura literaria del informante y la fecha de la investigación.

12. Las leyendas, cuentos, fórmulas y refranes se han de transcribir en la misma lengua y dialecto en que lo refiere el pueblo” (Barandiaran, José Miguel de, 1921: 15).

Hori bai!, oso kontuan eduki behar ditut, kontalaria, aitonagure Felipe, hilda dagoela, berdin kontakizunaren biltzailea, Joxemiel bera ere, eta gainera 1921.etik gaur arte 83 urte igaro direla. Azkenengo datu honi buruz Julio Caro Baroja historian-tropologoak zioena nire 1987ko *Introducción a la historia oral a través de los kontuzaharrak (cuentos viejos) de la comunidad gipuzkoana de Ataun* libururako egin zidan “Prólogo”ko (9/11) pasartean hemen ondoan hitzaldatuz agertuko dut, nik neuk ere, beste behin, hemen eta orain gogoeta berbera azpimarratzen dudalarik neure ikerlan honetako metodologiako printzipio nagusieta-kotzat emanez:

“La temática del libro de J.M. Apalategi es rica e ilustrativa. Él la estudió pensando en redactar una tesis doctoral que presentó a un tribunal en la Facultad de Filosofía y Ciencia de la Educación de San Sebastián (Zorroaga), en el que estuvo el que escribe estas líneas, y que le otorgó la calificación máxima.

Es de esperar, ahora, que siga ampliando sus investigaciones, aunque claro es que la situación de la cultura tradicional del país en 1984 no es la que era a comienzos de siglo, cuando

Barandiarán comenzó sus impresionantes pesquisas, ni la de hace cincuenta años, cuando personalmente realicé yo unas modestas averiguaciones en el pueblo donde estoy afincado y en otros próximos. No es grato a veces que la tarea del etnógrafo consista en escribir una serie de “actas de defunción”. ¡Pero qué se le va a hacer!” (Caro Baroja, Julio, 1987:11.)

Betikoak!, dagoenaz bakarrik balia gintezke pertsonok gure edozein ekintza burutzerakoan. Honek, hala ere, gehiago balio du bere egilearentzat ezer ez egiteak baino.

(Atal hau idatzia izan da 48007-BIBON- Mandobide, 2, 2A.n, autoreak daukan liburutegian: 2004-05-27-4-10:06/2004.05.28.5.08:54).

2.5. Etnografiatzko elkarrizketen eta (i) irratiko grabaketaren transkribapenak

Orain hasiera emango diet 2004ko maiatzaren 17 astelehenan, 18 asteartean eta 19 asteazkenean Ataun nire jaioterrian egin nituen lau elkarrizketen transkribapenei. “Casio / Compact Cassette Recorder/Player TP-7” esku grabagailua erabali nuen grabaketarako eta “TDK” “DIECI / TYPEI” “NORMAL POSITION” “60” minutukoa “Dynamic Cassette Low Noise High Output” markako bi kasetetan jaso nituen aipatu lau grabaketak.

Noizbehinka erabiliko dudan ikurraren esanahia hemen ondoan azaltzera noa:

< >: Ikur honen barnean grabaketari buruzko oharrak adieratziko ditut.

1 Kasetak: A alderdia, 001 / 448 zenbakien bitartean

Hasiera: Nire 4 grabaketen hasierako data eta azalpena: 2004.05.17.1.09:07.

001 / 010: Ezkalune etxeko bigarren solairuan, amagurea Nataliaren etxebizitzan. Gaur Ataungo Sangregorioko Ezkalune etxean bigarren solairuan amagurea Nataliaren etxebizitzan eta

nire logelan bi mila eta lauko maiatzaren hamazazpian, astelehena, goizeko bederatzia eta zazpi minututan. Gaur eta bihar aitona-gure Felipe Apalategiregandik Joxemiel Barandiaran antropologoak <aitona gurearen etxekonekoak> jasotako *Makilakixki* analizatzeko etnografia egin nahi dut.

(Atal hau idatzia izan da 48007 BILBON – Mandobide 2, 2. A.n autoreak daukan liburutegian. Hasiera: 2004.05.27. 4.10:06/12:03 Atsedendia /15:27. Berrasiera / Amaiera: 17:30. Idatzaldaketaren berrikusketa: 2004.05.09.10:30!/11:30!.)

Lehen etnografiazko elkarrizketaren transkribapena

Nire Ataundarkide Sabino Bikuña Lasa Berriemailea. Ataungo Samartingo Agerre baserrian jaiotakoa 1938an. Ataungo Samartingo Urbietako tabernako aparkalekuan biok zutik garela elkarrizketatzen gara 2004.05.17.11:00/11:46 bitartean. Gure elkarrizketa honako gure izen deituren laburdurekin adieraziko dut eta gainera grabagailuaren zenbakiekin:

ABjm : Apalategi Begiristain joxemartin.

BLs : Bikuña Lasa sabino.

Grabaketa: Lehen kasetak A alderdia, 011/056 zenbakien bitartean.

ABjm 011 / 012: Hemen Samartinen. Bitor Jatetxearen parean gaude, ni Joxemartin eta, zuk nola dezu izena?

BLs 012 / 01: Sabino!

ABjm 013 / 013: Sabino. Eta deiturak? Apiliduak?

BLs 013 / 013: Bikuña Lasa.

ABjm 013 / 014: Lasa. Eta zein etxetakoa zea Samartinen?

BLs 014 / 014: Agerreko <ez diot ulertzen hitz bat>.

ABjm 014 / 015: Aa Agerrekoa! Aa horkoa, horkoa, horkoa! <Hain xuxen gure aurrean bestaldetik dagoen muino gaineko etxe bakar horretakoa dela azaltzen dit nire berriemaile Sabinok>. Bai nahi nizun nee galdetu zuk ke zure haurtzaroan ezaututakoaz. Orain zenbat urtee daukazu?

BLs 015 / 015: Hirueta sei!

ABjm 015 / 018: Hirurogeita sei. Bai!, zure haurtzaroan ezta hemen, Ataunen, baaa baserritan eta holaa, jendea joaten zanean, mutilezkoak joaten zienean ne lanea

BLs 018 / 018: Lanea !

ABjm 018 / 018: Beste baserriitaa. Eta horren gainean pixkatxo bat kontatzen badiazu

BLs 018 / 018: Baserri, baserria gu ez! Gu fabrikaa!

ABjm 018 / 019: Fabrikaa! Aaa zuek ia fabrikaa!

BLs 019 / 019: Fabrikaa!

ABjm 019 / 019: Baino, zuen aurrekoak?

BLs 019 / 020: Ooo, nik eztakit ordea aurrekoek ze ingo zoen! Auskalo ze ingo zoen haak, jan da eon igoal! <Barrezka hasten da Sabino>, lanea <ez diot ongi ulertzen gehiago>.

ABjm 020/ 021: Eeez!, nik badakit joaten ziela baserriitaa ta abar da.

BLs 021/ 021: Ee lehenau jutun zien basoa!

ABjm 021/ 021: Basoa!

BLs 021/ 022: Basoa! Baserriko motilek basoa jutun zien, neguun da. Basoa!

ABjm 022/ 022: Eta zeinen kontura?

BLs 022/ 023: Eee bazien hemen hola egurretan da ibiltze zienak, ee ze esangoizut pa nik. Orbegozo bat, ikatzetan ibiltzen zan. Ikatza eitten zioten hari.

ABjm 023/ 023: Baai!

BLs 024/ 024: Eta geo beste bat tee bazan, eztait zein zan!

ABjm 024/02: Baita!

BLs 024/ 025: Ez naiz akordatzen oain zein zan, besta bat!

Harena jutun zien!

ABjm 025 / 025: Aaa! Baita!

BLs 025 / 026: Egurretan da neguun da ibiltzen zien mendiin da udaan baserriin da. Holakook!

ABjm 026/ 026: Hori da! Hoolako bizimodua!

BLs 026/ 027: Hoolako bizimodue zan hemen garai baten! <hitz bat edo beste ez diot ulertzen>.

ABjm 027/ 02: Hori zuen nee gurasoen garaien eta...

BLs 027 / 027: Hoori!
 ABjm 027/ 027: Aitonan garaien da.
 BLs 027/ 028: Gue gurasook hoorik eitten zituenak. Gu gazteegook ia gero fabrikaa.
 ABjm 028/ 028: Bai! Zuek ia fabrikaa. CAFea, ezta?
 BLs 028/ 029: Bai! Horrea juten gendun <sic>.
 ABjm 029/ 029: Hori da!
 BLs 029/ 029: Hor aspertu ta geo txofer ibili nintzen.
 ABjm 029/ 029: Zein urtetan hasi zan nee CAFeko hori?
 BLs 029/ 030: Uuuu, eztaik nik ideaik! Buuf!
 ABjm 030/ 031: Mila beatzirehun etaa
 BLs 031 / 031: Beatzirehunik etzan izango hoi hasita daula.
 ABjm 031 / 031: Mila beatzireun da
 BLs 031 / 031: Ezta! Mila ta zortzireun hoola!
 ABjm 031 / 031: Aaa!
 BLs 031 / 032: Horrek urte asko dauzka!
 ABjm 032/ 032: Hemeretzigarren mende bukaeran!
 BLs 032 / 032: Hoolakoon bateen!
 ABjm 032 / 032: Bai ta.
 BLs 032 / 033: Ni ez naiz akordatzen noiz.
 ABjm 033 / 034: Baita! Baita, baita! Eta zuk inoiz entzun nee aaa izan al dezu ee esatebaterako *Makilakixki* edo hemen Ataunen?
 BLs 034 / 034: Zer da hori *Makilakixki*?
 ABjm 034 / 035: Ba hori galdetzetzen dizut zuri. Ez dezu entzun?
 BLs 035 / 035: Nik kez, Makilakixkiik nik eztet aittu hemen sekulan!
 ABjm 035 / 036: Bai hori ee Joxemielek...
 BLs 036 / 036: Dantzamakilea izangoa hoi !
 ABjm 036 / 039: Ez ez ! Makilakixki. Ez! Hori daa, zea joan zan mendeen haserako hemen nee kontatzen zan kontakizun bat. Hainbeste kontatzen zien da Joxemiel Barandiaranek ke jasotakoa!
 BLs 039 / 039: Ez ez!
 ABjm 039 / 039: Eta hain xuxen ba gurean Munduateko...

BLs 040/ 040: Munduate!
 ABjm 040 / 041: Aitona Felipe. Ezautu al zendun?
 BLs 041 / 041: Ez, ez!. Aitze.
 ABjm 041 / 041: Bai!
 BLs 041 / 041: Aitzerea Felipe bai baino.
 ABjm 041 / 041: Harren ne, gure aitaren aita.
 BLs 041 / 042: Aita!
 ABjm 042 / 042: Harengandik jasotako Makilakixki.
 BLs 042 / 042: Nik kee aitzera hori eztut nik.
 ABjm 042 / 042: Orduan eztezu horren aitzerarik, ezta?
 BLs 042 / 042: Ez! Arrastoik kee!
 ABjm 043 / 043: Eta hola beste kontakizunen nee aitzeraik
 eta zuen garaien?
 BLs 043 / 044: Ni ez naiz akordatzen garai. Kontuuk bada-
 kitzat nik garai batekok baino ez naiz akordatzen.
 ABjm 044 / 044: Baino hola kontakizunek eta ez!
 BLs 044 / 044: Bai lehenauko...
 ABjm 044 / 045: Kontuzaharrak eta.
 BLs 045 / 045: Txiste bezela kontatzen zituenak!
 ABjm 046 / 045: Kontuzaharrak eta holako gauzaik!
 BLs 046 / 045: Txiste bezela kontatzen zituen, aitona zaharrak!
 ABjm 045 / 045: Baita!.
 BLs 045 / 046: Neguun suondoan jartzen zienen.
 ABjm 046 / 046: Baita!
 BLs 046 / 046: Horiik kontatzen aitzen zien.
 ABjm 046 / 046: Baita, baita, baita!
 BLs 046 / 047: Eztauke nik gogon batee hoiitatik!
 ABjm 047 / 407: Aaa, hori da, hori da!
 BLs 047 / 407: Hortakoo buru ona behar do ta!
 ABjm 047 / 048: Bueno bai ee!
 BLs 048 / 048: Guk kee oain burue jutun aitzaku.
 ABjm 048: Alde batetik, bai! eta gero bestetik kere baakizu
 garaiek kere asko aldatu dira.
 BLs 048 / 409: Bai, asko, asko!
 ABjm 049 / 049: Eta ez da berdine! Zu ee hor jaio zinen.

BLs 049/ 450: Bai ni hortxe!
 ABjm 050 / 050: Honea eztago batere aldeik, ezta ?
 BLs 050 / 050: Hor eonintzen ezkondu arte.
 ABjm 050 / 050: Hori da, hori da! Aa ta gero hemen bizi ...
 BLs 051 /051: Hemen, beheko etxe hortan bizi naiz.
 ABjm 051 / 051: Ta zein etxetan? Nola do izena?
 BLs 051 / 051: Altzanipe!
 ABjm 051 /051: Aa Altzanipen. Aa!
 BLs 051 / 051: Bail.
 ABjm 051 / 052: Altzanipeko hontan.
 BLs 052 / 052: Altzanipen!
 ABjm 052 / 052: Oso ondo! Bueno ba eskertzen dizut!
 BLs 052 / 052: Ez horreatio!
 ABjm 052 / 053: Oain nee hamabik kee hamalau minutu gutxi
 BLs 053 / 053: Bai, hola muz!
 ABjm 053 / 053: Eta gaur bi mila ta laukoo maiatzaren hamazazpi astelehena.
 BLs 053 /054: Astelehena!
 ABjm 054 / 054: Hori da! <barre pixka bat egiten du Sabino>. Nola esan didazu izena, barkatu?
 BLs 055/ 055: Sabino! Sabino!
 ABjm 055 / 054: Sabino eskerrikasko!
 BLs 054 / 054: Baai!
 ABjm 054 / 055: Etaaa zuei denoi ere <Sabinoren eskubiko aldean furgoneta bat dago eta bertan aurreko aldeko bi eserlekuetan gizonetzko adineko bana daude eserita. Sabino hauekin elkarriketan zegoen ni berarengana hurbildu natzaionean. Gure elkarriketa grabatu denbora guztian bi adinekoak leku berean mugitu gabe egon dira>.
 BLs 055 / 055: Baai!
 ABjm 055 / 055: Egunon bat ta, beste bat arte !
 BLs 055 / 056: Hoori esplikazio gutxi galdetu ee. Hook ke maixuk kee <hementxe grabagailua itzaltzen dut.>.

(Atal hau idatzia izan da 48007 BILBON – Mandobide 2, 2.A.n autoreak daukan liburutegian. Hasiera: 2004.05.28.5. 09:03 / Atsedena: 10:34/ Berrasiera: 15:25/ Atsedena: 16:34/ Berrasiera: 16:39/Atsedena: 17:31. /Berrasiera: 2004.06.01.2. 08:55// Atsedendia: 09:58 / Berrasiera: 10:12 / Amaiera: 10:54. Idatzaldaketaren berrikusketa: 2004.05.09.3.13:10// Atsedendia: 13:40// Berrasiera: 15:55 / Amaiera: 17:22.)

Bigarren etnografiako elkarrizketaren transkribapena

Nire Ataundarkide laguna Pilar Barandiaran Barandiaran berriemailea. Ataungo Sangregorioko Perunezaharren jaiotakoa 1911n. Ataungo Sangregorioko Sara etxeko atariko bankuan biok eserita garella elkarrizketa egin dugu 2004.05.17.1.12:16/12:32 bitartean. Gure elkarrizketa honako gure izen deituren laburdurekin adieraziko dut eta gainera grabagailuaren zenbakiekin:

ABjm: Apalategi Begiristain joxemartin.

BBp: Barandiaran Barandiaran pilar.

Grabaketa: Lehen kaseteta A alderdia, 057/285 zenbakien bitartean.

ABjm 057 / 064: Bueno! Hemen nee Pilar rree Barandiaranekin bere etxean, Saran <Ataungo Sangregorio>, eta gaur bi mila lauko maiatzaren hamazapia, astelehena, eta une honetan hamabiak eta hamasei minutu. Elkarrizketa bat egin behar dugu gu bion artean. Ni Joxemartin. Eta lehenengo gauza galdetu nahi dizudana da zure, lehenik zure urteak, zenbat urte daukazun?, zein urtetan jaiotakoa zaren?

BBp 065 / 068: <Hitz bat ez diot ulertzen>. Ni otsailen hamaikan jaiotakoa, eta laroeita, laroeita hamairu urte einda.

ABjm 068 / 069: Bueno, ordun oaindio neska gaztea!

BBp 069 / 069: Bai, jarri ai, ikusiko ek!

ABjm 069 / 070: Eta otsailekoa! Neu be halaxe naiz.

BBp 070 / 070: Aa ba!

ABjm 070 / 072: Bueno pozten naiz! Eta bestea, ee, galdera bat, zure han nee haurtzaro denboran, zu

BBp 072 / 072: Baai!

ABjm 072 / 072: Eta zure aita eta amaren izenak?

BBp 072 / 072: Zeinenak?

ABjm 072 / 073: Zure aitaren eta amaren izenak.

BBp 073 / 075: Amana Inazia Barandiaran, eta aittena Jose Antonio Barandiaran.

ABjm 075 / 076: Hori da! Orduan biak Barandiaran.

BBp 076 / 076: Biik Barandiaran.

ABjm 076 / : Eta, ba, beste galdera da: zuree senideak, zenbat zineten?

BBp 078/ 080: Bi ahizpa! Bestea, ni baino zaharragoa hoan lau urtez Maria!, Maria Barandiaran!

Bjm 080 / 084: Hori da!. Bai ezautu nuen! Eta beste galdera da: ¿zuree haurtzaro denboran, Peunezaharren, eta hemen, hemen ingurur, hola baserritan da eta etxeetan ee gizonetzkoak kee morroi joaten zirenean eta. Horren gainean zer gogoratzen dezu? Ze baldintzakin joaten ziren? Eta noa joaten ziren edo?

BBp 084 / 088: <Hiru bat hitz ez diot ulertzen>. Nik pazekiat gu etxeen beti eo neskamea eo morroia izen zala, zeati laneako inor ez genduzkean baserrin da. Baino besteainetin, eztiat esango.

Bjm 088/ 088: Ez dezu gogoratzen. Eta, zer ordaintzen nee zitzaien?

BBp 088/ 089: Ez eztiat esango!

ABjm 089/ 092: Eztezu hori ia gogoan. Hori da! Eta gero bestee gauza bat, eee, zuk entzungo zendun garai hartan da orain ea gogoratzen dezun. Makilakixki entzun al zenuen?

BBp 093/ 093: Ez!

Bjm 093/ 093: Ez!

BBp 093 / 093: Ez!

ABjm 093 / 095: Ez! Ba hori esaten dizut tee mila beatzirehun eta hogeita batean, zuk orduan nee, esan dezu jaiotakoa hamaikan edo, ezta?

BBp 096 / 095: Bai!, hor jaiotakoa.

ABjm 096 / 100: Orduan baa hogeitaa batean, hamar urte. Urte horretan eeee zuen osabak Joxemielek baa gure aitona

Feliperengandik kontuzahar bat tee Makilakixki izenekoa jaso zoon.

BBp 100 / 101: Ez nook oroitzen!

ABjm 101 / 101: Zu ez zara akordatzen, ezta?

BBp 101 / 101: Ez!

ABjm 101 / 105: Hori da! Eta garai hartan nee normalean hemen baserritan da zera gizonezkoak bezelaxe emakumezkoak kere neskame eta morroi ibiltze al ziren?

BBp 105 / 105: Berdin!

ABjm 105 / 105: Berdin!

BBp 106 / 106: Berdin!

ABjm 106 / 106: Eta etxe askotan hori gertatze al zan?

BBp 106 / 107: Ez! Familie txikie zeon tokiin.

ABjm 107 / 108: Hori da! Zuenean bezela bi ahizpa...

BBp 108 / 108: Bi ahizpa eta aitte ta amaa.

ABjm 108 / 109: Ta orduun jende gehiago behar!

BBp 109 / 109: Gehiago behar!

ABjm 109 / 111: Etaa zuen etxean egoten ziren hoiek kee, ee, batera neskame bat eta morroi bat edo, nola?

BBp 111 / 111: Ez, banaka!

ABjm 111 / 111: Banaka!

BBp 111 / 112: Banaka!

ABjm 112 / 112: Bater behine ez!

BBp 112 / 112: Ez!

ABjm 112 / 113: ¿Eta zenbat denborarako edo egoten ziren?

BBp 113 / 113: Ez, ezoan ne denbora askon <bi edo hiru hitz ezin dizkiot ulertu>.

ABjm 113 / 114: Ia!

BBp 114 / 114: Heak aspertu arte!

ABjm 114 / 116: Heak aspertu arte! Hori da, hori da! Etaa etxean nee biziz, ezta?: lanegin, jan...

BBp 116 / 116: Jan da...

ABjm 116 / 116: lo.

BBp 116 / 116: danak besteak bezela!

ABjm 116 / 116: Hori da!

BBp 116 / 117: Etxekook bezela!
 ABjm 117 / 119: Hori da! Eta orain ne bestea: guree aitona
 Felipe ondo ezagutu zenuen?
 BBp 119 / 119: Bai!
 ABjm 119 / 119: Zer gogoratzen dezu harri buruz?
 BBp 119 / 120: Bai! <hiru bat hitz ez dizkiot ulertzen>.
 Guutzako umeentzat ona hoan. ¡Oso goxoa hoan umeentzako!
 ABjm 120 / 121: Baai!
 BBp 121 / 122: Eta hor ibiltze hoan hue ere lanen.
 ABjm 122 / 123: Eta ze lanetan?
 BBp 123 / 125: Baa nekataritzan. Eta geo usteet <hitz bi
 edo ez dizkiot ulertzen> mendiin ibiltzen zala. Oain ahaztu egin
 zaiatzak ordea nei gauza asko!
 ABjm 125 / 126: Bai normala, hainbeste urtekin! Hori hor
 normala da, Pilar! Eta mendin hola zein menditan da?
 BBp 126 / 127: Ikatza eiten da hoola ibiltzeitun.
 ABjm 127 / 130: Hori da! Hori da! Etaa bera zuk kee
 ezagutu zenuenean, berak kee zenbat urte izango zitun?
 BBp 130 / 131: Eztiat esango! Eztiat esango!
 ABjm 131 / 133: Hori da! Etaa hil zanean gogoratze al dezu?
 BBp 133 / 133: Nola hil zan, bai!
 ABjm 133 / 133: Baai! Etaa...
 BBp 133 / 133: Felipe hil zala!
 ABjm 133 / 134: Baai! Eta nola?
 BBp 134 / 134: Bai no ni kanpoon netuan.
 ABjm 135 / 135: Aa! Zu ia kanpora joan da.
 BBp 135 / 135: Baai!
 ABjm 135 / 135: Osabarekin?
 BBp 135 / 136: Ez! Arteen Bitoriin netuan kolejioan.
 ABjm 137 / 137: Hori da! Hori da! Eta zu han zeundela...
 BBp 137 / 137: Felipe hil hoan.
 ABjm 138: ¡la! Urte askokin hil al zan?
 BBp 138 / 139: Bai, bastante zahartue!
 ABjm 139 / 141: Hori da ! Hori da ! Eta zuek kee harreman
 haundie?

BBp 141 / 141: Haundie danakin!

ABjm 141 / 141: Munduatekokin!

BBp 141 / 141: Munduatekokin!

ABjm 141 / 142: Zeatio esateko ba...

BBp 142 / 149: Eta Munduateko umeek ketaa gu danak izkutaketan da jolasen <bi bat hitz ez dizkiot ulertzen>. Zuun aittejaunek <hitz bat edo ez diot ulertzen> ¡hamaikaldiz esan zian nei. Munduatek zian, eztiat oain esplikauko dean!, eta nei esaten zian ne. Munduaten motilek, danak! eta nei esaten zian: “Hixe haiz marimutile!”.

ABjm 149/ 149: Horiii aitona Felipek!

BBp 149 / 151: Eez! Nola zoon aitonak?

ABjm 151 / 151: Ordun nee, aitona Feliperen aitek?

BBp 151 / 151: Aitek!

ABjm 151 / 152: Aa, gure berraitona!

BBp 152 / 153: Amaan aitek! Ama hoan Munduatekoa.

ABjm 153 / 153: Bai!

BBp 153 / 153: Aite hoan kanpotik etorritakoa.

ABjm 153 / 154: Bai! Aa orduun aman aitte!

BBp 154 / 154: Aman aitte!

ABjm 154 / 156: Bai! Ama Prantxika edo, nola zan? Gure amandrea. Ez naiz oain gogoratzen. Izena ahaztuta dauket.

BBp 156 / 156: Bai!

ABjm 156 / 156: Bai! Ahaztuta dauket!

BBp 157 / 157: Ez!

ABjm 157 / 157: Amagureari galdetuko diot. Hura akordatuko da.

BBp 15 / 158: Akorda. Nii...

ABjm 158 / 160: Orduan nee hark kee hori esaten zizun, ezta? <barrezka hasten naiz>. Baita, baita! Eta erreka pasatzeko ta, nola konpontzen zineten?

BBp 160 / 161: Zubie gendukean einda egurrekin geok, juxtu juxtu pasatzekoa!

ABjm 162 / 163: Aa!

BBp 163 / 163: Hantxe pasatzen ginuztean.

ABjm 163 / 164: Oso ondo! Eta urte guztian zubi horretatik pasatzeko modue ba zenduen?

BBp 164 / 166: Baai! Urek eamaten zian baino berriz ein eite zien. Geo besteañetin errekan harriti harriz saltoka.

ABjm 166 / 167: Baita, baita, baita!

BBp 167 / 168: Bestela Gomontsoko zubitik juun behar genduan da.

ABjm 168 / 168: Ia urruti!

BBp 168 / 169: Urruti! Handik eroxogo gendukean.

ABjm 169 / 169: Hoi da! Hori da! Bai, pare paren!

BBp 169 / 169: Bai!

ABjm 169 / 174: ¡Pare paren! ¡Hori da! Etaa orain beste galdera bat tee. Zure larogei eta hamairu urte hauetan, zure haur-tzarotik oain honera, zer hola aldaketa nagusi botako zenituzke?

BBp 174 / 175: Ez zeok esateik!

ABjm 175 / 175: Zuk bizi izandakoak? Zuk bizi izandakoak?

BBp 175 / 176: Ez zeok esateik! Ez zeok esplikatzek! Ez zeok esplikatzek!

ABjm 176 / 176: Orduan ez tauke ze ikusiik!

BBp 176 / 177: Eeez, ez, ez, ez! Ikaragarrizko kanbioa!

ABjm 177 / 178: Ta gauza guztietan?

BBp 178 / 181: Daneen! Daneen! Famelitan! Alkarrekin hartuemanetan! Da danen, dan danen!

ABjm 181 / 182: Eta gero pentsatzen dut ogibiden ere.

BBp 182 / 183: Baita! Difentzi handiik!

ABjm 183 / 183: Zuek orduan lurretik eta animalietatik.

BBp 183 / 184: Bai! Guk talo ta esnea genduan. Hue genduan.

ABjm 184 / 185: Eta hola animaliak, ze eratako animaliak zenituzten?

BBp 185 / 186: Behiek da txerriik!

ABjm 186 / 187: Behiek eta txerriik! Behiek esnetako...

BBp 187 / 187: Bai!

ABjm 187 / 188: eta txerrik jateko.

BBp 189 / 192: Bueno esnetako! Esnea asko ez genduan. Geo bai!, ia hasi hoan Lazkaotik esne esne biltzen, Lazkaoko at. Eta orduun poliki. Baino lehenau ez zoan esneik ematen!

ABjm 192 / 193: Hoi da! Eta hola bestee animali klaserik etxean?

BBp 193 / 195: Ez! Oilook eta konejun bat eo beste! Baino gutxi!

ABjm 195 / 197: Eta zuek kee zure haurtzaro denboran, hau da zuk aldegin aurretik, eta gazte denboran, astorik?

BBp 197 / 200: Astoa, bai! Eta guk astoa gaiztoa genduan gainea! Haundie hoan astoa eta indar haundikoa. Baino etxe-kokin, oso goxoa! Baino kanpokokin ostikaka ta ibiltzen zana.

ABjm 200 / 201: Aa bai?

BBp 201 / 201: Baai!

ABjm 201 / 201: Eta zergatik hori?

BBp 202 / 206: Ezekiaat. Manie zeukean eozinetare ta ezau-tu eitten zian kanpokoa zala hue. Ni gertauta natxok: Goikotxea astoa eaman eta ez zala gelditzen. Eta ni neska txiki, neska kosko-rra eama netuen. Da nee, nik erremaletik heldu eta, astoa geldi geldi!

ABjm 207 / 208: Orduun nee asto horrek nola zoon izena?

BBp 208 / 208: Astoa!

ABjm 208 / 209: Orduun nee horrek kee entenditu eiten zoon?

BBp 209 / 209: Ez zekiat nik ze ingo zoon!

ABjm 209 / 210: Noiz zeukan etxekoa aldamenen da noiz kanpokoa?

BBp 210 / 211: Aa hoi bai! Beno hoi danak esateia ee!

ABjm 211 / 211: Aa bai?

BBp 211 / 211: Baai!

ABjm 211 / 211: Ordun nee azkartasuna ere...

BBp 212 / 211: Bai,

ABjm 211 / 212: Badute!

BBp 212 / 212: Hoi bazeukea! Ba zieen! eta oaingook kee eukiko ia nik uste iat.

ABjm 212 / 215: Hoi ikuskarrie da hori benetan! Hori ikuskarrie! Eta gero holaa ee etxeetan eta abar mahaiek eta gauzak eta, nola zeniztuzten edo?

BBp 215 / 216: Natural!

ABjm 216 / 217: Natural! Etxeen egindakoak ala kanpotik ekarritakoak?

BBp 217 / 221: Ez! Jenealeen guk geok etxeen eindakoa genduan. Eta jeseoa iotze hoan biii zeakin, ze esaten zaie horiii?, betigora.

ABjm 221 / 221: Polea edo,

BBp 221 / 221: Ez!

ABjm 221 / 222: Holako?

BBp 222 / 223: Eta geo maatilekin alo itxi.

ABjm 223 / 223: Baai!

BBp 223 / 223: Biixarak!

ABjm 224 / 224: Bixarak!

BBp 224 / 225: Bixarak!, uste iat! Enatxook seguro ee!

ABjm 225 / 225: Bai!

BBp 225 / 226: Da hala genduan. Sukaldea libre genduan. Orramarie sukalden genduan guk.

ABjm 226 / 227: Orrea egiteko.

BBp 227 / 227: Baai!

ABjm 227 / 238: Ta ee gero orrea hori izaten zan talokin.

BBp 228 / 228: Talo talo eitteko.

ABjm 228 / 230: Taloa eitteko. Eta gero bazkaltzekon eta hori non eseritzen zineneten edo nola?

BBp 230 / 233: Jee! Mahaie jexten genduaan eta <hitz bat ez diot ulertzen> geo banku at eote oan han, geo silaak keo da han jarri ta korrientea baina plater batetik lehenbizi.

ABjm 233 / 233: Plater batetik!

BBp 233 / 234: Baai! Gero banaak ginduan.

ABjm 234 / 235: Ia! Aurrerago ia.

BBp 235 / 235: Baai!

ABjm 235 / 235: Baina haseran plater batetik...

BBp 236 / 236: Batetik!

ABjm 236 / 236: ezagutu zenuen,
 BBp 236 / 237: Baai, danak!
 ABjm 236 / 236: danok kee jaten.
 BBp 236 / 236: Baai!
 ABjm 236 / 237: Hori da!
 BBp 237 / 238: Fuente baten jarri mahien erdiin.
 ABjm 238 / 241: Eta zuen etxean nee gogoratze al dezu
 mahaie ee bakarren batek kee ee ein zoola edo?
 BBp 241 / 241: Baai!, mahaie!
 ABjm 241 / 242: Esan dezu etxean eindakoa taa.
 BBp 242 / 249: Bai Errotatxoon! Han eitten zien. Ittuun, ez
 zekiat nungook zien! Iizatekoa hoan bestea. Eta eitten zien aa
 arotzak. Ta haak ein eta geo jarri gu etxean ein zien. Eta beste
 leku askotare bai!
 ABjm 249 / 250: Baita! Eta mahai hoiek kee ordaintzeko ta
 nolaa, nolaa! Diruik bazan orduun?
 BBp 250 / 251: Al zan dineen! Al zan bezela eitte oan!
 ABjm 251 / 255: Hoi da! Eta gero bestea zeraaa ee makilak
 eta abar da, nola zien hook? Makila asko erabiltzen zenuten?
 BBp 256 / 257: Ez! Ez genduzan makila asko ebailtzen! Gu
 etxen e nian nik makilaik ezautu!
 ABjm 257 / 258: Eta Munduaten?
 BBp 258 / 258: Ezta!
 ABjm 258 / 259: Orduan hemen nee hola ingurun, makila
 gutxi!
 BBp 259 / 261: Ez! Makila gutxi!
 ABjm 261 / 263: Oso ondo! Bueno beste zerbait tee nahi
 badezu erantsi, hola gogoratzen zaizunik.
 BBp 263 / 264: Bai!, nik zer? Nii zer etortzea oain nahi dek?
 ABjm 264 / 265: Hori zure gauzaik txikiena.
 BBp 265 / 265: Baai!
 ABjm 265 / 265: gauza haundie da guretzat!
 BBp 265 / 266: Eztakit!
 ABjm 266 / 266: Ia ehun urteko kontuuu, kontue da ta!
 BBp 266 / 266: Baino

ABjm 266 / 269: Denborek kee indar hori dauke! Gutxi gogoratu arren, gu, gogoratzen den horrek kee esanahi haundie daukela.

BBp 269 / 270: Hala eukiko oteo?

ABjm 270 / 271: Oso ondo Pilar!

BBp 271 / 272: Bai!

ABjm 272 / 272: Bueno ba, eskertzen dizut!

BBp 272 / 273: Nike bai hiri! <hiru bat hitz edo ezin ditut ulertu>.

ABjm 273 / 273: Eta berrizere jarraituko deu!

BBp 273 / 274: Eskerrikasko ! Bai hoi dek !

ABjm 274 / 278: Eta orain nee une honetan nee hamabiak eta hogeï ta hamabi minutu. Hementxee terrazan, atariin biok eseita nere eskubitik kee Pilar dela, ee, patxaran patxaran. Eguzki zoragarriarekin!

BBp 278 / 280: Baai! Aurtengo maiatzak etziuk asko eman! Hotza bai!

ABjm 280 / 281: Latzak!

BBp 281 / 281: Ikaragarriik izan dituk!.

ABjm 281 / 282: Gogoon ne izateko modukoak!

BBp 282 / 282: Bai!

ABjm 282 / 283: Jende guztiik hori dio eta ;zerbaitegatik!

BBp 283 / 284: Bai!. Hoi zeok!

ABjm 284 / 284: Oso ondo ba Pilar! Eskerrikasko berriro!

BBp 284 / 285: Nik hiri!

(Atal hau idatzia izan da 48007 BILBON – Mandobide 2, 2.A.n autoreak daukan liburutegian. Hasiera: 2004.06.01.2.13: 01/ Atsedena: 13:41 / Berrasiera: 2004.06.02.3.08:25/ Atsedena: 08:59 / Berrasiera: 10:53 / Atsedena: 11:36 / Berrasiera: 2004.06.03.4.09:19/ Atsedena: 11:00 / Berrasiera: 11:15 / Atsedena: 11:59 / Berrasiera: 15:23 / Amaiera: 18:57. / Idatzaldaketaren berrikusketa: 2004.05.10.4.08:23 / Atsedena: 09:42 / Berrasiera: 10:52 / Amaiera: 11:23.)

Hirugarren etnografiazko elkarrizketaren transkribapena

Nire Ataundarkide Mariarrosario Agirre Egaña berriemailea. Ataungo Sangregorioko Larruntza baserrian jaiotakoa 1942an. Ataungo Sangregorioko bere Arrate etxeko sukaldean biok eserita gaudela elkarrizketa egin dugu 2004.05.17.1. 17:07/ 17:34 bitartean. Gure elkarrizketa honako gure izen deituren laburdurekin adierazi dut eta gainera grabagailuaren zenbakiekin:

ABjm: Apalategi Begiristain joxemartin.

AEmr: Agirre Egaña Mariarrosario

Grabaketa: Lehen kaset A alderdia 287 / 448 zenbakien bitartean.

Lehen kaset B alderdia 001etik 172raino.

ABjm 287 / 290: Bueno, Ataungo Sangregorioko Arrate etxean Mariarrosario Agirre Egañarekin nago bere sukaldean eta gaur bi mila lauko maiatzaren hamazazpia, astelehena, eta une honetan arratsaldeko bostak eta zazpi minutu. Lehenengo galdera nahi dizut egin zure haurtzarora itzuli eta zure haurtzaroan eta zu hemengoa zea, Sangregoriokoa.

AEmr 298 / 298: Bai!

ABJM 298 / 301: Eta Larruntzako baserrikoa etaaa orduan baa lehenik ke zure aitaren eta amaren nee izenak.

AEmr 301 / 302: Ba nere aiteren izena, ai! oi!, Luis, eta ama Teresa.

ABjm 302 / 306: Ongi! Bigarren, zure haurtzaro denboran ee nahiz etxetik hasi eta hemen inguruko etxetan eta ea eee, morroei eta neskameei buruz zer ezagutu zenuen?

AEmr 307 / 311: Pues niik ezautu nittun morroioak ta neskameek ke bai! Eta neoni re eon nintzen neskame ni Donostin hamasei urtekin. Ze esango izut nik Joxemartin?

ABjm 311 / 314: Eta esate baterako morroioak hola beste baserri batzutan eta neskameak beste baserri batzutan egoten nee zirenak ezagutu zenituen?

AEmr 314 / 314: Baai! Bai ezautu nittuun!

ABjm 314 / 316: Eta badakizu ba zenbat denboran egoten ziren eta zer irabazten zuten eta holako gauzarik?

AEmr 316 / 320: Baa irabazi ezerrez nik aittu dianez. Nik badakit bat hogeita bost senide zien bi amaanak zortzi urtekin hementxe zeon Lasanen <Ataungo Sangregorioko kaleko etxe bat da hau> neskame. Zazpi urtekin!

ABjm 320 / 320: Eta nungoa zan?

AEmr 320 / 324: Aloskakoa <Ataungo Sangregorioko baserri bat da etxe hau>, Faustina, gaur oaindik bizi da alargun Arbel-dizaharren, <Ataungo Hergoneko baserri bat da etxe hau> Joxe Arratibel Iturbekoa <Ataungo Hergoneko baserri bat da etxe hau>, bere senarra, bi seme ditu. Aitte bizi a. Zazpi urtekin!

ABjm 324 / 324: Eta orduan nee,

AEmr 324 / 326: Eta, eta ez zoon bat, beak esaten do batere ez zoola irazten!

ABjm 326 / 326: Orduan nee lanaren trukean?

AEmr 326 / 327: Lana, janaren trukean lana eitten zoon.

ABjm 327 / 327: Hori da!

AEmr 328 / 331: Ee! Zazpi urtekin! Eta plazaberrin umea eaman jarri manta bat harren gainen porke beak ezin zoon lepoon eballi. Ze indar eukiko zoon ba?, gaixook!

ABjm 331 / 331: Ume zaintzen!

AEmr 331 / 331: Umezaintzen, Joxemartin!

ABjm 332 / 333: Taa hemengo Lasaneko familie, zein famili zan?

AEmr 333 / 333: Lasa familie!

ABjm 333 / 334: Autobusekin ibiltzen zana.

AEmr 334 / 335: Baai! Jose eta Prantxika!

ABjm 335 / 336: Eta umea gogoratzen dezu? Zein umee...

AEmr 336 / 336: zaintzen zoon?

ABjm 336 / 336: Bai!

AEmr 336 / 336: Bai, Niebes!

ABjm 336 / 336: Niebes!

AEmr 336 / 337: Eta gero Inixio!

ABjm 337 / 337: Baita!

AEmr 337 / 337: Beak esateitunak horiik!

ABjm 337 / 338: Hori da!

AEmr 338 / 338: Baai!

ABjm 338 / 341: Hoori da! Hori da! Etaa gerooo hola base-
rritan neee, gizonezkoak eta morroi?

AEmr 341 / 342: Baai ezautu nittun nik ke honea etorrita,
Zamoraatik eta etorritako ke morroiak hemen!

ABjm 342 / 343: Eta hemen bertako jendea?

AE mr 343 / 343: Bertako jendea baita re! Hamar urtekin!

ABjm 343 / 344: Esatebaterako.

AEmr 344 / 349: Txepeino Auzmendi Lazkaumendin bere
izebakin! Eta abisau emen zioten, eztait hamaikagarrena jaio zala
etxen eta, bautizoa ekarri emen zoen. Eta esan eta etorrita amai
esan ementzion: “Amaa gu baginen ba lehene nahikoa”. “Bai
nikee bazekiat umea baino”, kontestau emen zion.

ABjm 350 / 351: Baita! Orduan beree izebaren etxean.

AEmr 351 / 352: Bere izeban etxen, bai! Lazkaumendin.

ABjm 352 / 352: Eta harrek kere lanaren trukeagatik!

AEmr 352 / 354: Harrena eztakit baino hala, seguroikasko
hola izango zan!.

ABjm 354 / 355: Hori da! Eta beste gauza bat, zu ee zein
urtetan jaitotakoa zea Mariarrosario?.

AEmr 355 / 355: Nii berrogei ta biin.

ABjm 355 / 356: Hori da !

AEmr 356 / 356: Ee !

ABjm 356 / 358: Eta zuk hook oain aipatu dituzun hauek
kee, zenbat urte zenituen?

AEmr 358 / 368: Baa Seseginek <ez dakit hau nor den> nik
hainbexe! Berrogei ta biin jaiotakoa da. Faustina eztakit zenbat,
hirurogei ta hamaika eukiko ittu oain?. Hamaika eo hamalau.
Hamalau hamalau! Gaizki esan det! Hamalau dauzke. Eta horre-
na esango izut haundigoa. Hoi jun zan Lazkaoa Senperea hemen
bi urte ein eta hamaika urtekin. Eta astokin ganau janak eittea
eta hola. Janaren trukean baitare! Hamaika urteko neskatoa!
Astoa re zahar zaharra. Hue re goseik akatzen eongo zan eta ezin

moittu! Ba al dakizu ze eitte omen zion? Poxpolok piztu eta belarria bota aguro juteatik.

ABjm 368 / 368: Astoari!

AEmr 368 / 368: Astoari!

ABjm 369 / 370: Eta astoa han nee, Lazkaun esan dezu ezta?

AEmr 370 / 371: Baai! Senpel, Senpel Berri eo, hola baserri izenekoa.

ABjm 371 / 371: Han nee baserrikoa izango zan astoa?

AEmr 371 / 372: Baserrikoa astoa.

ABjm 372 / 373: Eta garai hartan nee astook kee garrantzi haundie al zoon?

AEmr 373 / 373: Baaai!

ABjm 373 / 374: Eta zergatik zoon horre <ez dut jarraitzen>?

AEmr 374 / 377: Porke hue zan lan een kargak eta ebali behar zittun gauzea, Joxemartin! Hue eta zaldie! Eta zaldie zeukena etzan eozin! Astoa, bueno!

ABjm 378 / 378: Hoi da! Zaldie eukitzeko baa

AEmr 378 / 378: Baa!.

ABjm 378 / 379: zailagoa.

AEmr 379 / 380: Bai ta idiik zeuzkena beiz oandi gehigoo! Baino...

ABjm 380 / 383: Orduun nee modu baten ne dago esatea garai hartan baa animala bat etxeen eukitzekotan, baserrin eukitzekotan astoa zala.

AEmr 383 / 385: Baai! Ee jende maila bajuk, ordun nee mailatan zeon! Eee!

ABjm 385 / 386: Bai! maila bajuko jendea.

AEmr 386 / 387: Maila bajuko jendek astoa, hurrungok zaldie eta altuxagok ia idiik.

ABjm 387 / 387: Baita!

AEmr 387 / 388: Eta gero ee idiitatik tratorea pasaa zan, baino klaro hori,

ABjm 388 / 389: Baino hori beranduago ia!

AEmr 389 / 390: Hoi ia oain dala hogeia ta hamar urte guk euki genduun tratorea

ABjm 391 / 391: Bai!
 AEmr 391 / 391: Taa eta aurrenekotakoak ginen!
 ABjm 391 / 392: Bai! zuen nee baserrian.
 AEmr 392 / 393: Baai! Nere senarra,
 ABjm 393/ 393: Larruntzan!
 AEmr 393 / 393: Eez!
 ABjm 393 / 393: Ez!
 AEmr 394 / 394: Sariarten.
 ABjm 394 / 394: Aa, Sariarten!.
 AEmr 394 / 394: Nere senarraan etxen.
 ABjm 394 / 394: Hergonen.
 AEmr 394 / 397: Hergonen.
 ABjm 395 / 395: Bai!
 AEmr 395 / 395: Eta ni tratorekin ibiltzen nintzen baino
 ABjm 395 / 396: Orain hogeitamar urte esaten dezu.
 AEmr 396 / 396: Baai!
 ABjm 396 / 396: Baita!
 AEmr 396 / 397: Eta nik tratorea manejatzen noon astoa
 baino gustoago!
 ABjm 397/ 397: Baai!
 AEmr 397/ 398: Zaldie baino re bai nahigo!
 ABjm 398 / 398: Baita!
 AEmr 398 / 398: Soroa junda ta atxurren aitzea baino nahigo!
 ABjm 398 / 399: Baita!
 AEmr 399 / 399: Hartu tratorea ta <hiru bat hitz ez dizkiot
 ulertzen>...
 ABjm 399/ 399: Baita!
 AEmr 399 / 400: Hue zan ia, ¡palabras mayores!, erdal-
 dunek,
 ABjm 400 / 400: ¡Baita!
 AEmr 400 / 400: esaten doen bezela.
 ABjm 400 / 400: Baita!
 AEmr 401 / 401: <bi edo hiru hitz ez dizkiot ulertzen>
 ABjm 401 / 401: Etaa...
 AEmr 401 / 402: lehendabizi atatakook Paskualia zan.

ABjm 402 / 408: Eta holaa inoiz ee entzun nee izan al zenuen baserri batean nee morroi zebilenak kee gero etxea itzultzerakoan sari bezela asto bat tee etxera ekarri edo holako gauzarik?

AEmr 408/ 409: Ez! Nik koi ez eztet entzun, Joxemartin!

ABjm 409 / 409: Hori ez dezu entzun?

AEmr 409 / 409: Nik ez tut hoi entzun!

ABjm 409 / 410: Eta ez dezu ezagutu?

AEmr 410 / 410: Eztet ezagutu!

ABjm 410 / 412: Hori da! Etaa mahiak keta hoiiek nola ziren orduun?

AEmr 412 / 418: Baa nik gu etxen mahaie ezautu noon oain daukeun bezelaxe ¡normala! egurrezkoa ta gero jarri zioten baita re, ez tait zer? Lehendabizi atea zienak ze esango izut nik? Baino behintzet mahaie eta uletxo at gaineen, eta punto!. Eta silaak ba etxeen eindakook.

ABjm 418 / 419: <hitz bat edo bi ez ditut ulertzen>.

AEmr 419 / 419: zumitzeekin!

ABjm 419 / 419: Eta mahaiek?

AEmr 419 / 421: Eta mahaie ezaututa nau ni etxe askotan ¡baa zumitzekin eindako mahaie!. Nee etxen ezteet ezautu.

ABjm 421 / 421: Baai!

AEmr 421 / 422: Ez tau haundikerikatik esaten deala eee!

ABjm 422 / 422: Baai!

AEmr 423 / 423: Kontu!

ABjm 423 / 423: Ez, ez!

AEmr 423 / 423: Baino ez tet ezautzen neonek. Nik kezautu noon mahaie,

ABjm 423 / 424: Egurrezkoa!

AEmr 424 / 425: egurrezko mahaie! Lejiakin txuri txuri ein,

ABjm 425 / 425: Baai!

AEmr 425 / 425: eta jartzen gendun.

ABjm 425 / 427: Orduan horrek kere adierazten du garai hartan mahai bat eukitzea zaile zala, egurrezkoa!

AEmr 427 / 430: Goorra, Joxemartin, goorra! Gorra! Eta nik ezautu noon gu etxen ekonomikea baita re sue eiteko. Hoi ekonomikea esaten gin doon.

ABjm 430 / 430: Baai!
 AEmr 430 / 432: Beheko sue! Goikoa! Goikoa ezautu noon.
 Eta ezautu nituun behekoa bakarrik zoenak ke!
 ABjm 432 / 432: Baita!
 AEmr 433 / 433: Ogie eiteko labea re ba zeon gu etxen.
 ABjm 433 / 433: Hori da!
 AEmr 433 / 434: Ee! <bi hitz ez dizkiot ulertzen> bai! Baino
 hau ez tet harrokerikatik esaten, eee?
 ABjm 434 / 434: Ez ez, gauzak dien bezela!
 AEmr 434 / 435: Gauzak dien bezelaxe <bi hitz edo ez
 dizkiot ulertzen>!
 ABjm 435 / 435: Gauzak dien bezela! Hemen ezta kontua...
 AEmr 435 / 436: Eta gero beheran Errotan,
 ABjm 436 / 436: Baai!
 AEmr 436 / 437: hamabi senide zien
 ABjm 437 / 437: Baai!
 AEmr 437 / 442: gue aldamenekook ta han ezautu nituun
 hori danak: eee mahaiek, etxen eindako silaak, ogie eiteko labea,
 errotea, taia. Oaindi ee maila gehixagoon zeren, Joxemartin!
 ABjm 442 / 443: Bueno hue errotea zaan da!
 AEmr 443 / 444: Han pixka at gehixau manejatzen zan.
 ABjm 444 / 444: Hori da!
 AEmr 444 / 448: Baino asko eez ee! Porke etortzen zien
 izaba bat ee Donostitik eta hue hue etortzeko eoten ginen gustora.
 Galleta Maria eta erdibana eman ematen ziun eta hue...

1 Kaseta: B Alderdia, 001etik 172arte.

ABjm 001 / 002: Hau azkenengoa. Bai hori nola!
 AEmr 002 / 002: Galleta hoi,
 ABjm 002 / 002: Bai!
 AEmr 002 / 003: baa Luis izenekoa zan. Donostiin bizitzen
 zan.
 ABjm 003 / 003: Nungoa?
 AEmr 003 / 003: Luis izenekoa, Errotakoa.

ABjm 003 / 003: Erro, Errotakoa!
AEmr 003 / 004: Hemen Ataungo Sangregorioko Errotakoa.
ABjm 003 / 004: Luis izenekoa.
AEmr 004 / 004: Luixa!
ABjm 004 / 004: Aa, Luixa izenekoa!
AEmr 004 / 004: Luixa izenekoa!
ABjm 004 / 004: Baita!
AEmr 004 / 006: Da orduun ba harrek gailetaak. Eta klaro bertan hamabi ume zeren. Gu beste zazpi juten baginen, ba Luixa etorri ezkeo danok korrika!
ABjm 006 / 006: Bai!
AEmr 006 / 006: Eta gaileta erdibana, hue gauza haundie zan nee!
ABjm 006 / 006: Hori da!
AEmr 006 / 006: Hue gauza ikaragarrie zan, Joxemartin!
ABjm 006 / 009: Eta zuk kee hola gogoratzen dezuu aitona eta amonengandik kedo beren garaiko bizimodua? Ba orain zuk kontatu dezu zuk ezagututakoa.
AEmr 009 / 009: Baai! Eta...
ABjm 009 / 010: Eta orain zure amona eta aitonaan garaiera re alde haundia egongo zen?
AEmr 010 / 012: Ni. Hoixe eongo zala! Dudik kez! Nik kez noon ezautu aitonaik neonek! Nik kez noon ezautu! Ni jaiotako urteen hil emen zan gure aitona. Amona bai!
ABjm 012 / 013: Ee aitona norena? Ee amarena?
AEmr 013 / 013: Aittena!
ABjm 013 / 013: Aittena!
AEmr 013 / 013: Aitten aita!
ABjm 013 / 013: Aitten aita...
AEmr 013 / 014: aita! Eta aitten amare bai! Ee...
ABjm 014 / 014: <hitz bat ez dut ulertzen>.
AEmr 014 / 015: amona Martina, oso ona gainea!, ezautu noon.
ABjm 015 / 015: Bai!

AEmr 015 / 017: Etaa bere sentimentuk keo oain ulertzen ditut nik asko amonan sentimentuuk. Umezai eoten zan saastin eo etxe atzen, klaro hainbeste baginen da! Bea eee alde at, urduun perlesie esaten zan, gaur paralisis.

ABjm 017 / 017: Bai!

AEmr 017 / 022: jota ta ordun ba ni <sic> launtzen nion hautza jutun, saastia, eseita, silea eamaten nion, eta hantxe eoten gure txiki guztiekin! Da harrek esaten ziin, “ekarri ian ba hau umea”, ta “ekarri ian hure”, “ekarri hue” ta. Eee! Zaharrena ni nintzen. Orduun bakizu zaharrentxonai, besteek ke ahaleine ingo zoen nee! Horrekatik eztet esan nahi besteek gutxigo ein doela, ein zoela.

ABjm 022 / 022: Hori da! Baina adinak agindu!

AEmr 022 / 022: Hoi da!

ABjm 022 / 022: Eta zenbat senide zineten?

AEmr 023 / 023: Gu zazpi. Bost neska eta bi motil.

ABjm 023 / 024: Eta beste galdera bat, ee makila gorabeheran? Garai hartan makilea! Zuk nola ezautu zenuen?

AEmr 024 / 025: Makilea nik jostailu bezela txintxinen eitten gendun da.

ABjm 025 / 026: Jostailu bezela!

AEmr 026 / 028: Jostailu bezela! Punttea zorroztu eta haak zien jostailuuk txintxinen. Baino klaro motilek beti fuertegook zien eta ee nola eitten zan txuloa eta motilek pixe eitten zoen eta bigunago jartzen zan hue. Neskak kee, aldein ein behar! Eta han txintxinen aitze ginen. Udan ura eamateko re baakizu ze mentalidatea eta motilek pixe ein eta gu bigundu ta txintxineen. Baino beti neskaak galduta porke beti motilek beti indartsuago. Arteen oain esaten dana matxismoa pixka at gehixago eongo zan. Eztakit tee! Igoal gaizki ai banaz <sic>, ai banaiz.

ABjm 032 / 032: Bai! Bueno zuk kee, garaien ezaututako hori kontatu.

AEmr 032 / 032: Etaa...

ABjm 033 / 033: Eta oain ura ere aipatzen dezu eta, ¿ura zer kanpotik ekartzen zenuten?

AEmr 033 / 033: Ez ! Etxen bagenduken guk uree.

ABjm 033 / 034: Hoi beti etxean ezagutu duzu?

AEmr 034 / 035: Nik beti ure etxen ezautu et. Argi re bai.

ABjm 035 / 034: Hori da !

AEmr 034 / 037: Horiik biik ezautu ittut nik. Honbre oan bezela ez! Labadoraik kez! Lisugea eitteko kin haundi at, harri haundi at, gero erreka jutea, harropak han jo, sartu errekan eta, bengal, astindu eta segi aurea.

ABjm 037 / 040: Etaa geroo esate baterako hasi amonaren-gandik keta, gurasoengandik ke re bai, ama eta aitarengandik keta, holaaa urtean zehar eee denboateko kontuzaharrak eta holako gauzak?

AEmr 040 / 046: Baai! Baakizu ama gurea oso esalea zala kontuzaharrak. Amona ez, amona oso tristea nik ezautu noonen porke semea gerran hilda zeon! Da nik askotan nearrez ikusten noon amona. Eta esaten nion ama, ama, amona ez, “amandreaa zeekati eitten dezu near?”. Eta esaten ziin, “umea osoa Inixio bagendunan guk, hik ke zonan ezautu, gerran hilda mendi baztarren hor geittuta izingo inau. Hue nee semea nan <sic>”. Eta oain ulertzen det ze mine aukiko zon gaixook! Ee!

ABjm 046 / 047: Eta hori hogeita hamasei hamazazpiko gerra izango zan?

AEmr 047 / 047: Baai, juxtu!

ABjm 047 / 047: Eta nuun?

AEmr 047 / 050: Hil zan Intxortan. Intxortako mendie hoi dau Bergaran noo, Elgeeta alde hortan hor nunbait tee Intxortan hil emen zan, ikusi emen zoen tiroa emanda nola zeon Itzateko <Ataun Sangregorioko baserri bat> Antonio hemengoak.

ABjm 050 / 051: Eta zuk kee garai hartan entzundako hola kontuzaharrik kedo bakarren bat gogoan gelditu zaizu?

AEmr 052 / 052: Bueno bakarren batzu bai kontuzaharrak!

ABjm 052 / 052: Hola izenburuak gogoratzen dittuzu?

AEmr 052 / 080: Izenburuk? Pues, baai! Esango izut batena politte! Orduko mixerie nola zan buru. Etxea eztizut esango porke igoal ez zaie gustauko. Samartingo auzo atekoa zan. Eta elizakook

ein emen zittun aittonak. ;Aittonak kez, aittek! Eta bizi emen zien aitte, ama ta alaba at. Eta alaba hoi emen zan esateko ba hola txiki xamarra. Eta haundie zala esateati zapatak jantzita eote emen zan. Hau nere gizonan ama gaztea zanekoa. Eee gaur bizi izin bazan eukiko zittun, <hitz bat ez diot ulertzen> larogei ta hemezortzi urte. Ta hoi harrek esanda kontatutakoa da. Ein emen zittun elizakook eta dana auzoko jendea kandelakin hemen. Nik ke ezautu noon hemen! Zuk kee ezautuko zendun Joxemartin? Porke zu akolito juten zinen garaien ee ze argitxokin jendea dana kandelakin. Bueno jundie ta bai gero jute ementzien ba bisitea. Ta eztaki pa nik hiru pintako botilea, ardoa eta ze eamaten zoen. Zeukena emango zoen! Ahal zoena! Eta hola pasau emen zan hoi ta gero ba hoi arrantxoa eo esaten zoena orduun, oain beste eratea hitzeitten deu baino arrantxoa. Eta etorri emen zan neska haundie zapatakin da zeon hoi ta gure aman etxekook bii baserriko etxea zan eta ordun ba biik eta biik ardoa emateko eta biik ardoik ez omen zeukeen etxen. Hue izingo zan kostunbrea!. Eta bueno ba beste zerbatekin jun emen zien eta gero etorri da arrantxoa emateko garaie eta neska horrek esan emen zien “zuuri eztizuet ardoik emango zeok eztezue ekarri ta”. Bueno hala pasau emen zan! Eta gero handik pixkaatea, sukalde-tik emen zeuken koartok atea, eta neska hoi han emen zeon sutan suun ondón eta esan emen zoon, hola hots txiki at izan emen zan, jun emen zan neska hoi ba aitten koartoa, aitte zeon koartoa eta etorri emen zan bueltan da amak esan emen zion, “zer zinan aittek keta?”. “Zeinek ze ekarri don eo”. Eta orduun besteek esan emen zón ba. Etxea junda galdetu emen zion, “ze muz gelditu ta?”. “Ez tauke kuidaduik oaindio hola galdezka geldituata”!

ABjm 081 / 081: Baita, baita, baita!

AEmr 081 / 082: Eta besta at <hitz bat ez diot ulertzen>.

Hoi eztau esateik izena etxeena.

ABjm 082 / 082: Bai!

AEmr 082 / 090: Jundie ta klaro berdine. Han nee gauza berdine emen zeon. Junda apeiza bee akolitotxokin da, “etxoiteko ba pixka aten, aten!”. Pentsau emen zón ba “aldarea jartzen

neo hola aituko ittuk”. Etxoin etxoin da aspertua gure bikario jaunoi ta esan emen zion, “;baino oaintxe aspertu naiz ba ta”. “Laster etoikoa sorta hostoa ekartzen junda data”. Eta elizakook aten eta sorta hostoa ekartzea junda! Eta hoi eee horiik danak be gertatutakoak die Joxemartin! Danak egiik kee! Danak kegiik!

ABjm 090 / 090: Hori da!

AEmr 090 / 091: Horiik Ataunen geratutakook die!

ABjm 091 / 092: Etaa inoiz entzun al dezu orain esango dizudan nee hitza “Makilakixki”?

AEmr 092 / 095: Baai! Entzunda nago baino klaro ein beharko genduke pixka at pentsau. Eta nei ez zait bururutzen hoi ee!

ABjm 095 / 096: Bainan entzundakoa!

AEmr 096 / 096: Bai! Entzundakoa da hoi! Entzunda nau.

ABjm 096 / 096: Etaa, noiz?

AEmr 096/ 097: Ea etortzen zaian burua.

ABjm 097 / 097: Noiz edo?

AEmr 097 / 097: Ba hau guu txintxineko kontue da.

ABjm 097 / 098: Umetakoa orduun!

AEmr 098 / 099: Guu umek ginenekoa ta ;nik jolasteko denbora gutxi izan noon Joxemartin nee! Oso gutxi ee jolasteko!

ABjm 099 / 100: Hori da! Bueno ba!

AEmr 100 / 101: Ta gero eee baserrin einola bakizu lana,

ABjm 101 / 101: Bai!

AEmr 101 / 102: nee bizi guztiin! Bai nere etxeen. Ezkonduta re bai hogei urteen gizonan etxeen.

ABjm 102 / 102: Han nee, Hergonen!

AEmr 102 / 102: Hergonen!

ABjm 103 / 103: Zean ee,

AEmr 103 / 113: Sariarte baserria. Baino lau urtetan udaran eon nintzen Donostin udaran etxe aten hiru hilabete eitte nittun da umeek zaintzen etxeko lanak eitten da hola. Baino ze eitten ziuren? Hau minekin esaten da Joxemartin! Hilan hirurogei duro jornala. Ez zeuken ne diruik pagatzeko. Ean, ee, diruik pagatzeko ezeuken eta bi neskame behar zituen. Hau goorra da ee Joxemartin! Etor, geo heak juten zan <sic> Madrilea eta handik

pixkatea Madrilgo, Madrilen bizitzen zan seinora hoi, bost ume-kin alargune zan eta hola. Etaa jana ba aparte iziten zan nes-kantzako. Hue zan soldaduskea!

ABjm 113 / 113: Eta zuk zenbat urte?

AEmr 113 / 115: Nik hamasei urte eitteko. Eitteko hamasei urte eta hemeretzi eukiko nittun <sic>, eongo nintzen hamabost urtekin, hamasei, hamazpi eta hemezortzikin.

ABjm 116 / 116: Orduan han bertan lana egin, jan, lo eta gero, hileko soldata hori.

AEmr 117 / 130: Baai! Hirurogei duro soldatea! Baino hoi kobratzen gendun baa Eguarriik o pasauta gero. ¡Etxea etorri ta handik auskalo noiz! Etaa lo eiteko ikuskarriko leku at. Oilo lu-makin eindako koltxoia. Harrek betigora zulaiez eta esaten noon, “nere etxea ee pobrea izingoa baino pobrea hau dek!, “nere etxen zer jana bazeon”. Han hue re ez! Ekartzen ziuten dendan sobra-tzen zien fruta ondarrak. Eantzako aparte fruta ona ta gutzako dana erdi ustaldutakoa. Erdie ustala kendu ta hue jaten gendun. Nik kez non etxen gue gutxin ne haak bazeren osoik kee! Ni saas-tia junda saar bat hartu eitten noon osoik. Nik ordun Donostii errabie hartu nion gaurrate daukeana. Eta eztauket zeekati eukiik. Nere alaba hantxe bizia eee. Baino nik ordutik eta klaro eta mili-tarrak bezelako etxea. Kartak ke bandeja zilarrezkon buruz be-hera entreau behar zinuzten han. Eta ni hue eitten ohitu be neon Joxemartin! Laster ikasi noon nee!

ABjm 130 / 131: Zenbat denboran egon zinen?

AEmr 131/ 132: Lau urtetan udaran hiru hilabete!

ABjm 132 / 133: Eta nola haraa joan zinen? Noren bidez edo nola?

AEmr 133 / 147: Baa Errotako horiik jutun zien baita re. Horitakoa jutun zan. Errotako ahizpa horitakoa eta Aintxoni izenekoa. Oain hirurogei ta hamaika urte dauzke. Eta lehengoon afari bat euki gendun ta gauzorik berritzen aitu ginduan. Nahiko parre ein gendun, lear eta harrek esaten nii, harrek esaten ziin nei, “hi ni baino azkarragoa intzen gaztea hintzelako”. “Zer ba?”. “Porke letxe kondesada potea eun baten dana ustu onan”. Nik

keta. “¡Bai hurrungo eunen ne jarri balue! Etzinen gehigo leku hartan jarri”. Ta kafea? Eitten zoen eantzako, Joxemartin, kafe at, eee eitten zoen! Eantzako kendu kafea eta han sobratzen zen kafeennn, baakizu nola sobraatzean!, kafe pasatzekoon. Oaindio jakingo zuk lehengo nola dien. Nik oandi sukaldeen hala eite et bestelako horiik asko kargatzen nauea ta. Eta han sobratzen zanakin gui eitten ziuren behin ondarrakin ta hue hartu! Baino eun baten ez zoen ein nahi zoena neekin nee porke ni gaizto xamarra izango nintzen. Ein non alrrebes. Bigarrengoa, lehenda-bizikoa geok hartu eta bigarrengoa eai eman baino akordau ein zitzaian da orduan gaizki ni.

ABjm 147 / 149: Bai pentsatzen dut! Bueno ba ederki! Mariarrosario hementxe utziko dugu Makilakixkiren gorabeheran ezaizu ezer oraingoz etortzen,

AEmr 149 / 149: Ez!

ABjm 149/ 150: eta aurrerago etortzen bazaizu,

AEmr 150 / 150: Baai eta,

ABjm 150 / 150: gogoan hartu eta esango diazu.

AEmr 150 / 161: Esango izut. Eta nik gauza gehigo re badi-tut hola gogon dituanak. Ama bakizu gure eee kontuesalea zala. Beste gizon batena re hoi amai entzundakoa da. Hemen ibili zala gizon bat eta zien alaba, eta hoi hoi bazien alaba bat aite ta ama. Eta geo, ez, bai ta geo alaba horren gizona ta gure etxen. Eta janzten zioten maunezko pantaloiak. Haak izango zien orduun <sei bat hitz ez dizkiot ulertzen> pantaloiak eta abarka galtzerdiik. Jende dotorea zan! Eta gaur oandik nei gustau eiten zat tee! Gaur oaindik kee neetzako dotoreek die. Alkandora zurie manga motxa, pantaloi mahonezko eta artilagaltzak abarkakin. Baserriko gizona <sic> jantzie hue da! Kalea jun behar do ¡ pues kalekoa! Onak apartatzen nee badakiu ee!

ABjm 161 / 161: ¡Ongi!

AEmr 161 / 167: Ezkea, ez gea danok pentsatzen <hitz bat ez diot ulertzen> eta hori hoi ein zoen ba. Eta hil zan gizon hoi eta pantaloi berriik jantzi diotzea eta amai damutu zaio eta esan emen zion alabari, “atzeko puskaak kendu ein behar zoonau”.

“Eta zertako ama? Gero Josepetaa nola presentau behar do gure aitek atzeko alden pantaloian puskak keta?”. “Aaa izin din beharra gure aitek lehen ne mainoxo askoa oonan eta han nee baztarren baten kontra eo moldakoen”.

ABjm 168/ 168: Oso ondo! Bueno Mariarrosario hementxe utziko dugu!

AEmr 168 / 168: Baai, oso ondo Joxemartin!

ABjm 168 / 170: Eta orain nee arratsaldeko bostak keta hogeita hamalau minutu. Eskerrikasko eta,

AEmr 170 / 170: Joxemartin!

ABjm 170 / 171: hurrengo bat arte! Bai horrexegatik eskerrikasko!

AEmr 171 / 172: Baa horregatik kez. Ez horreatio Joxemartin da beize nahi zunen etorri nik dakiana esateko ez tauket batee...

ABjm 172 / 172: Oso gustora!

AEmr 172 / 172: batere...

Atal hau idatzia izan da 48007 BILBON – Mandobide 2, 2.A.an autoreak daukan liburutegiko bulegoan. Hasiera: 2004.06.04.5.09:46/ Atsedena: 10:41 / Berrasiera: 12:02 / Atsedena: 12:18 / Berrasiera: 13:48 / Atsedena: 15:05 / Berrasiera: 15:14 / Atsedena: 16:44 /. Hasiera: 2004.06.05.6.08:47 / Amaiera: 09:33. Idatzaldaketaren berrikusketa: 2004.05.10.4.11:46 / Atsedena: 12:53 / Berrasiera: 15:25! / 15:40.

Laugarren etnografiazko elkarrizketaren transkribapena

Ataundarkide amagurea Natalia Begiristain Urbiztondo. Ataungo Sangregorioko Itzate Zaharreko baserrian 1919an jaiotakoa. Ataungo Sangregorioko Ezkaluneko bigarren solairuko etxebizitzako egongela-telebistagelan biok eserita garella elkarrizketa egin dugu 2004.05.18.2.15:01/15:50 bitartean. Gure elkarrizketa honako gure izen deituren laburdurekin adierazi dut eta gainera grabagailuaren zenbakiekin:

ABjm: Apalategi Begiristain joxemartin.

BUn: Begiristain Urbiztondo natalia.

Grabaketa: Lehen kaseta B alderdia 147 / 446 zenbakien bitartean

1 Kaseta: B Alderdia 174tik 446raino

ABjm 174 / 182: Bueno!, hemen Ataungo Sangregorion Ezkalune etxean, bigarren solairuan amagurearen etxebizitzan eta egongela-telebistagelan. Gaur bi mila eta lau ko maiatzak hamazortzi, asteartea, eta hirurak keta bat minutu. Orduan ee lehenengo nahi dizut tee galdetu ama ba zu, ¿nun nee jaio zinen eta zein urtetan da jaio zinen hori esatea?

BUn 183 / 185: Bueno! Zein urtetan eztakit hoi nola esan? Oain dala larogei eta lau urte jaio nintzen, Ataungo Sangregorioko Itzate Zaharreko baserrian.

ABjm 186 / 186: Eta zure gurasook?

BUn 186 / 187: Nungook zien haak?

ABjm 187 / 187: Nungook zien eta nortzuuk zien?

BUn 187 / 189: Bai! Ba nere gurasook kee hor inguru hortakook zien aitte ta ama biik. Eee ama Iturriozkoa, aitte Soazalgoa.

ABjm 190 / 190: Eta izenak?

BUn 19 / 194: Izenak: aitte Joxeantonio Begiristain Aierbe, eta ama Josefa Inazia Urbiztondo Maiza. Bai!

ABjm 194 / 198: Bueno!, orain nee galdetu nahi dizudana da baa zuk haurtzaroan eta gazte denboran hemen ee ea zer nola ezagutu zenuen baa baserrietatik kee nahiz ze gizonaekoak eta nahiz emakumezkoak, neskame ta morroi joatea. Ea hori nola ezagutu zenuen.

BUn 199 / 203: Pues bai, neskame ta morroi, eta bai! Neskak, neskame eta gizonaekook kee gehienak orduun morroi bakar batzu. Gehiago mendia, mendiko lanak: ikatza eiten eta egurrekin eta mendiko lanak eittea.

ABjm 203 / 206: Etaa nahiz zee neskak eta nahiz ee gizonaekoak ke, beren nee lanagatik ke zer ordainketa jasotzen zuten? Dirue ala bestelakoo zerbait edo nola izaten zan?

BUn 207 / 213: Dirue eta gutxi! Oain esango dizut Saarteko <Ataungo Hergoneko baserri bat> Joxanek nola kontatu zion behin aitteri ta biri <sic> lehendabiziko aldin harrek basotik ekarri zoonen urtea pasatuta mila peseta bere amak ez hartu nahi diru hue harek ez zola irabazi. Esate emen zion, “zuk hau lapur-tu egin dezu nunbait. Zuri hoinbeste diruik ez dizu inork eman”. Joxanen ahutik (sic) politte zan! <barrezka ari da amagurea>.

ABjm 213 / 214: Eta Joxanek kee aita gureak baino zenbat urte gehiago izango zittun?

BUn 214 / 219: Baa ez takit gehiegi ee! Nik usten det te Joxan da aitte, bueno zaharragoa izango zan, igual lee, ze esango izut?, hamar bat urte eo oo gehixago oo hola! Hola nik kalku-latzen det izango zittula!

ABjm 200 / 224: Ongi! Etaa geroo baita holaa gizonetzkoie holaa beste baserri batean, esan dezu bereziki mendin!, eta hola lan horren nee ordaine bezela diruz kanpo, beste ezer ematen al zitzaien?

BUn 225 / 231: Diruz kanpo nekez oain. Eee ordun baita re kaleen bizi zien emakumaak ba hola ee diru gutxi zeukeen ne gizonak keta ahal zan lekutan ibiltzen zien da. Gutxi ta haak ibiltzen zien berriz zee baserritan peontzan da hola. Eta pues haak pai, haari jasotzen zitzaien diru pixka bat eta gero baserriko gauzak eta ematen zitzaien.

ABjm 231 / 232: Eta ze gauza izaten zien baserrikoak normaleen?

BUn 232 / 237: Baserrin ibiltzen zien gauzaak! Udako gau-zaak, babarrunak, patatak, frutaak, barazkiik eta gauza asko ba-serrin, gauza asko iziten zan da! Ta esnea re. Haak etzoen euki-tzen da esnea baserrin eon eitten zan da esnea re bai ta arrautzak ke baita. Gauza asko baserritik!

ABjm 238 / 239: Eta hola esate baterako gizonetzkoek kee basoa joateko ta ze animalii erabailtzen zituzten?

BUn 240 / 247: Animalii etxen ibiltzen zien. Animali be-harrik ez zeuken basoa joateko haak. Hemen bertan gertun zeiltzenak keta erretiran jutun zienak kee, bueno! jutun zien nee

ahal zan bezela. Batzuk juten zien nee nahiko errutira re. Horiik ke orduun ne iziten zien hola automuil hola bakar batzu gaur bezelako aukerea ez zan baino. Eta hoola ahal zan bezela hoola juten zien heen trasteek hartuta! Da juun da igoal hilabeteetan etxea etorri gabe basoon.

ABjm 248 / 250: Etaa baserrin hola ze animali izaten zien nee oso kontutan hartzen zienak?

BUn 250 / 255: Bueno hemengo baserritan gehiena zana zan ne behie, txerrie, oiloa, konejuuk, ardiik ta animaliiik kabai-leriik ke bai ta. Horiik hemengo animaliiik, gehiena horiik zien!

.ABjm 255 / 255: Eta astoik?

BUn 256 / 258: A bai! animalie hoi eztet esan. Bai astoa etxe guzitan! Zaldie bastante ta astoa ia danetan ! Bai hola zien <hitz bat edo ez diot ulertzen>.

ABjm 258 / 259: Eta zertako astoa erabiltzen zan?

BUn 259 / 265: Aa baserrin lanen ibiltzeko! Egurre ekartzeko oo igoal lee batzuk ke terrenook ke urruti zeuzken da lanea juteko trastek eamateko. Gero simaurrek ke hartuta eamateko re bai animalikin ondón ez zerenak keta. Animaliiik hortako ibiltzen zien ordun. Eta ganau janak ke ekartzeko re bai e!

ABjm 265 / 265: Zer ekartzeko?

BUn 265 / 267: Ganau janak. Belarrak keta horik han aston, ein bi sorta ta aldeetatik kargauta ta.

ABjm 267 / 267: Ordun ne astok ke indar haundie zoon!

BUn 267 / 275: Indar haundie zoon ta astoa igoal hobeena zan gainea baserritan lan eitteko ordun zeati zaldi ta horiik ke potenteek eta indartsuuk ta batzuk hola zea zien gaiztoo hola bihurriigook! Ba astook beti onak! Ta orduun emakumeek kee nola baserrin lana eitten zoon pila bat, baaki, gehiena astoa ibiltzen zan emakumeentzat eta hemen baserrin astoa gehiena hemen usatzen zan. Astoa etxe guztitan, bai!

ABjm 275 / 276: Eta gero etxen nee etxeetan da baserritan mahaieik keta hook ke nola zien ?

BUn 277 / 281: Bueno, mahaie nik ke etxen ezautu noon han ee Muinootan <Ataungo Hergoneko baserri bat> zumitzekin

einda, mahaiek eta silaak keta danak igoal, berdin! Sukaldeko mahaie ta silaak keta. Ze zestook hoi dauken bezela zumitzekin beste <hitz bat ez diot ulertzen> hoola, zumitzekin einda! Hoola zan!

ABjm 281 / 283: Ordun nee, garai hartan, egurrezko mahai bat eukitzea hori lujo bat!

BUn 283 / 289: Bai, bai, bai, bai! Horiik eee ne salatxon bakarren batek ke ahal zonak bai. Bazien hola ta gure etxen ne bai, bii aldeetatik hola erdin irikie ta hola tapaak gora jasotzen zien. Ba zien, mahitxo atzuk bazien! Baino haak ke juxtuun, beste gaineatin sukalden esan deana zumitzezkok <hitz bat ez diot ulertzen>, silaak ke bai, berdin zumitzezkook!

ABjm 289 / 289: Orduun nee zumitze zan gai nagusie!

BUn 290 / 294: Bai! Taa baserritan ne baa jende ia gehienak gizonak bazekiten heak eitten gainea ta heak eitten zituen. Ta baserriako zestook keta feria eamateko, ta daneako! Hoola zumitzekin baserriin lan asko eitten zoen orduun gizonak!

ABjm 295 / 296: Orduun esan leike garai hartan nee astoa gaur kotxea bezela zala!

BUn 296 / 304: Bai igoal, igoal! Kotxeen zerbitzua eitten zoon. Feria re bai! Feria re hori da. Honbre kabailerie zeukenak, baa astezkenetan, baa saltzeko gauzak eaman da, geo enkarguuk ekarri ta dana! Zeatik automubilik kee ez zoen izin behar ni txikie nintzen garaien. Esaten zoen Moordazuloko <Ataungo Sangregorioko baserria> Mikelak nola Moordazulotik buruun zesto at eta eskuun bestea Ordizia jun da etorri eitten zoola. Esaiazu nei!

ABjm 304 / 306: Baai! Eta gero makileek kee zee ze erabilpena zoon edo?

BUn 306 / 307: Makileek ze erabilpena izingo zoon! Hori...

ABjm 307 / 307: Zertako zan makilea?

BUn 307 / 316: Bai oso berezi zan, pues launtzen ziolako gorputzeri, asko ibili behar zoonantzako!. Makileek asko launtzen do. Gaurre bai! Eta orduun ne bai! Eta ordun nee makila asko ibiltzen zan, batez zee animalikin, ganadukin da bizitzen zanak beti makila bat ibiliko zoon. Behiekin da laneen da zea ta

danetan eta. Ta holaa ezertan ibili gabe re bai mendiako ta ordun makilea zan, ia dana! Makilea asko ibiltzen zan orduun! Bai makilen lana hori zan!

ABjm 317 / 322: Bueno ta orain nee salto bat emanda eee zureztat aitagarreba ta gureztat aitona eee Felipe Apalategi zuree gizona Inixioren aita. Eta bere bigarren apiludua gogoratzen al dezu?

BUn 322 / 323: Ez! Ez naiz gogoratzen da! Hoi da penea!

ABjm 323 / 324: Etaa...

BUn 324 / 324: Zeneandi jakingo nokeen hoi? <bi bat hitz ez dizkiot ulertzen>.

ABjm 324 / 326: Eta zenbat tee urte zittun berak zuk kee ezagut zenituenen <sic>, da zuk zenbat?

BUn 327 / 332: Baa nik ezautzeako, baa aittegiarrebak ke, larogei urte ez bazeuzken nee ez zittun urrutiin eukiko. Eee hirurogei ta hemezortzi eo hola bai! Ta ni, gaztea! Ni hogeita bat urtekin ezkondu nintzen da <barrezka hasten da amagurea>. Oso gaztea ni!

ABjm 332 / 332: Ordun alde haundia zenduten!

BUn 332 / 333: Baai! Aittek eta nik?

ABjm 333 / 334: Aitagarrebak eta zuk!

BUn 334 / 335: Baai, baai! Hombre Jesús! Bueno, bueno nahi loke! Ni ume bat eta ia hue zahartutakoa, hori bai!

ABjm 335 / 338: Etaa beree bizibidea edo lana ta, zer izan zen? Nola izan zen?

BUn 338 / 350: Baserrie! Eta baserrie, oso ona Munduaten! Baserrie etxeen ondon, baserri ona eeta saastiik izugarriik! Gazti-narik ke bai han goien eta belardiik eta dana terreno onak! Eta geo horretzat aparte ¡bea oso famosoa izin zan! Harrek mendiin lana eitten zoon ta bea zan nausie. Orduun nee bere talde batekin oo ikatza eitten oe egurre preparatzen noo. Baserritik aparte mendin lan asko! Eta gehiena Olazagoitin. Hor zoon bee lantokie.

ABjm 351 / 352: Etaa bere emaztea ee nor zen?

BUn 353 / 354: Bere emaztea Mikaela. Ama amonan apeli-due nola da? Arin, eo.

ABjm 354 / 354: Arin uste et tee!

BUn 354 / 355: Bai bai Arin izango zen ! Bai Mikaela Arin.

ABjm 356 / 356: Etaa nun jaiotakoak zien biik? Aitagarreba ta amaiarreba.

BUn 356 / 367: Bai ! Baa aitteiarreba Munduaten. Aittona sekulako gizona izan behar zoon, haundie. Beti hoola esaten zoen, Munduateko Martin Haundie! Gizon haundie ta elegantea. Ta amaiarreba Zelebarreko <Ataungo Sangregorioko baserri bat>

Rosa ta famili hontakoa ez baino Zelebarretik uste et etorri zala esaten zoela, bai!. Hola! Baino aittona izugarrie, Jesús!, bueno sekulako gizasemea zala.

ABjm 368 / 369: Etaa hola hizketako eta zee nolakoa zan?

BUn 369 / 369: Zein?

ABjm 369 / 370: Aitagarreba Felipe!

BUn 370 / 375: Aaa! Hizketan oso potentea, oso inportantea! Berezie! Garai haatako harrek ke asko zekin. Eta erderaz zee bai ee! Nola asko ibili zan Nafarraldean da hue erderaz zee mol-datu eitten zan ondo ee.

ABjm 375 / 375: Bai!

BUn 375 / 378: Eta oso gizon ne argie ta ezoineri komestazioa jarriko ziona ta. Garai haatako oso gizon potentea!

ABjm 378 / 380: Hoi da!. Etaa ama bere emaztea Mikela?

BUn 380 / 383: Ama, ama, emakume on on huts bat. Langilea, garbie, txintxoa ta, berezie ama re ! Oso berezie ! Pareja berezie biik!

ABjm 383 / 385: Etaa aitagarreba Felipek ba al zoon ohitu-raik hola kontuzaharrak eta holako gauzaik eta esateko?

BUn 385 / 388: Asko izan behar zoon! Asko ta asko, uuu! Oso txistosoaa taa erokie ta dotorea gainea! Uuu!

ABjm 388 / 390: Zuk kee bakarren bat hola gogoratze al dezu berari entzundakorik?

BUn 390 / 400: Ez! Zeati nik ez noon denbora gehiegi izen beakin zeatzeko, zeatik guk hemen ezkondu eta nola lehendabizi Iruñan ein ginuzten, ia hiru urte, ta Josantonio <gure gurasoen bigarren haurra eta bigarren mutila> jαιο ta hil zan aitte. Beela hil

zan! Eta hola kontzaharrak zeaten baino badakit txistosoia zala ta famosoa zala barrion beti Munduateko Felipe! oso. Jendee-kikoa eta oso berezie izin behar zoon.

ABjm 400 / 401: Etaa Joxantonio jaio esan dezu ta ¿nun jaio zan Joxantonio?

BUn 401 / 402: Joxantonio hemen Ezkalunen.

ABjm 402 / 402: Eta Joakin? <gure gurasoen lehen haurra eta lehen mutila>.

BUn 402 / 403: Joakin ne bai ! Eta...

ABjm 403 / 403: Ta hala ere ibili zineten Iruñean.

BUn 403 / 405: Ez, ez, ez! Hemen jaio zeate danok! <sei haur: hiru gizonezko eta hiru emakumezko>. Aa honea etorrita gero.

ABjm 405 / 405: Bainan ne

BUn 406 / 413: Baino, eon! Bai baino nik Joakin izateko neola zean ne Elgorriagan, Hotelen, Elgorriagan Hotelen. Bai! Hango tenporadea ein eta gero orduun honea bukatuta etorri ginen udazkenen eta hue jaio zan baa hilteltzan beatziin hemen.

ABjm 413 / 417: Bueno, oain beste galdera. Atzo eta gaur baita re Mariarrosariori aittu diozu Makilakixki eta hori nahi nizun galdetu, ea zuk kee horii gogoratzen dezun inoiz zee entzun zenuenik?

BUn 417 / 426: Bai entzun bai hemen etxen Munduatekori eo entzun einda nau! Ni hoi entzunda nau. Oain ze esan nahi zoon da, zer da ta, gauza horiik eztakit. Baino entzun bai!. Ta Munduatekori baa ez oango gazte hori, bean umeri. Bean umeri, eari, aitte ta tia Martina ta, hombre saile zien haak ke ta bee umeri!

ABjm 427 / 432: Eta oain aitte gurea ta tia Martina aipatu dituzu, anaiarrebak, keta, zenbat tee ume izan zituzten aittonak, aittona gurek zure aitagarreba Felipek eta amagiarreba Mikaelak?

BUn 433 / 441: Baa, eztaiz, eztaiz! Zenbat zien ba? Tia Martina, tia Joanita ta tia Isabel hiru ahizpa behintzet! Ta gero motilek izango zien aitte eta tio Asensio, tio Joxe, Joxemartin eta Patxi. Hoik zenbat tie?

ABjm 441 / 442: Zortzi!, ezta? Bost mutil eta hiru neska.

BUn 442 / 443: Hoori da! Bai, bai!

ABjm 443 / 443: Hori da!

BUn 443 / 444: Bai! Bai!

2 Kaseta: A alderdia, 001etik 043raino

ABjm 001/ 006: Baaa, hamabost tee ordu eta berrogei eta zazpi minutu, eta amagurearekin jarraitzen dut. Eta galdera da baa zure larogei eta lau urte hauetan zuk ke bizimoduan ezagutu dezun nee aldakakuntzaren zenbait ezaugarri. Hoiek nahi dizkizut entzun!

BUn 006 / 010: Bueno! Konpleto beste mundu batea bizitzea jun bagine bezela! Gauza guztik! Bizitzako neketsuuk eta jendeekiko tratook eta, dana diferentea ikusten deu, dana! Beste mundu bat! Aldaketa izugarrie gauza horren gaineen!

ABjm 010 / 013: Bai eta esate baterako, lehengo hemengo ogibideek, lanbideek eta, orain nun gelditu die, baserrikook eta abar?

BUn 013 / 018: Bueno, batez zee baserrikoa dana gastatu da hemen. Beste gaineatin baserrikoa ta lehenau bezela hola mendiko ta horik kee ia oain bukatu zien, ikatza eittea ta hori, bakarrik hemen pinurin da lana eitten doen bakar batzu baino ia hori jende gutxi da eztaik. Alde hortati baa jendea pues fabrikan jendea gehiena. Eskerrak Beasingo fabrikeri! Horrek ematen do Goiherriko bizie inportantena jende langilenzako!

ABjm 018 / 021: Eta hor rree baserriko lan bide hoiek ke galtzetik zer iruitzen zaizu etor daitekeela datozen ne urteetako?

BUn 021 / 025: Bueno eto etorrita dago! Hori ezta ona! Hori tristea da! Hori hemen oso politte zan. Ataun herri txikie baino oso lana ondo eitten zan da jendea arduratsue ta kosetxa asko hartzen zan ta bizi asko ematen zon. Askok! Eta hori oain faltan asko botatzen deu guk lehenau ezautu deunok!

ABjm 025 / 026: Hori da! Eta aurrera begira ee zuk kee zeer proposatuko zenuke?

BUn 026 / 033: Bueno! Proposau baa, gauzorik kee atzea beste era batea jarri behar lituzkeela, zeatik ke bestela ai die

herriik ke gelditzen, gero jende inor eztago arduratzeko eta terreno guztiik eta dana basamortu bihurtzen ai die ta, tristura haundie ematen doe! Guk ezautu ginuztena ez! zeati ia jardin bat bezela zan Ataun guztin hemengo baserriik, hemengo mendiik eta hemengo gauzak ¡hain ondo zainduta! Eta gaur oain gelditu danak die danak abandonatuta! Eta tristura haundie da!

ABjm 033 / 035: Bueno, amaitzeko bestee zerbait tee nahi badezu esan eta hementxe utziko dugu ama gaurko!

BUn 035 / 040: Bueno, pues, aber rree indarriik eukitzen doen gauzak atzea berriz beste ordena baten jartzeko ta lehengo eraa baserriik eta gauzak, bestela danak erabat galduko die betiako eta tristura haundie da lehengoa ezautu deunantzako hori oso tristea bilatzen deu ta pena haundi bat hartzen deu!

ABjm 040 / 042: Bueno ba eskerrikasko ama! Eta orain une honetan hamabost tee ordu eta berrogei eta hamar minutu. Eskarrikasko!

BUn 042 / 043: Bai! Agur!

Atal hau idatzia izan da 48007 BILBON – Mandobide 2, 2.A.an autoreak daukan liburutegiko bulegoan. Hasiera: 2004.07.06.2.10:07/10:47.

Bostgarrena: Irratiko etnografiazko grabaketa baten transkribapena

Radio Euskadiko Propaganda Baten Grabaketa:
2004.07.06.2.09:29 / 10:00.

ABjm: Apalategi Begiristain joxemartin.

Reea: Radio Euskadi emakumezko baten ahotsa.

Grabaketa: Bigarren kasete A alderdia 043 / 072 zenbakien bitartean.

2. Kasete: A Alderdia, 043tik 072raino.

ABjm 043 / 050: Gaur hemen Bilbon bi mila ta lauko urtean uztailearen seian eta goizeko bederatziaik eta hogeita bederlatzi minututan. Bilbon Mandobide kaleko bigarren ateko bigarren A

etxebizitzako sukaldean, grabaketa bat egin nahi dut irratian, Euskadi Irratiko agerpen baten grabaketa.

RE 051 / 070: (Hemengo propaganda ez dut transkribatzen.).

REea 071 / 072:”Radio Euskadi de Verano. ¡La radio que escuchas! ¡La radio que ves!” (Une honetan goizeko hamarrak dira.).

Atal hau idatzia da: Derioko Apaizgaitegiko Ohiko Euskal Liburutegian: 2004.06.18.5.09:25! / Atsedaldia: 10:40 / Berrasiera: 11:08 / Amaiera: 11:40.

Eta Antropologia Liburutegian: 48007 BILBON – Mandobide 2, 2.A.

Hasiera: 2004.07.05.1.09:05! / Atsedena: 11:21 / Berrasiera: 16:00! / Amaiera: 18:26.

2.6. *Analisia*

Izena duen guztia da

Julio Caro Baroja antropohistoriagileak, 1983an, Joxemiel Barandiaranen 1920ko *Mitología vasca*, Donostiako Txertoa argitaletxean, bostgarren aldiz argitaratu zenenan, “Prologo” bat, 5/12 orrialde bitartean, egin zion. Bertatik hartuko dut nire maixu antropologo eta lagun handia izan zen Julio Caro Barojak, aipatu “Prologo” horretan mitoaren mugaketaz hain egoki idatzi eta defendatu zuena, bere maixu, lankide et lagun mina Joxemiel Barandiaranen ikerlana aztertuz:

“Por otra parte, Barandiarán nos ha informado como nadie de las ideas cardinales que dominan las mentes que aceptan como cosa real mitos semejantes. La principal de ellas, a mi juicio, es la de que todas las cosas que tiene (sic) nombre existen. Es decir, que los seres míticos no son símbolos o alegorías, como creían los mitógrafos y filósofos antiguos, más o menos simbolistas, ni tampoco productos de confusiones verbales que dan lugar a conceptos equívocos, que luego se perfilan como

creían otros. No. Son productos del mundo conocido y físicamente cognoscible. No sólo el sol, la luna, o las estrellas, como seres animados, sino también otros que no tienen aquella corporeidad, pero que se describen con formas particulares: “Tartalo”, el “Basojaun”, las “Lamiak”, la “Dama”: sea la de Amboto, sea la de otra montaña o lugar conocido, y tantos otros. Barandiarán ha establecido ciertas asociaciones o articulaciones entre el mundo folklórico, el mundo del campesino vasco de su época y el mundo arqueológico, merced a su capacidad como prehistoriador, cosa difícil, cosa poco frecuente. Ha vivido, pues, en contacto con un mundo que ni sus maestros ni sus discípulos han tocado tan de cerca. En esto hay que buscar, a mi juicio, la clave de su personalidad en el medio intelectual vasco. Por eso yo, en otra ocasión, ya pensé y sostuve que había que caracterizarlo como el máximo representante de la conciencia colectiva del pueblo y del país. En el sistema profundo y dificultoso de Hegel la Filosofía de la Historia señala cómo el Espíritu evoluciona a lo largo del Tiempo para conocerse y buscarse a sí mismo. Podríamos decir que en Barandiarán hay una síntesis, una expresión última del espíritu vasco en esta función intelectual, cognoscitiva, en un momento gravísimo de crisis y de decadencia de ciertos caracteres seculares y aun milenarios” (Caro Baroja, Julio, 1983: 11/12 orr.).

Besteak beste, lehenago ere aipatu dudan metodologiazko printzipio handinetako dena azpimarratuko nuke: “La principal de ellas, a mi juicio, es la de que todas las cosas que tiene (sic) nombre existen”. Hauxe bera da neronek ere, besteak beste Julio antropologoaren irakaskuntzari esker, aspalditik defendatzen natorrena, eta geroz eta gehiago defendatzeko frogak aurkitzen ari naiz etengabe.

Antropologoaren egitekoa baita, antropografía asko eta sakonaren bidez frogatzea. Hemen ni hori egiteko ari naiz aitona gurea Feliperen *Makilakixki* kontuzaharra ikertzen, eta bost etnografía grabatuz ehuntatik ehun hitzaldatu ditut. Izan ere antropografiarik gabe ez dago antropologiazko ezagutarik, inoiz!.

Ahozkoa esan bezalaxe beti hitzaldatu behar da

Neronek baita ere Barcelonako “Antrophos Editorial del Hombre” argitaletxean, 1987an, argitaratu nuen liburuan, *Introducción a la historia oral, kontuzaharrak (cuentos viejos)*, Ataungo komunitatekoak, defendatu nuen kontuzahar guztiak beren ahozkolari eta zuzeneko entzuleen bizitzaren egiazko historiak zirela. Gauza bera baieztatu zuen Julio Caro Barojak nire liburu-rako egin zidan “Prologo”an (9/11 orr.), bertako pasarte hau horren lekuko hemen ondoan hitzaldatzen dudalarik: “Es claro que si el testimonio oral ha de estimarse como testimonio antropológico e histórico, ha de ser recogido en toda su integridad y no dejándose guiar por criterios de purismo o de perfección al transcribirlo. Es así como nos da el reflejo fiel de una época y de un pensamiento: un pensamiento que en su forma lingüística aunque sea tosca es más expresivo que ‘corregido’. Recuerdo ahora, por ejemplo, aquel testimonio que recogió Barandiarán de un viejo paisano suyo, respecto a cómo un gentil, al nacer Cristo, había dicho en un vasco expresivo pero desde luego poco ajustado a criterios puristas: ‘Akauta jende humanua eldu da jende perrua’. Más ‘erderismos’ en siete palabras no se pueden dar; más inverosimilitud lingüística tampoco. Pero el espíritu del testimonio es lo que vale y no cabe duda de que el viejo paisano de don José Miguel, recogía una tradición escalofriantemente verosímil. Porque el mismo juicio podía haber sido el de un pagano real en el siglo V ante el triunfo del cristianismo, o también el de don Federico Nietzsche en su época. ¿De dónde le venía al campesino la palabra ‘perrua’ cuando es tan popular ‘zakur’ o ‘txakur’? De un uso medieval evidentemente, del que salen expresiones castellanas como la de ‘perro cristiano’ o ‘perro moro’. También la de ‘perro gente’ o ‘gente perra’. Una cosa es, pues, el ‘purismo para lingüistas’ y otra el ‘purismo para los antropólogos’ y en esta época en que hay clases de Matemáticas para biólogos y otras actividades didácticas similares, podríamos pensar en la necesidad de crear una ‘Lingüística para antropólogos’ o una ‘Antropología

para lingüistas”. A falta de esto creo que la obra de J.M. Apalategi es una valiosa contribución para llevar adelante aproximaciones concretas y seguras y para no dejar los ‘textos’ fuera de sus ‘contextos’. La tradición oral es algo mucho más complicado y variado en su dinámica de lo que se ha dicho. Porque, en realidad, no hay una sola. Hay varias. Sus relaciones con la tradición escrita son complejas. Bastará con recordar algún ejemplo al que se hace alusión en esta obra. Todavía no se ha aclarado del todo el efecto que en la tradición oral vasca (como en la de otros pueblos del mundo cristiano occidental europeo) ha tenido, por ejemplo, el sermonario. Pero es evidente que los sermones, inspirados por lo menos en tradición escrita, no sólo bíblica y teológica, sino también de obras humanas clásicas, a lo largo de siglos han introducido en el “saber popular” o folklore más de un concepto moral, más de un concepto incluso histórico, pese al cacareado ahistoricismo del campesino en general, que de Spengler a hoy ha sido considerado como cierto por no pocos filósofos y pensadores (Caro Baroja, Julio, 1987: 10/11 orr.).

Beste behin ere, nire ikerlan honetako etnografian aurkeztu ditudan nire lau berriemaileei egindako elkarrizketa grabatueta bete dut egun nire antropologiazko metodologia guztian nagusietakotzat jotzen dudan metodologiazko printzipio hau. Etnografia edo antropografiari dagokionean esan behar dut baita ere aitona gurea Felipe Apalategi Goikoetxeari egindako antropografiarik ez daukagula eta horrek analisisa egiterakoan hutsegite handi bat daukagula adierazten digula. Horregatik Joxemiel Barandiaranek hogeita hamar urte oraindik egin gabe egongo nintzelarik bere ohiko etnografiatzko bilera batean bere ikasle guztioi esan zigunari ehuntatik ehuneko garrantzia eman nion antropologiako zein arlotan betirako murgilduko nintzen erabakia hartzerakoan. Joxemiel Barandiaranek esan zigun etnologian beti bizidunengandik hildagoengandik baino berri gehiago jasoko genuela eta horrela gure analisiak sakonagoak izango zirela, froga gehiago edukiko genuelako. Berak behin eta berriz, ordea, ahalegin handiak egin zituen ni antropoarkeologian gehiago

sartzeko. Hasieran Joxemiel Barandiarani ez nion horren gainean ezer erantzuten errespetuagatik. Baina azkenean, Joxemielek behin eta berriro antropearkeologian gehiago sartzeko etengabe berresaten zidanez, berak erakutsitakoagatik, hots, bizidunengandik antropologo batek berri gehiago jasotzen zuelako, bizidunen antropologian erabat eta betirako murgiltzea erabaki nuela erantzun nion. Aitona Felipe Apalategi Goikoetxeari zuzenaren egindako antropografiarik aurkitu ez dudan arren, bera ezagutu zuten pertsonengana jo dut, eta hori ere niretzat metodologiazko printzipio bat da.

Sinesmenaren bi aldiak: post mortem-a eta ante mortem-a

Nik aspalditik erabilitako metodologiazko printzipio bati hemen ere lehen-lehenik helduko diot analisia honekin jarraitzeko eta gaurkoan printzipio horri oraindik analisisazko balio gehiago emango diot. Aitona gurea Felipe Apalategi Goikoetxearen *Makilakixki* kontuzaharrean milagroak ere agertzen dira. Hori sinesmen kontzeptupean sartzen dut eta gainera antropologiako metodologiazko printzipio handienetakoen artean sartzen dut sinesmena honela azalduz: gure mulier-homo sapiens espeziean beti pertsona bakoitza sinestuna izan da, da eta izango da, pertsona bakoitzaren oinarritzko izatearen nahitaezko behar bat delako sinestea. Hori bai!, sinespideak dira ezberdinak eta, hementxe dago alde eta ez nolana hikoia pertsona sinestunon artean! Baina, hala ere, sinespide ezberdinetik jo arren, pertsona guztiok sinesten dugu. Sinesmenaren agerpen nagusia edozein erlijio da, eta gaur bertan ere hamaika erlijio daukagu mundu edo unibertso guztian. Baina nik hemen gaur lehen aldiz nahi dut antropologiatik defendatu sinesmena beti ez dela erlijio eran garatzen eta beste garapideak ere badauzkala antroposen sinesmenak, gaur zurion artean izugarritzko lehenatasuna hartzen ari direnak, hain zuzen! Horretaz argi eta garbi utzi nahi dut pertsona osasundun bakoitzak bere oinarritzko izatean jakitun den bezalaxe sinestun dela eta jakinbideak bezalaxe sinespideak baita

ere ezberdinak direla. Aitona gurea Felipe Apalategi Goikoe-txearen *Makilakixki* kontuzaharrean milagroak ere aipatzen dira. Nire lau berriemailekin etnografia egiterakoan ahaztu egin zitzaidan beren haurtzaroko eta geroagoko beren eta beren garaikideen sinesmenaz galdetzea. Hori hutsegite bat izan da, eta oraingoz horrela geldituko da. Orduan neronek ataundar bezala eta hama-bi urtetatik hogeitau urtetaraino Gipuzkoako Apaizgaitegian apaizgai, Saturrararen bi urtez eta Donostian sei urtez, izan eta gero ematen dut nire haurtzaroko eta gazte denborako ataundarron sinesmen edo kristau katolikotasun handiaren lekuko bizi-bizia. Gainera, Apaizgaitegira joan aurretik, Sangregorioko elizan monagilo edo meзамutila izan nintzen sei bat urterekin hasita. Ataungo sinesmen katolikoaren eta sinesmen herritarren gainean nire berriemaile Mariarrosario Agirre Egañak ematen dit hala ere lekukotasun edo froga oso on bat bere ama Teresa Egañari entzun omen ziona:

“AEmr 161 / 167: Ezkea, ez gea danok pentsatzen <hitz bat ez diot ulertzen> eta hori hoi ein zoen ba. Eta hil zan gizon hoi eta pantaloi berriik jantzi diotzea eta amai damutu zaio eta esan emen zion alabari “Atzeko puskaak kendu ein behar zoonau”. “Eta zertako ama? Gero Josepetaa nola presentau behar do gure aitek atzeko alden pantaloian puskak keta?” “Aaa izin din beharra gure aitek lehen ne mainoxo askoa oonan eta han nee baztarren baten kontra eo moldakoen”.

Nire haurtzaro eta gazte denboran ere, Ataungo Sangregorio parrokian, sinesmen herritar esaldian, alegia, Josepeta Zelaie esaten zen zeru katolikoa izendatzeko. Honek argi eta garbi erakusten digu kristau katoliko sinesmenaren erakusketa bat, zerua alegia, herritarrak beren eguneroko hizkeran ere izendatzen zutela zeruarekin loturarik galdu gabe baino lurreko ezaugarriz beteta, kasu honetan pertsonaia Josepeta eta lur zelaia, hain garrantzitsua azkenengo hau baserriko lanbidean! Horregatik defendatzen dut pertsona baten sinesmenak, bere pertsona izakeraren oinarrietako bat dena, garatua izaterakoan erabide asko eta asko ere har dezakela post mortemarekin itxuraz inolako zerikusirik ez izateraino iritxi arte.

Egun gure artean eta mundu globalizatuan baita ere geroz eta gehiago sinesmen ante mortema ari da garatzen. Lehen aldikoz sinesmen ante mortema erabiltzen dudala, eta inoiz inongo antropologi ez entzun eta ez irakurri diodan expresioa da hau, hemengo nire ikerlan honetarako sortu dudana frogatzeko garai guztietako pertsona bakoitzak sinesmena, bide batek zein bestetik garatua, daukala baieztatzeko. Azken boladan ikergai hau ikertzen ari naiz nire aspaldiko ahozko antropohistoria gehiago sakontzeko. Adibide asko, eta asko ere asko, egunero zuzenean jendearekin elkarrizketatzerakoan, eta idatzizko, ahozko eta irudizko komunikabidetan ari naiz entzuten eta ikusten. Hemen bi adibide emango ditut horren lekuko bezala.

Lehen adibidea:

Duela hilabete batzuk, lehen aldiz ohartu nintzen, Bilboko nire etxebizitzan Radio Euskadik bere propaganden artean bat ematen zuela nire analisia honetarako guztiz jakingarria gertatzen zitzaidana. Hemen ondoan emango dut nire Etnografia sailean bosgarren grabaketa bezala emandakotik berrartuz:

REea 071 / 072:”Radio Euskadi de Verano. ¡La radio que escuchas! ¡La radio que ves! (Une honetan goizeko hamarrak dira)”.

Adibide hau erabiltzen dut frogatzeko nola gaurko egunean ere milagroak gertatzen diren, eta ez bakarrik antzinan, esate baterako *Makilakixki* kontuzaharra ahoz ahoz zabaltzen zenean, hemeretzigarren mende bukaeran eta hogeigarren mende hasieran. Hori bai!, Radio Euskadiko propaganda hau sinesmen ante mortemaren kontzeptupean sartzen dut, ez daukalako lotura zuzenik erlijioaren batekin baizik gaurko unibertso globalizatu eta merkatariarekin. Hala ere, antropografia gehiago egingo banu anuntzio edo iragarpen hori sortu zuenarekin edo zutenekin orduan froga gehiago izango nuke eta agian baieztatu ahalko nuke bere egileak edo egileek sinesmen post mortema ere badutela eta bi sinesmen erapideen artean badagoela zerikusirik. Hau oraingoz nire hipotesia da.

Bigarren adibidea:

Duela aste gutxi nire eskuetan hartu nuen “Carrefour Erandio”ko paperezko lau orrialde handi handitako eta koloretako iragarki bat. Lehen orrialdean, besteak beste idatzi hau zetorren “Nuevo / Del 17 al 27 de junio / Ekainaren 17etik (sic) 27era (sic) / Carrefour Erandio / con los Mejores Precios”, “Carrefourek (sic) posible da / con Carrefour es posible”. Non dago iragarki honetan nik egun sinesmen ante mortemaren ezaugarritzat jotzen dudana esaldia? Ba “con los Mejores Precios” esaldiko “los” superlatibo edo gehieneko horretan, hain zuzen. Izan ere noiz daukagu pertsonok esaterik gure edozein ekintzariko bat antzeko ekintza guztien artean hoberena dela? Niretzat inoiz ere ez eta gaurko mundu globalizatuan oraindik gutxiago hainbat jende gai dagoenean eta hainbat elkarri kopiatzen diogunean gure harrigarriko goi teknologiaren bidez. Gehienez daukagu esatea “con unos de los Mejores Precios”. Baina egun mundu globalizatuan erabat zabaldu dugu hoberenaren kontzeptuaren adierazpena. Horri, nik antropologiatik analizatuta, sinesmen ante mortem deitzen diot. Honek bultzatuta gabiltza egun eta egunero gero eta gehiago mundu globalizatuan murgilduta autonomiaz gabiltzanok uste izanez gure sinesmenaren sapaira ante mortem iristea daukagula. Egia da goi teknologiak orain berrogeita hamar urte ametsetan ere pentsatzen ez zirenetako zenbait gauza garatu dituela! Esate batera klonaketa eta esparruko “International space satellite” non pertsonak bizi garen.

Hirugarren adibidea:

Urte honetako ekainaren 23an, Donibane bezperan, Donostiako Alde Zaharreko Konstituzio Enparantzan, arratsaldeko 18:30 / 20:30 bitartean, gutxi gorabehera, ohiko Donibane bezperako dantzak eta suak ospatu ziren. Jende mordoa ginen ospakizunean parte hartzen. Enparantzaren erdi-erdian lizar zuhaitz handi handi bat zegoen bere oinean erregai batzuekin. Bukaera eman zion zuhaitzari gizonezko heldu batek. Suketa amaitu zenean beste gizonezko heldu bat zuhaitzaren

kontra jarritako eskailera batera igota, lizar zuhaitzaren azal zatiak aizto batekin mozten hasi zen eta inguratzen zitzaizkionei eskaintzen. Jende hau heldua eta batik bat gaztea zen. Halako batean bertan zegoen emakumezko heldu bati, berak ere zuhaitz lizarraren azal bat eskuetan zeukalarik, galdera hau egin nion:

– “Aizu! Zertarako ari zarete lizar azal bat eskuratzen?”

– ¿Cómo?

– Le preguntaba que, ¿por qué están solicitando una corteza del árbol de fresno?

– “Es para que dé suerte durante todo el año”.

Emakumezko berriemaile ezezagunak erantzun zidanak nire antropologiako analisiaren bidez argi eta garbi erakusten dit, nola egun gure euskal kulturaren, batik bat gazteen artean, sinesmen ante mortema izugarri lantzen ari den. Donibane izeneko ospakizun horretan inolako azalpenik ez nuen ez entzun eta ez ikusi sinesmen post mortemarekin lotuta. Pentsatzen dut bertan bildutakoen artean, batik bat heldu-heldu eta zaharren artean, beren baitan sinesmen post mortema landuko zutela, horien artean neroni aurkitzen nintzela hemen oso pozik aitortzen dudalarik. Ez ordea jende aurrean!

Geroago Donostiako Antiguo auzoko “Gaskonia / Plaza”ra joan nintzen. Hemen 21:59 aldean, baita ere Donibane bezpera ospatu zen. Enparantzaren erdianugarri multzo txiki bat zegoen aski zabala. Lizar adarrak zeuden horien artean eta makila igartu ugari. Bertan 300en bat lagun inguru bilduta geundela kontatu nuen. Halako bateanugarri multzoari su eman zitzaion. Segidan jende bat bere gaineratik salto edo jauzketa eginez igarotzen hasi zen. Gizonezko heldu, nire lagun batekin, bertan topo egin nuen eta bere izenik ez dut orain gogoan. Nire lagunarekin batera beste gizonezko heldu bat zegoen. Honek halako bateanugarri multzo piztuaren gaineratik jauzketa egin zuen. Orduan nik, gazteleraz ari ginen elkarrizketan, berari galdetu nion, orain buruz birgogoratzen dudana:

– “¿Por qué ha saltado por encima de la hoguera?”

– Para que me dé buena suerte.

- Me gustaría que me dijera su nombre y sus años.
- ¡Sí!. Me llamo Pablo Hernández Cano, y tengo 47 años.
- ¡Muchas gracias! Le digo que estos datos los voy a incluir en una investigación que estoy haciendo para un libro colectivo.
- ¡Está bien!”.

Halako batean nire lagunak, orain buruz birgogoratzuz transkribatzen ari naizen haxe galdetu zidan:

– “¿Tu crees que esta fiesta actualmente es pagana?

– Lo que veo es que cada año se está volviendo más pagana aunque el calendario y muchos de sus elementos como las ramas de fresno y la hoguera misma sigan siendo totalmente lo mismo que cuando esta celebración hasta hace pocos años era principalmente católica”.

Guzti honekin beste behin frogatutzat ematen dut lehen sinesmen post mortemakin lotzen ziren gure ekintza asko orain ante mortemakin lotzen goazala geroz eta gehiago goi teknologiazko mundu eta unibertso globalizatu honetan. Baita ere gehitu nahi dut beste berri bat gertakari honen inguruan. Haur asko eta asko sugar multzo piztura orri asko eta asko ari ziren jaurtitzen erretzeko. Orri horiek beren ikasturtekoak zirela iruditu zitzaidan. Hemen belaunaldi berriari sinesmen ante mortemako heziketa talde bezala ematen ari ginela argi eta garbi frogatuta gelditzen zen.

Beraz egun nik baieztatzen dut pertsonen sinesmenak jarraitzen duela baina agerpeidez erabat aldatu dela gure artean eta toki gehiagotan, hots, lehen sinesmenean post mortema erabat nagusia zenean orain sinesmenean ante mortema gero eta gehiago nagusitzen doala. Hots, aitona gurea Feliperen hemeretzigarren mende bukaeratik hogei eta bat garren mende hasierara eman den aldaketa handienetako bat, handiena ez bada, hori dela.

Josemaria Satrustegiren “Estela discoidea desaparecida de Eguiarreta (Araquil)”: *Harrizko marrazkiak frogatzat hartuz pertsonon bizitzaren analisirako*

Jose Maria Satrustegik 1970eko, “Mayo – Agosto”, *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*-n, “Año II / Número 5”

alean, “Estela discoidea desaparecida de Eguiarreta (Araquil)” artikulua 275 / 276 orrialde bitartean argitaratu zuen. Bertan azaldu zuen zati bat hemen ondoan hitzaldatzen dut ikusi ahal izateko analisisa egiteko hiliarriko marrazkiez ere nola baliatu zen eta beste behin horregaz baita ere frogatu nahi dut edozein pertsonaren ekintzak bere eta bere kideen historia beti islatzen duela:

“Interpretación. Indudablemente, hay una relación entre los símbolos esculpidos en una lápida funeraria y la persona a la que se refieren. Según eso, se trataría de una jerarquía eclesiástica que al mismo tiempo desempeñara funciones militares. El báculo y el escudo, lejos de crear incompatibilidades, pueden ser el anverso y reverso de un caballero perteneciente a las Ordenes Militares; o simplemente de un obispo residencial que hubiera tenido una destacada intervención en acciones militares del tipo de las Cruzadas. No olvidemos tampoco que el antiguo camino de los peregrinos pasaba a lo largo de la Barranca, donde ha dejado interesantes huellas del románico que todavía se conservan. Suponemos que resultará difícil dar con el paradero de esta estela, aunque sólo fuera para arrancarle el secreto de los posibles responsables. En todo caso, conste nuestra repulsa más enérgica para los anónimos autores del expolio” (Satrustegui, José María, 1970: 276).

Aitona gurea Felipe Apalategi Goikoetxearen Makilakixki kontuzaharraren antropologiazko analisisa

Nire lau berriemaileek gizonetzko batzuk beren garaian basora ikatza egitera joaten zirela esan didate. Baina esate baterako Pilar Barandiaran nire berriemaileak, hauxe ere kontatu zidan neskameei eta morroioei buruz:

“ABjm 101 / 105: Hori da!. ¿Eta garai hartan nee normalean hemen baserritan da zera gizonetzkoak bezelaxe emakumezkoak kere neskame eta morroi ibiltze al ziren?

BBp 105 / 105: Berdin!

ABjm 105 / 105: Berdin!

BBp 106/ 106: Berdin!

ABjm 106 / 106: Eta etxe askotan hori gertatze al zan?

BBp 106 / 107: Ez!. Familie txikie zeon tokiin.

ABjm 107 / 108: Hori da! Zuenean bezela bi ahizpa...

BBp 108 / 108: Bi ahizpa eta aitte ta amaa.

ABjm 108 / 109: Ta orduun jende gehiago behar!

BBp 109 / 109: Gehiago behar!"

Hala ere, nik pensatzen dut aitona gurea Feliperen *Makilakixki* kontuzaharrekoa, lehenagoko garaiko gizonezkoen morrontzari buruzko ahozko antropohistoria gordina dela. Hau da, XIX. mende bukaera garaikoa dela hor kontatutako guztia. Eta kontuzaharrak hasieran zioen bezalaxe:

“Urtea bete ondoenén, soldata ordez asto’at eman ementzioén; eta asto orrek, beári ei’zak urrea esa’ezkeo, urrea eitte ementzôn” (Barandiaran, José Miguel de, *Eusko-Folklore*, 1921: 269.)

Hemen ikusten da argi eta garbi garai haietan dirurik baserri munduan ia inork ez zuenean, orduko aberastasuna gauzak berak eskuratzea zela neskame eta morroientzat. Baserrian asto bat edukitzea lanerako ez zen txantxetako aberastasuna (berrirakurri gorago hitzaldatu ditudan nire lau berriemaileen etnografiak). Hori lortzeko ordea baserri bat baino gehiagotan bertako gizonezkoren batek morroi joan behar zuen . Hori lortzen zue-nak urrearen pareko aberastasuna lortzen zuela esan nahi du niretzat astoari “ ei’zak urrea esa’ezkeo, urrea eitte ementzôn”, dioenean *Makilakixki* kontuzaharrak. Guk ere egun urrea hitza eta beste hitz indartsu asko erabiltzen ditugu geure zenbait jokabide goraiatu nahi ditugunean.

Gero astoarekin bere etxera doan morroi ohiari ostatu batean gau bat egiteko gelditzen denean, hauxe gertatzen zaio (oharra: Joxemielek rr letra adierazteko r-aren gainean komatxo bat idazten du, eta nik neure eskukonputagailu honetan hori egitea lortu ezin dudanez, bi rr idazten ditut):

“Ala, bê etxea zêtorrela, gau batên ostatzuz urrutikoetxe batên geatu ementzan.

Eta oiakôn, ostalariri esa'emention: ez geo nê astôri "ei'zak urrea" esan.

Baño motille oia jûntzaneko, ostalarik eitte ementziôn astôri: ei'zak urrea. Eta astôk urrea galanki eifn ementzion.

Urdûn ostalarik asto aren tokiñ ue bezelako besta asto'at jarri ementzôn.

Urrungo goizên, artu ostalariñ astoa berea zôlakôn, eta motille oso alai bê etxea jûn ementzan.

Esa'ementziên, bâ bê aittêeri ta anaiêi nolako astoa zekarren. Eta ala, lurren zâlduta izara aundi'at jarri ementzôên, eta aren erdiñ gue asto ori, antxe urrea ein zezan.

Ei'zak urrea, esa ementzion motillek.

Baño urreik ez ementzan azaltzen an.

Ei'zak urrea, beiz ê.

Ta urrea nun éingo zôn ze, izara guztie simaurtu ementziên" (Barandiaran, José Miguel de, *Eusko-Folklore*, 1921: 269/270).

Ez zait kontuzaharreko guztia argi eta garbi gelditzen. Lehen esan dudana gainera, zer ote zen garai hartakoentzat astoak urrea egitea? Nik uste garai hartakoentzat urrea, gaur ere guretzat bezalaxe, gauza aberasgarri baten berri emateko erabiltzen zela. Gero esaten zaiguna bai ulerterreza zaigu gaur ere, alegia "izara guztie simartu ementziên" asto berriak. Horrexegatik oraindik garantia handiago ematen diot ikerlan honetan hasieran esan dudanari, zera alegia: Joxemiel Barandiaranek berarekin egiten genituen noizbehinkako etnografiatzko bilera batean esan zigula bizidunengandik hildakoengandik baino berri gehiago beti biltzen zela. Baina kontuzahar honen berriemaile zen aitona gurea Feliperen etnografia ez zuen argitaratu Joxemielek. Dena den, XIX. mende bukaerako ikerlan asko eta literatura ere gehiago begiratuko banu, agian uste dut astoak urrea egitea garai hartakoentzat zer zen jakitera iritxiko nintzatekeela. Baina nik neure antropologiazko ikerketan denbora guztietan bizidunekin lana egin dut eta ez naiz inoiz sakon murgildu antropohistorian eta hori egiteko asmorik ere ez daukat. Noski hemen esaten dut garai hartakoek ia pertsona denek sinesmen post mortema bete-betean bizitzen zutela eta horrekin ere hipotesia bezala lotzen dudala

astoak urrea egitea. Gero gainera beste oinarritzko galdera bi daude baita ere: zergatik ostalariak bere bezeroari astoa aldatu zion?, eta zergatik ostalariak bere bezeroari astoa harrapatu zion?. Non daukagu horren gaineko garai hartako antropografiarik? Noski beste galdera nagusigo bi daude hemen lehenago egiteko: orduan ostatutan gaua igarotzea nola ordaintzen ote zen?, eta zergatik mutila ez zen ohartu bere astoa ez zuela hartu hurrengo egunean bere etxerako bidean berrabiatzerakoan? Azkenik, beste galdera bat oso garrantzitsua dagoela kontuzahar honen analisisan ohartzen naiz: zergatik morroi ohiak bere ostalariari agertzen dio bere astoaren trebetasuna?

Makilakixki kontuzaharrak jarraitzen du honela:

“Geo seme bigarrena jûn ementzan morroi,

Ta urtea bete ondoenên, mai bat ema’ementzion bê nausik.

Jarzak bazkârie eo aparie esa’ezkeo, mai orrek bazkârie eo aparie bertan prantatzé’ementzôn.

Ala bâ, motill oi bê etxea zêtorrela, gau batên, anaie zârrenai astoa lapurtu zioên etxe artan bertan ostatuz geatu ementzan.

Ta oiakôn ostalarîri esa’ementzion: ez geo mai oni “jartzak bazkârie” esan.

Baño ue oia jûn zan urduko, ostalarîk jartzak bazkârie esa’ementzion mai orri. Ta maiek bertan bakârie prantau ementzôn.

Ta urdûn ostalarîk mai ue izkuta ta ue bezelakoxe beste mai bat, aren tokiñ jarri ementzôn.

Urrungo goizên motill arek, artu ostalarîn maie berea zôlakôn eta aldein ementzôn.

Etxea jûn zanên esa’ementziên bê aittêi ta anaiêi nolako maie zêkarren, ta ala, mai orri, danan aurrên, deadar eitte ementzion: jartzak bazkarie.

Baño maiek ez ementzôn eze prantatzen.

Motill gizâjoa, ez da arritzekoa ta, oso triste geatu ementzan (Barandiaran, José Miguel de, *Eusko-Folklore*, 1921: 270.)

Hemen ere bigarren anaia morroi ohiari bere anaia zaharrena morroi ohiari gertatu gauza berberak gertatzen zaizkio. Oraingoan astoa izan ordez mahaia da ostalariak bigarren morroi ohiari harra-patuko diona. Nire lau berriemailetako batek amagurea Natalia

Begiristain Urbiztondok bere garaiko neskame eta morroiei buruz mintzatu zitzaidanean esandakoa hemen ondoan hitzaldatu nahi dut frogatzeko bere garaian, orain dirua bezalaxe, gauzak ematen zitzaieela neskame eta morroiei beren lanak ordaintzeko:

“ABjm 200 / 224: Ongi!. Etaa geroo baita holaa gizonzkoei holaa beste baserri batean, jesan dezu bereziki mendin!, eta hola lan horren nee ordaine bezela diruz kanpo ¿beste ezer ematen al zitzaien?.

BUn 225 / 231: Diruz kanpo nekez oain. Eee ordun baita re kaleen bizi zien emakumaak ba hola ee diru gutxi zeukeen ne gizonak keta ahal zan lekutan ibiltzen zien da. Gutxi ta haak ibiltzen zien berriz zee baserrian peontzan da hola. Eta pues haak pai, haari jasotzen zitzaien diru pixka bat eta gero baserriko gauzak eta ematen zitzaien.”

Azkenik birgogora dezagun hirugarren anaiari edo anaia gaztenari zer gertatu zitzaion morroi egon eta gero bere etxera itzultzerakoan:

“Geo anaie gaztêna jûn ementzan morroi.

Ta urtea bete zônên, bê nausik makilla’at emâ’ementzion.

Makilla orrek ba ementzôn adur ikusgarri’at. Beân aurrên makilakixki esâ’ezkeo, motill oi ez beste inguruko guztîk joka txikitu bearrên astê ementzan.

Ala, gue motill oi ba ementzeotorren (sic) bâ etxea, eta gau batên beste anaiei lapurreta ein ziên etxe artan bertan ostatuz geatu ementzan.

Apalondôn, lotâ abîtu zanên, ostalariri esâ’ementzion ze: geo nê makillêi ez esan “makillakixki”.

– Ez, ez, eantzu’ementzion ostalarîk.

Baño ue oia jûn zaneko, artu makillea eta ¿makillakixki! deadar eîñ ementzion ostalari lapurrek.

Baitta makilla oi asten da baztar guztîk txikitu bearrên, danak joka, ostalarie eta etxeko beste guztîk. Arek atâ ementzôn an ixkimillea!

Urdûn ostalarie, estu ta larri, makillên jabeâna jun da, makilla oi geau azin zezan erregu eîñ ementzion.

Baño bestêk ezetz, eantu'ementzion, alik eta aren anaiei lapurtutako astoa ta maie eman artên etzôla geatu âzingu maikillaik.

Ta ala, ostalari pikaro arek astoa ta maie biurtu emen ziotzan.

Urduûn gue motill oi bê makill, asto ta mai, etxea jûn ementzan.

Andi aurrea danak ondo bizi ize'ementzien.

Oi ala bazan sartu deilla kalabazan”.

Hemen, *Makilakixki* kontuzaharraren amaieran, ikusten dugu etxeko anaia gazteena morroi egon eta gero, bere etxerako bidean bere bi anaia zaharragoak egondako ostatu berean baita ere gelditzen dela eta ostalariak bere bi anaiei harrapatutako astoa eta mahiak berreskuratzen dituela, etxera eramaten dituela eta, “andi aurrea danak ondo bizi ize'ementzien”. Hemen antropologiazko analisiak esaten dit alde batetik harrapaketei aurre egiteko garai hartan baita ere biolentziara jo behar izan zuela hirugarren anaia gazteak: “Baitta makilla oi asten da baztar guztik txikitu bearrên, danak joka, ostalarie eta etxeko beste guztik. Arek atâ ementzôn an ixkimillea! Gainera kontuzaharraren izenburua hortixe dator *Makilakixki*, hau da, jo ta txikitutik. Hau da pertsonon artean hamaika aldiz eman dena, ematen ari dena eta zoritxarrez ematen jarraituko duena. Hori bai ez daukagu antropografiarik eta ez dakigu makila horren erabilpen motaren esanahia nola behar dugun ulertu. Azkenik, esango dut lapurtutako bi ondasun nagusiak berreskuratu ostean, familiako guztiak ongi bizi izan zirela dioskula kontuzaharrak. Honek esan nahi digu lehen bezala orain eta gero baita ere, pertsona batek bere ogibideari esker bakarrik daukala ongi bizi izatea. Gaur egunean munduan sei bat mila miloi bat lagun bizi garela eta hauetatik hirutatik bi eta gehiago gosez egunero bizi dela nago orain bi bat urte inguru interneten ingelesez irakurrita. Gero Irakeko guda daukagula egun!, ba ni horrek ez nau batere harritzen eta gure mulier-homo sapiensaren antropohistorian zenbat makilakixki egon ote den gero eta gehiago neure buruari galdetzen diot nola pertsona bezala hala antropologo bezala!

2.7. *Tesia*

Nire analisisan defendatu dudan nire tesiaren zenbait puntu hemen laburtu nahi dut:

1. Ahozkoa bezalaxe pertsona bakoitzaren beste edozein jokatibide pertsona beraren, bere kulturkideen eta gure mulier-homo sapiensko pertsona guztion antropohistoria da beti. Baita ere gezurretan ari garenean guretariko edozein. Ikertzailearen egitekoa frogak topatu eta horien esanahia oinarrituz ematea da. Hemen gogora ekarri nahi dut gure euskal antropologo handienetakoa dugun Telesforo de Aranzadi zenak zioena “criterio científico” ari buruz bere 1975eko *Etnología vasca* liburuan:

“Ni el criterio científico debe supeditarse a la mentalidad de un grupo humano, por muchos que sean los millones de individuos que lo compongan, por grande que sea su predominio intelectual o político en un momento dado de la historia y por mucho que alardee hipócritamente de internacionalismo. Negar lo que somos capaces de sentir o ver es como pretender que a nuestra espalda está negro porque no lo vemos ni miramos” (Aranzadi, Telesforo de, 1975: 158).

2. Pertsonok gure bizitzako gauza sakonenak norberarentzat bakarrik gordetzeko joera daukagu eta horregatik epaitegietan horietako asko eta asko agertzen da eta baita pertsonok elkarrekin biziki haserretzen garenean ere. Kontuzaharretan lehen, hau da gure amonaitonen garaian, XIX. mende bukaeratik hasita, eta orain gure mundu globalizatuan era guztietako komunikabideetan (ahozkoan, irudizkoan, idatzizkoan eta gauzazkoan) gauza asko eta asko gorde egiten ditugu, eta beren lekuan era askotako irudipenaren erak ipintzen ditugu. *Makilakixki*-n astoak urrea egiten zuen, mahaiak jana eskaintzen zuen eta makilak bere baitan pertsonak eta baztarrak txikitzen zituen. Egun hainbat eta hainbat adibide daukagularik bakarrik bi ematen ditut ikerlan liburu hau hiru anai-arreben artean osatuko dugulako eta horregatik behar adina lekurik ez daukadalako hemengo analisisa guz-

tiak orain eskaintzeko: lehena, Radio Euskadiko ahozko iragarki bat azaldu dut non ederki asko entzulea ohartzen den entzunaz bakarrik ez daukagula ikusterik eta hala ere esaten zaigu, eta horrek baita ere niretzat erakusten du egun gure artean nolako erabilpen handia egiten dugun, gure sinesmen ante mortemarena; bigarrena, Carrefourrena non erabiltzen den propaganda egiteko sinesmen ante mortemtzat jo dudan jokabide bat, hots hori horrela den ala ez inork ez dakigula ongi asko ohartzen garelarik, hala ere esango zaigu idatziz “con los Mejores Precios” esaldia eta “los” superlatibo edo gehieneko horretan, hain zuzen, dago egungo sinesmen ante mortemaren azalpenetako bat. Gai honekin lotuta José Miguel de Barandiaranek bere 1983ko *Mitología vasca* liburuan argitaratutako (“Quinta Edición / Aumentada y Corregida”) pasarte bat hemen ondoan hitzaldatuko dut, nik herri sinesmentzat jotzen ditudanak, Joxemielek nola analizatzen zituen ikusi eta alderatzeko:

“En el hombre distingue el saber popular los aspectos natural (*berezko*) y supernatural (*aidetikako*). Así, hay enfermedades que se deben tratar con remedios naturales y las hay que sólo se curan mediante la magia o mediante el conjuro y la plegería. Ruperto Aurre, el mago de Axanguiz, que hace cuarenta años practicaba su arte en la región de Guernica, me decía: “Hay fenómenos sobre los cuales tiene poder el técnico: el médico, por ejemplo. Otros hay que pertenecen al campo de acción del sacerdote. Y otros son de mi exclusiva competencia. Yo no hago propaganda de mi oficio; es la gente quien, llegado el caso, requiere mi intervención; el que no me necesita no me llama”. (Barandiaran, José Miguel de, 1983: 55).

Era berean, Joxemielen liburu honi, Julio Caro Barojak egin zion “Prologo”an (5/12 orrialde biartean) zioskuna berririo gogora ekartzea gomendatzen diot irakurleari.

3. Azkenik oraingoz orain hemen landuko ez dudan zerbait aipaturik utziko dut. Gu pertsonon izatearen analisi bidez sakonki ezagutzen garenean, jakintza sakon bakoitzaren aurrean

eguneroko etorkizunari begiratu, zer autoazterketa eta zer proposamen baikor egin beharko genukeen, galdetzen ari gara.

3. Bibliografia

3.1. *Liburu eta aldizkariak*

APALATEGI BEGIRISTAIN, Joxemartin (1987): *Introducción a la historia oral, los kontuzaharrak (cuentos viejos)*, Anthropos, Editorial del Hombre, Barcelona.

APALATEGI BEGIRISTAIN, Joxemartin, (2004), 05.17/18.1/2: Etnografia grabatua Ataunen lau berriemailekin: 1. Sabino Bikuña Lasa, Ataun Samartingo Agerre Baserrikoa; 2. Pilar Barandiaran Barandiaran, Ataun Sangregorioko Sara etxekoa; 3. Mariarosario Agirre Egaña, Ataun Sangregorioko Arrate etxekoa; 4. Natalia Begiristain Urbiztondo, Ataun Sangregorioko Ezkalune etxeko bigarren solairukoa.

APALATEGI BEGIRISTAIN, Joxemartin (2004): “Folk / lore eta antropo / etnologia edo pertsona / talde jakintza”, 415/443.in 50 ikertzaileon artean idatzitako, *Euskal Curriculum: Kultur Ibilbidea. Herritik mundura eta mundutik herrira*. Talde antolatzailea: zuzendaria Xabier Garagorri, eta aholkulariak Paulo Agirrebaltzategi, Anttonmari Aldekoa-Otalora, Eugenio Arraiza, Lore Erriondo, Piarres Xarriton.

ARANZADI, Telesforo de (1975): *Etnología vasca*, Editorial Auñamendi, Donostia, San Sebastián.

BARANDIARAN, José Miguel de (1981): “Breves instrucciones prácticas para el investigador folklorista”, 11/29, en la *Revista Anuario de la sociedad de eusko=folklore*, nº 1. 1921. Reedición de 1981.

BARANDIARAN, José Miguel de (1921): “XXIX / Makilakixki”, 269/271, in *Eusko-Folklore*.

- BARANDIARAN, José Miguel de (1960): *Mitología vasca*, Ediciones Minotauro, Madrid.
- BARANDIARAN, José Miguel de (1983): *Mitología vasca*, Quinta edición aumentada y corregida. San Sebastián: Editorial Txertoa. Prólogo, índice analítico, pgs. 5/12, de Julio Caro Baroja.
- CARO BAROJA, Julio (1983): “Prologo”, 5/12, in *Mitología vasca*, Quinta edición aumentada y corregida, de José Miguel de Barandiaran. Editorial Txertoa, San Sebastián.
- CARO BAROJA, Julio (1987): “Prologo”, 9/11, in *Introducción a la historia oral, los kontuzabarrak (cuentos viejos)* de Joxemartin Apalategi, (19857), Anthropos, Editorial del Hombre, Barcelona.
- SATRUSTEGUI, José María (1970): “Estela discoidea desaparecida de Eguiarreta (Araquil)”, 275 / 276, en *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*, Año II Num.5 Mayo – Agosto.
- WATSON, C.W. (2001): “Constructing the field: ethnographic fieldwork in the contemporary world” (173/174 orr.), in *The journal of the royal anthropological institute. Incorporating man aldizkarian*: Volume 1 Number 1 March.
- YARNOZ, Sagrario (1982): *Makilakixki ipuina*, Axut Saila. Donostia: Elkar

3. 2. Ahozko grabaketak

“CASIO / COMPACT CASSETTE RECORDER/PLAYER TP-7” esku grabagailua erabali nuen grabaketa hauetarako eta “TDK” “DIECI / TYPEI ” “NORMAL POSITION” “60” minutukoa “DYNAMIC CASSETTE LOW NOISE HIGH OPUTPUT” markako bi kasetetan jaso nituen aipatu bost grabaketak.

3.2.1. Nire Ataundarkide Sabino Bikuña Lasa Berriemailearekin

Ataungo Samartingo Agerre baserrian jaiotakoa 1938an.

MAKILAKIXKI IPUINAREN AZTERKETA PEDAGOGIKOA

Jaione Apalategi

Pedagogoia eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Irakaslea

1. *Makilakixki* ipuinaren ibilbide pedagogikoa

Zer da *Makilakixki*? Kontua, ipuina, mitoa, alegia, kontuzaharra, narrazioa, ikasbidea... Guztiok hezkuntza eta heziketarako erabiltzen dira. Hiztegi eta jakitunen arabera, euren artean dau-den mugak, honela adierazten dira (*Hiztegi Entziklopedikoa*, 2003):

Ipuina: “Prosan idatzitako fikziozko narrazio-lan laburra, bereziki alegiazko (irudikapen sinbolokoa) gertaerak kontatzen dituen eta umeei zuzendutakoa dena”.

Mitota: “Kontatera sinbolokoa, munduaren hasierako edo denbora historikotik kanpoko gertakari harrigarriren baten berri ematen duena. = Aintzinako jaingo edo heroien ekintzetan edo egiazko gertaeretan oinarritzen den alegiazko kontakizuna, jatorri ezezagunekoa eta herri baten tradiziozko pentsamendu kolektiboaren osagai dena, naturako indarren edo giza izaeraren zenbait alderdiri buruzko ikuspegia edo sinestea islatzen duena. = Kontzeptu abs-

trakturen bat azaltzeko erabiltzen den alegoria edo irudikapen sinbolokoa”.

Alegia, elezaharra, fabula: “Pertsonaia gisa animaliak edo gauzak agertzen diren ipuina edo elezaharra, gehienetan hitz neurtuetan moldatua eta, ondorioztat ikasbide morala eskaintzen duena”.

Moraleja: “Ikasbidea, ondorioa”.

Narrazioa: “Kontatzen dena, kontakizuna (bereziki, nobela, ipuina eta kontaketa mintzatuz erabilia)”.

Kontuzaharra: “Ipuina, haurrentzako kontua”.

Jakina den bezala, XX. mendearen lehenengo hamarkadan hasi zen Joxemiel Barandiaran euskal ipuinak jaso eta ikertzen. *Obras completas* (1973) izena daramaten bere liburu-bilduman, besteak beste, argitaratuak topatzen ditugu. Aipatu bilduma honen II. aleak *Eusko-folklore* izenburua darama eta “Cuentos y leyendas” atalaren sarreran (1973: 239) hauxe dio:

“*Kontua* herri narrazioari deritzo, nun bere pertsonaia, tokiak eta denbora mugagabeak izaten dira. Antzinan, etxe batean, aita bat hiru semerekin bizi omen zen (...) *Kondairan* alde, kontuan ez bezala, ekintza burutzen duten pertsonaia eta lekuak mugatuak dira.

Euskal Herrian orain ere era honetako kontakizun ugari dira. Hiriska modernizatuen ezaugarri berriak diren egunkari, zine, eleberrri eta bizitza materialistaren aldeko apostuek herriaren tradizioa ezabatzeko joera daramaten arren, oraindik ere gure herri baztarretan posible da kontu eta kondaira aberatsak topatzea...”.

Gehienetan kontuak kontatzea, etxeko edo auzoko zaharren zeregina izaten zen, haurrrak eta gazteak, gurasoak zein kidekoak zirelarik entzuleak. Baina, jakina da ere, esate baterako, Ataunen (Gipuzkoa) 1900. urte aldera, oso arrunta zela irule eta jostunak elkartzen zirenean, kontuak kontatzen aritzea lanak irauten zuen arte.

Esandakoari lotuz, *Makilakixki* kontu bat dela esanez hasiko gara, ipuin bat, mendez-mende eta ahoz-aho kontatzeko erabili izan den horietako bat. Jatorriz, gure arbasoek negu gorrietan

sutondoan kontatzeko erabiltzen zituzten ipuin horietako bat. Garai bateko euskaldunen pentsaera magiko eta mitologikoa adierazten duen ipuin bat dela ere esan daiteke. Laffite eta Barandiaran etnologo handien hitzetan, pertsonaia mitologiko gisa –“jende harri/garriak” lehenengoarentzat, “jeinuak” bestearentzat–, ezagutzen diren ipuin mota horietako bat osatzera dator *Makilakixki*.

XX. mendearen 1980ko hamarkadan hasi eta 2003. urte bitartean, Euskal Herrian zehar indarrean dauden hezkuntza sistemei erreparatu ezker, Haur Hezkuntzari dagokion etapako euskarazko irakaskuntzan, *Makilakixki* ipuinak, idatzizko esparruan, eraldaketa oparoak ezagutu ditu:

Euskaraz idatzi eta marraztutako ipuina.

Bideoan ekoiztua.

CD-Rera moldatua, bideoa, ipuina eta jokoak tartekatuz.

Ikastolen Elkartean, ”Haurtxoa”izeneko euskara garatzeko proiektuan, *Makilakixki* ipuina, euskara ebaluatzeko proba bezala sortu zen. Geroago berriz, “Urtxintxa” euskara proiektuan, 5 urteko haurrekin, ikasturtearen 2. hiruhilabetean euskara lan-tzeko aukeratuta dauden lau ipuinetako bat da *Makilakixki*.

Dena den, *Makilakixki*-ren ibilbide pedagogikoa ez da agortzen ahozkotik idatzirako jausian, baizik eta borobildu egin dela dirudi bere ibilbidea, hezkuntza eta heziketaren onerako, noski, orain bi erataria erabiltzen baita! Zertan oinarritzen garen baieztapen hau egiterakoan? Zorionez, gaur egun badelako –orokorrean eta gure artean gartsuki, gainera–, ipuinen balio pedagogikoari indarra ematen dion mugimendu profesional bat: “ipuin kontalaria”rena da, hain zuzen, hori. Gogora dezagun Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailak, Euskal Herriko zenbait Udal eta hainbat erakunde eta elkarte, dagoneko esku hartzen ari direla proiektu honetan. Adibidez, Iruñeko Udalaren eskaintza, “Irakurketa sustatzeko hezkuntza-programa” deitzen da, eta eskaera egiten duten ikastetxe guztietara bidaltzen dira ipuin kontalariak. Programa hauen egileak, erakundearen arabera, bertako zerbitzuek sortuak ala, lehiaketa publikoaren

bitartez, kanpoko enpresaren batek eskaintakoak izaten dira. Esate baterako, Iruñeko Udalean, bigarren hau egin zen bi mila, hiru eta laugarren (joan den) ikasturtean, non bere “Osoko bilkurak Fira proiektuari esleitu (bait)zior Udalaren hezkuntza-programa” (Iruñeko Udala, 2003-2004: 2).

Ipuin kontalariak ez dira bakarrik ikastetxeetan ibiltzen, baita hezkuntza eta heziketarako oso egokiak diren beste hainbat tokitan ere: kultur elkarte, antzoki, komunikabide, liburu-dendetan, liburu eta kultur ekintza ezberdinen aurkezpenetan, jai eta ospakizun ugartan, eta abar luze batean. Ipuin kontalariak gero eta entzutetsuagoak egiten ari direla ikusteak, Pedagogiaren ikuspegitik bederen, itxaropentsu egoteko arrazoiak ematen dizkigula aitortuko dugu. Egun, Haur Hezkuntzako *curriculum* gehiengoa, ofizialak izan ala ez, gure ustez, iraunkorki sumatzen den ipuin gabezia atzematen da, eta ipuin kontalarietarako, hutsune hori ezin hobeto betetzen hasia da. Hala eta guztiz, eskolak nabarmentzen duen gabezia hau ez da behar bezala asetuko, funtsean, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan zein irakaslearen hasierako zein etengabeko ikasketa eta heziketa programeetan (Apalategi, 2003: 8-19; Oteiza, 1973: -2003: 41-47) ipuinen inguruan derrigorrezko irakas eduki bat garatzen ez den bitartean.

1.1. Makilakixki ipuina: Felipe Apalategi berriemailea eta Joxemiel Barandiaran ikerlaria

Edozein motatako ipuin baten aurrean egingo genituzkeen galderak sortzen zaizkigu *Makilakixki* aztertzerakoan: Nongoa da? Noizkoa? Norena? Nori kontatzeko sortu ote zen? Ezaguna al da gaur egun? Zer-nolako erabilera ote du oraintxe bertan?

Makilakixki ipuinaren azterketa pedagogikoa egitea da gure gaurko ahalegina. Baina, zergatik aukeratu ote dugu ipuin hau eta ez beste bat? Hasiera batean, arrazoi nagusia, aitzakia bat besterik ez dela esango nuke nik, familiarreko zerbaitetan gera daitekeena, baina ondoren eta aldi berean, giza eta gizarte

zientzien sailean ekarpen bat egiteko balio dezakeen ipuina ere badela, ziur gaude!

Dakigunez, Joxemiel Barandiarenek (1889-1991) jaso zituen ipuin andanetako bat da *Makilakixki*, baina guretzat esanahi berezia duena, izan ere, 1921ean, gure aittejauna Felipe Apalategiren ahotik jaso baitzuen. Eta gertakari honek, berrie-mailearen bilobak garen neurrian, handik laurogeitalau urte geroago (1921-2005) izan arren, famili ohorea sentitzeraino eramaten gaituela esan dezakegu.

Aita Barandiaran, besteak beste, ipuin mitologikoen biltzaile eta hedatzaile aparta bezala ezagutu dugu, baina komeni da gogoratzea, lan honi ekin zion garaian, jakitun batzuegan ez ezik, gaur uste den baino hutsalagozat hartzen zela ikerketa-lerro mota hau. Kalzakortak (1997:11, 12-13) dioen bezala: “Aintzinatik hasi ziren euskaldunak izenak biltzen, edo –(...)– hitzak biltzen, baina hitz eta pertsonaia mitologikoen izana, kontaera bera, askozaz ere geroztiagokoa dugu. (...)”. Eta adibide honekin jarraitzen du: “Iratxo hitza edo izena, hiztegi batetik bestera maltzurki jauzika ibili arren, ez dugu zoritxarrez iratxoan iragan mendeetako kontaerarik”. Nonbait, Euskal Mitologiako arrastorik zaharrenak XVI. mendean aurkitzen dira, baina XIX. menderarte ez du izenak izanarekin bat egiten, eta mendearen bukaeran *euskal lehen ipun-bildumak* egiten direnean izenak izena mendean hartu zuela zirudien eta ez alderantziz.

Felipe Apalategi (1864-1945) Ataungo San Gregorio auzoko “Munduete” baserrikoa zen eta Joxemiel Barandiaran, berriz, ondoko “Perune-Zahar” baserrikoa. Biak, etxekonekoak ziren. Baina bada bien artean harreman berezia eduki zutela adierazten duen gertakizun nabarmen bat, gure aitak, guri etxean, askotan kontatu izan diguna, hain zuzen ere, eta Joxemielek berak gure aitari behin baino gehiagotan gogoratzen ziona ere. “Felipe Apalategiz itaunka” atalean aipatzen bada ere, oraingoan Aizpurua anaien (1999:24) *Barandiaran* izena daraman liburuan jaso daitekeen modura azalduko dugu. Izan ere, lehenengo bertsioan, Felipe Apalategik Joxemielen amarekin topo egiten duenekoa da;

oraingoan, berriz, aitarekin. Kontakizun honetan ere Felipe Apalategi Donostiatik dator deskribatzen diren berriekin. Bestalde, lehenean udako oporretan kokatzen da auzokoen arteko elkarrizketa; bigarrenean, aldiz, gabonetako oporretan girotzen da. Beti ere Joxemiel Barandiaran 1904an Gipuzkoako Baliarraingo Apaizgaitegiara joan zenekoa da.

“(…) Berehala galdetu zion amak ea gustura zebilen.

–Bai, gustura bai, baina ez dut gauza onik egingo. (...) Erdaraz ez dakit eta ikaragarriazko gastuak egiten ari naiz alfer-alferrik.

Etsipenak jota zegoen Joxemiel eta zalantzaz beteta aita-ama. Joxemielek uste zuenez, memoriaz ikasten zituen gauzak, baina edukiaren edo mamiaren esanahia ulertu gabe. Semearen kezkek ikusita, Baliarraina joateko asmoa hartu zuen aitak. Baina beste bide bat hartu zuen historiak: Perune-Zahar baseritik metro gutxira dagoen Munduate baserriko nagusiarekin, Felipe Apalategirekin, egin zuen topo aitak. Felipe Donostian izana zen eta bere anaia ikustera joanda. Anaiak pentsioa zeukan Donostian eta han ostatua zuen Joxemielekin batera Baliarrainen zebilen Jesus Esnaolaren aitak. Hori jakinda, Joxemielen berririk bazuen galdetu zion Munduateko Felipek. Erantzun ziona kontatu zion gero Joxemielen aitari: “Baliarraingo zuzendariak, Don Luis Sarasolak, hala esaten omen zien hango ikasleei: pentsatuko duzue ataundar horrek ez duela beharbada gauza handirik egingo erdaraz ez dakielako... Ba, hori izango duk bi urteak batean aterako dituen bakarra.

Horrela jakin zuen aitak Joxemiel semeak ikasteko balio zuela eta bizkor saiatzen zela gainera”.

Lehen esan bezala, 1921. urtean jaso zion nonbait Barandiaranek gure aittejaunari *Makilakixki* ipuina, eta bere ahotik entzun bezala argitaratua aurki dezakegu Barandiaranen zenbait lanetan (1972: 3.alea, 107zkoa, 9-12; 1973: 2.alea 269-271). Ondoren, aipatu 1973. urtean argitaratutako *Obras Completas*-eko *Eusko Folklore* izena daraman 2. alean datorren bezala ekarriko dugu orri hauetara:

Mundün asko bezela, etxe batén aitte iru semekiñ bizi ementzan.

Seme záfena mofoi jün ementzan oso ufutia.

Urtea bete ondoenén, soldata ordez asto'at eman ementziön; eta asto ofek, beñri ei'zak ufea esa ezkeo, ufea eitte ementzön.

Ala, bé etxea zétofela, gau batén ostatuz ufutiko etxe batén geatu ementzan.

Eta oiakön ostalariri esa'ementzion: ez geo né astöri "ei'zak ufea" esan.

Baño motille oia jüntzaneko, ostalarik eitte ementzion astöri: ei'zak ufea. Eta astök ufea galanki eiñ ementzion.

Urdün ostalarik asto aren tokiñ ue bezelako besta asto'at jafi ementzön.

Ufango goizén, artu ostalarin astoa berea zölakön, eta motille oso alai bé etxea jün ementzan.

Esa'ementziän, bá bé aittëri ta anaiei nolako astoa zékafén. Eta ala, luñén zalduta izara aundi'at jafi ementzön, eta aren erdiñ gue asto ori, antxe ufea ein zezan.

Ei'zak ufea, esa ementzion motillek.

Baño ufeik ez ementzan azaltsen an.

Ei'zak ufea, beiz é.

Ta ufea nun eingo zön ze, izara gustie simurtu ementzön.

Geo seme bigáfena jün ementzan mofoi.

Ta urtea bete ondoenén, mai bat ema'ementzion bé nausik.

Jartzak bazkäre eo aparie esa'ezkeo, mai örek bazkäre eo aparie bertan prantatze'ementzön.

Ala bá, motill oi bé etxea zétofela, gau batén, anaie záfenäri astoa lapurtu zioén etxe artan bertan ostatuz geatu ementzan.

Ta oiakön ostalariri esa'ementzion: ez geo mai oni "jartzak bazkäre" esan.

Baño ue oia jün zan urduko, ostalarik jartzak bazkäre esa'ementzion mai öri. Ta maiek bertan bazkäre prantau ementzön.

Ta urdün ostalarik mai ue izkutau ta ue bezelakoxe beste mai bat, aren tokiñ jafi ementzön.

Ufango goizén motill arek, artu ostalarin maie berea zölakön eta aldein ementzön.

Etxea jün zanén esa'ementziän bé aittëri ta anaiei nolako maie zékafén, ta ala, mai öri, danan aufén, deadar eitte ementzion: jartzak bazkäre.

Baño maiek ez ementzön ese prantatsen.

Motill giñjion, ez da aittëkoo ta, oso triste geatu ementzan.

Geo anaie garténa jün ementzan mofoi.

Ta urtea bete zönén, bé nausik makilla'at ema'ementzion.

Makilla öfek ba ementzön adur ikusgafi'at. Bän aufén makillakixki esa'ezkeo, motill oi ez beste inguruko gustik joka txikitu beañén asté ementzan.

Ala, gue motill oi ba ementzotöfen bá etxea, eta gau batén beste anaie lapufeta ein zién etxe artan bertan ostatuz geatu ementzan.

Apalondön, lotá abítu zanén, ostalariri esa'ementzion ze: geo né makillëi ez esan "makillakixki".

—Ez, ez, eantzu 'ementzion ostalarik.

Baño ue oia jün zaneko, artu makillea eta ;makillakixki! deadar eiñ ementzion ostalarilapufek

Baitta makilla oi asten da bastar gustik txikitu beañén, danak joka, ostalarie eta etxeke beste gustik. ;Arek atá ementzön an izkimillea!

Urdün ostalarie, estu ta lafi, makillén jabeäna jün da, makilla oi geatu äzin zezan egegu eiñ ementzion.

Baño besték ezetz, eantzu'ementzion, alik eta aren anaiei lapurtutako astoa ta maie eman artén etzöla geatu äzingo makillaik.

Ta ala, ostalari pikaro arek astoa ta maie biurtu emen ziotzan.

Urdün gue motill oi bé makill, asto ta mai, etxea jün ementzan.

Andi auea danak ondo bizi ize'ementzion.

Oi ala bazan sartu deilla kalabazan.

1.2. Zer da azterketa pedagogikoa egitea?

Makilakixkiren azterketa pedagogikoa burutzeko, lehenik eta behin, Pedagogia zer den gogoratu behar da, eta esango dugu: *gizatasuna nola hezi* behar den arduratzen den zientzia dela eta, beraz, *heziketa* eta *gizatasuna* hitzen inguruan eraikitzen den zientzia dela. Funtsezkoa da jakitea, aipatu bi kontzeptu horiek ez direla berdin ulertzen eta erabiltzen garai eta lekuaren arabera, nahiz eta mundu zabaleko giza talde guztien kezka iraunkorra izan honako hau: nola hezi ahalik eta ondoen belaunaldi berriak? Galdera honi erantzuterakoan, munduari edo kosmosari aurre egiteko era ugari daudela aurkitzen dugu. Zergatik ote hau? Horra hemen erantzuna: giza talde bakoitza, behin eta berriro, berezko gizatasunetik ez urruntzeko ahaleginetan, egokientzat jotzen duten heziketa garatu eta ziurtatzen murgiltzen delako.

Pedagogiaren zeregina ulertzeko, beste hitz pare baten beharra dugu: alde batetik, *hezikuntza* eta *eskolarena*, bestetik, *hezikuntza sistema* eta *kulturarena*, hain zuzen ere (Apalategi, M.J., 1994: 29-55; Giroux, 2002; Morando, 1964; Moreno, 1980; Larrosa, 1990; Sanvisens, 1987, Speck & Wehle, 1981).

Bistan da, gizartea beti eraberritzen joaten den errealitatea dela. Belaunaldi bakoitza, aurrekoen eta bere garaikoen bizipenen artean garatzen joaten da. Gaur egun, heziketa hitza entzuterakoan, bat-batean, ikastetxearen irudia etortzen zaigu burura, gehienbat. Haurtzarotik gaztarora edo derrigorrezko heziketaz arduratzen den erakunde bezala ulertzen da. Gutxiago gara, ikastetxe hitza entzuterakoan, baita ere, lanbide-heziketarako zentroak eta Unibertsitateak irudikatzen ditugunak. Guzti hauek heziketa “formala” deitzen dugunaz arduratzen dira. Baina heziketari buruzko gogoeta sakona egiterakoan, ez da ahaztu behar, heziketa “informala” eskaintzen duten erakunde-mota desberdinak daudela eta horiek ere gogoan hartu behar dira.

Guztiok ados gaude onartzerakoan gaurko gizartearen ezau-garria, bizitza osoan zehar hezten jarraitzea dela. Heziketa, gure eguneroko errealitate bihurtu da, eta ez dago bukatzeko edo hasteko adin zein epe mugaturik.

Baina, aurrera jarraitu baino lehenago, gogoan hartu behar da, heziketa guztien arteko loturaren arrazoi bakarra, hezkuntzaren egitatea dela, gizakia sortzearekin batera agertzen den errealitatea, hain zuzen ere. Dante Morandok (1969: 15) zioen bezala, esango dugu: “Pedagogia zientziaren ahalegina, historian zehar eta une zehatzetan, giza pentsamenduak hezkuntzaren inguruan lortzen dituen lorpenak bereizi, jaso eta aztertzeam datza”. Hezkuntzaren funtsezko xedea giza egitatearen alderdi fisiko, adimenezko, hunkigarri eta etikoa osotasunean ulertu eta heztea dela esaten zuen Edgar Faurek (1981: 235).

Ez da batere erraza, nonbait, alderdi hauen arteko osotasuna eta oreka sendo bat lortzea, ikusi besterik ez baitago, gizaldi bakoitzaren arabera, alderdi horiei buruzko usteak eta balioak nola joaten diren aldatzen eta, horiekin batera, baita heziketaren inguruko praktikak ere.

Beste era batera adierazita, esan genezake hezkuntza, oro har, giza talde bakoitzaren berezkotasuna historian zehar iraun eta garatzeko, bizi az zain munduaz dituzten baloreen hierarkia eta arazo lehentasunak antolatzeke erabiltzen den errealitatea dela. Hasiera batean, ahoz-ahoz helarazten zitzairen gizatasunaren heziketa belaunaldi berriei, beti ere, giza talde bakoitzaren barruan berezko dohainak zituenaren esku uzten zelarik zeregin garrantzitsu hau. Mendeen bilakaeraren arabera, giza taldeen probetxurako, hezkuntza egokiago baten beharrak indarra hartzen du, eta honen irakaskuntza bermatu nahian, European XVI. mendetik XVIII.era bitartean lehenengo eginahalak antzematen dira, XIX.ean hedatzen hasiko dira eta XX. mendearen erditik aurrera, batik bat, eskolaren benetako sorkuntza eman zela gogoratuko dugu (Apalategi, 1994:14-15; 2000: 16-19).

Hezkuntzaren asmoak eta bere eraginaren inguruko itxaropenak gauzatzeko, mundu zabalean zehar, poliki-poliki, tokian tokiko hezkuntza sistemak antolatzen joan dira. Eta nola ez, gizartearen bilakaeraren arabera, gizatasuna, heziketa eta eskolarekin zerikusia duten aldagai guztiak ere aldatzen joaten dira: irakaslea, curriculum, ikasleak, baliabideak, gurasoak, agindu

eta arauak, etab., Estatu-nazioetako hezkuntza sistemetan eragin guzti horiek islatzen direlarik. Honen adibiderik berriena, 2001eko urtarrilaren 31n Europar Komunitateetako Batzordeak (EKB) –Comisión de las Comunidades Europeas (CCE)- (2001:1-37) ezagutzera emandako “Hezkuntza sistemen etorkizuneko helburu zehatzak” txostenean aurki ditzakegu. Bertan, Europako Estatu guztiek bat egiten dute esatean, egungo europar hezkuntzak hiru helburu nagusi lortzen lagundu behar duela:

1. Gizabanakoaren garapena lantzen, haren bizitza, bere gaitasunetan oinarrituta, zoriontsuago eta emankorragoa izan dadin.

2. Gizartearen garapena sustatzen, bereziki gizabanakoen eta taldeen artean dauden desberdintasunak txikiagoak izan daitezen.

3. Ekonomiaren garapenari eragiten, lanerako ahalmena eta enplegatzaileen arteko beharrak bat etor daitezen.

Helburu hauek lortzeko, aipatu Batzordeak dio ezinbestekoa dela benetako irakaskuntza iraunkorra egonkortzea, baina baita ere badio, horretarako hezkuntzaren eta heziketaren ohiko ezaugarri “formal”aren eta “informala”ren arteko mugak gainditzea nahi-taezko baldintza dela. Egokitzapen honi aurre egin ahal izateko, Estatu guztiek ondoko bost egiteko hauek zaindu behar dituzte:

1. *Kalitatea*

Hezkuntza eta heziketa sistemen kalitatea hobetzea, ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuak hobetuz. Honek zuzeneko eragina du, alde batetik, Irakasleen Unibertsitateko Ikasketetan, eta bestetik, lanean ari diren bitartean eskaintzen zaien heziketa-programetan eta zerbitzuen hobekuntzetan.

2. *Sarbidea*

Bizitza osoan zehar ikasten jarraitu ahal izateko, hezkuntza eta heziketaz arduratzen diren erakunde guztietan, sarbide errazagoak eta erakargarriagoak asmatu behar dira.

3. *Edukiak*

Derrigorrezko hezkuntza eta heziketa bukatzerakoan gazteek jaso dituzten oinarritzko trebetasunen inguruan, gogoeta eta berrikuspen sakon bat egitea eskatzen da, kontuan hartuz egun

onartzen diren edukietan erabat txertatu eta eguneratuta egon beharko dutela informazio eta komunikazio teknologiak.

4. Irekitasuna

Estatu guztiek azpimarratzen dute ikastetxe, heziketa zentro eta Unibertsitateek, mundura gehiago irekita egoteaz gain, hizkuntzen ikasketa eta gizarte mugikortasuna areagotu behar dutela, eta ingurunearekin dituzten harremanak gehitu eta indartu behar dituztela, irakaskuntza-ikasleriaren trebetasun maila eta lanaren arteko lotura errealagoa izan dadin.

5. Eraginkortasuna

Hezkuntza sistemek banatzen dituzten zerbitzu guztien kalitatea etengabe ebaluatu behar da, erabiltzen diren giza eta diru baliabideen eraginkortasuna ziurtatzeko.

Aipatu Batzordeak, bestalde, ezagunak diren hainbat txosten eta ekintza jarri ditu martxan (EKB-CCE, 2001:24-27, www.es.eun.org), hala nola:

1. Europar Komunitateen arteko mugikortasuna (2000-1-21)
2. Hizkuntzen europar urtea 2001 (2000-1-24)
3. e-Learnig edo ikasketa elektronikoa (2000-5-24)
4. Eskola heziketaren kalitateari buruzko europar txostena (2000ko maiatza)
5. Irakaskuntza iraunkorraren memoranduna (2000-10-30)

Ondoko hiru txosten hauek noiz argitaratuak izan ziren jakiteko, Europar Elkarteko hezkuntzaren *web*-orrira jo daiteke:

- Hezkuntzaren kalitatearen ebaluaketa.
- Enplegu politiken koordinaketa
- Irakaskuntza iraunkorra eta informazioaren gizarterako adierazleak

Dena den, garbi gera bedi, garai guztietan giza taldeek –izan daitezela nazioak edo estatuak–, ustez hobea izango litzatekeen gizarte bat lortzen lagun dezala eskatzen diola hezkuntzari. Eta euskaldunak garen aldetik, bereziki, ez dezagun ahaztu, zer gizarte eredia dagoen oraintxe bertan jokoan Europa mailan, hots:

“munduko ezagutza lehiakor eta dinamikoenean oinarritutako ekonomia sustatzea, zeina enplegu eta giza kohesio gehiagorekin eta hobeagorekin era euskarri batean ekonomikoki hazteko gai izango baita” (CCE-EKB, 2001:4).

Pedagogiaren lan eremua zertan den azaldu dugun arren, agian, oraindik ere, hasieran uste baino nahasiagoa da *Makila-kixki* ipuinaren azterketa pedagogikoa zer den eta zertarako balio dezakeen ulertzea. Ahalegin honetan jarraituz, oraingoan, Pedagogiaren gaurko egoeraren arrazoiak, gure ustez zeintzuk diren, labur-labur, argitzen saiatuko gara.

1.3. Pedagogiaren bilakaera zientifikoarekin kezkatu

Nahiz eta zaila izan ulertzeko, ia guztiok bat egiten dugu onartzerakoan hezkuntzaren izatea bikoitza dela, alde batetik, giza bizitzaren mugagabetasuna adierazten duelako, bestetik, errealitate hori zintzelatzen ahalegintzen delako.

Baina guri benetan zaila egiten zaiguna ulertzea eta asko kezkatzen gaituena beste hau da: Pedagogia, oraindik ere, ez dela behar den bezalako zientzia izatera iritsi ikustea, alegia. Eta ezbehar honen arrazoi nagusiak aspaldikoa dirudi. Piagetek (1975: 9-34) idatzita utzi zuenez, hori gertatzen da, “enpirismoan eta ohi-kuntzan murgildurik jarraitzen duelako” eta, bere ustez, “beste edozein zientzian gertatzen den bezala, inongo berrikuntzarik ezingo da espero izan hezkuntza eta heziketaren eremuetan, Pedagogia zientzia indartsu biurtzen ez den bitartean”.

Zergatik mantentzen ote da oraindik ere egoera hau Pedagogia zientzian?, galdetzen dugu behin eta berriro. Batzuek diote, agian, aurkikuntza berriek sortarazten dituzten aginduak bete gabe uzteko beldurreratik dela; baina guk honi erantzuten diogu esanez, medikuntza zientifikoak ezagutza ematen dituen hainbat eta hainbat agindu, ez direla betetzen edo ez direla berdindu betetzen herrialde guztietan, eta hala eta guztiz ere, horregatik ikertzen jarraitzen duela. Bestalde, egia da Osasun Ministeritzak ez direla sartzen ezagutza medikuaren eremuan eta,

ondorioz, ikerketa autonomoak nahiz Estatuak bultzatutakoak egin direla. Medikuntza zientzia bat badagoela onartzen delako gertatzen da hori. Gure ustez, gaur egun, haur hezkuntzan, lehen eta bigarren hezkuntzan zein lanbide eskoletan diharduten ikastetxe publiko zein pribatuak irakasleek Unibertsitateko ikasketetan zehar hezkuntza zientzietan, batik bat, jasotzen duten gutxiegiako prestakuntza da Pedagogiaren bilakaera zientifikoaren ezintasunaren isla nagusia. Zoritxarrez, oraindik ere, hezkuntzaren printzipio eta hauen ezarpenen inguruko erabakiak Hezkuntza Ministeritzetako funtzionarioek hartzen dituzte eta, gehienetan, irakasleria hauen menpe sentitzen da, bere kabuz ezer gutxi egin dezakeelarik.

Europako hezkuntzaren historiari itzulitxo bat egin ezker, 1935etik 1965era bitartean ikus daiteke irakaskuntza publikoaren aurrerapen kualitatiboa izugarria izan zela. Berrogei urte geroago (1965-2005), oraindik ere, ez dugu uste ongi antolatuta dauden hezkuntza zientziak, ez behar duten komunitate zientifikoaren aldetik, ezta ikerketa egitura eta langaien aldetik ere.

XX. mendean zehar eskolatzea hedatzen joan zen, 1935-1965 epealdian, bereziki, eta Haurtzararen Psikologia eta Soziologia zientziak oparoak izan ziren. Baina Pedagogia zientzia, beste bien aldean, oso atzera gelditu zen. Geroztik, beste bi epealdi txanda bereiz daitezke, bata 1965-1995 bitartekoa eta geroztik bizi duguna bestea.

Gaur esan daiteke, Pedagogia zientifikoren corpusa oso ezberdin antolatua dagoela Europan zehar, naiz eta, herrialde gehienetan irakaskuntza publikoa Hezkuntza Ministeritzaren eta politikarien erabakien esku egon. Aldiz, irakaskuntza pribatua hartzen diren erabakiek, Estatu edo lurralde berekoak izanda ere, jatorri askotakoak izaten dira. Bestalde, gogoratuko dugu, irakaskuntza publiko eta pribatuaren eskaintza %etan asko aldatzen dela Estatuaren arabera; baina Europa osoa erabili ezker alderaketa egiteko, bi sareen arteko aukerak, kopuruetan, oso sendo irauten duela ikus daiteke.

Nolanahi ere, gizarteak hezkuntzari, ikastetxe motez egon daitekeen eztabaidaren gainetik, bi xede hauek lortzea eskatzen dizkio:

1. Hizkuntza, ohitura, sinesmen eta balioen arteko heziketa. Ezaugarri hauek norberaren, familiaren eta gizartearen batbaterako jardueretan islatzen dira.
2. Beste helburuak, belaunaldi batetik bestera dagoen eraldapenerako gaitasuna aztertzetik sortzen diren multzokoak dira: eztabaidarako trebetasuna, esku hartzeko esku-bidea, eta abar.

Ekintza guzti hauen garapena bermatzeko, gizarteek hezkuntza sistemak eta eskolak antolatzen dituzte eta hauen egonkortasuna eta berrikuntza ziurtatzeko lan egiten du Pedagogiak.

Pedagogia zientifikoak, hezkuntza eta heziketarako komeni diren helburuak aztertzen ditu. Baina zeintzuk izan behar duten erabakitzeko orduan, ezin da inola ere erabaki Soziologiaren ekarpenak kontuan izan gabe, eta hau, askotan, badirudi ez dela ongi ulertzen, Pedagogia zientifikoaren kaltetan. Helburuen aldeko jakineko aukeraketa edo itxurazkoa egiten denean, edozein mailatan, oinarrian, beti, soziologi lege batzuei erantzuten zaie, hala- hola: a) hezkuntza-agintariek edo politikariek hezkuntza sistema eta hezkuntza legeak indarrean jartzeko erabiltzen dituzten arrazoiak atzematerakoan, edo b) agerian ez dauden beste arrazoi ekonomikoak, teknikoak, moralak, intelektualak, etab. aurkitzerakoan.

Bestalde, uste dugu, Pedagogia esperimentalak Pedagogia zientifikoak baino argiago duela bere ikergaia, hots: irakas programa eta metodoen azterketa egitea, hain zuzen ere. Eta egoera honen arrazoi nagusia, guretzat, hasieratik Psikologiaren iker-gaitik ongi bereizi zelako da.

Pedagogia esperimentalak, hezkuntzaren funtsezko giza egitatearen alderdiak hezteko, haurrak eta gizabanakoak nola hezi eta antolatu behar diren ikertzen du. Bistan da, Psikologiaren iker eremuko den haurraren edo gizabanakoaren ezaugarri jatorrizkoei zein orokorreki eta adimenaren inguruko ekarpenei ezin diela muzin egin; aitzitik, nahitaez ezagutu beharrekoak ditu.

Gauzak horrela, benetako Pedagogia experimentalaren egiten duten ikerlariak, diharduten prozesu pedagogikoen garapenen ondorioak aztertzen dituzte eta, bere eginez, ez dira inoiz alden-du garapenaren psikologiak, ikaskuntzaren psikologiak eta adimenaren psikologi orokorraren ekarpenetatik.

Benetako zientzia bat eraikitzea bada jokoan dagoena, azalpenak eman ditzakeen zientzia bat eraiki behar da, ez da nahikoa deskribatzailea izatea; horrexegatik, zientzia guztietan gertatzen den bezala, diziplinarteko ikerketak nahitaezkoak dira. Ikuspegi hau aspaldiko defentsa izan arren, gure ustez, oraindik ere, ez da behar adina praktikan jartzen.

Gure zeregina den *Makilakixki*-ren azterketa pedagogikoen oinarri zientifikoa zein den hobeto ulertzeko, Pedagogia experimentalaren zenbait ikerketa-gai ezagun aipatuko ditugu jarraian:

Curriculumaren eta Irakaskuntza programen ikerketak

- Irakasgai batzuk funtsezkoak direla baieztatzen da, behin eta berriro, baina non daude argudio eta frogak?
- Zertan oinarritzen da *curriculum* baten aukeraketa?
- Zein dira irakas maila eta plan bakoitzean indarrean jartzen diren *curriculumaren* funtsezko irizpideak?
- Zertan oinarritzen da ikas orduen banaketa bat edo bestea egitea?
- (...)

Metodo didaktikoen ikerketa

- Adinaren, taldearen, gaiaren, denboraren, lekuaren, bitartekoen eta abar luze baten arabera, ageri da metodo didaktiko ezberdinak daudela heziketa hobeto burutzeko; beraz, Pedagogia experimentalaren zeregina da irakas egoera bakoitzean zein metodo hobetsi behar den erabakitzea.

Irakaskuntza errendimenduaren ingurukoak

Metodo pedagogikoen errendimendu kontrolak eta hezkuntza tekniken ondorioak aztertzen dira ikerketa hauetan, puntu hauek harrotuz:

- Zer gertatzen da eskolan jasotako ezagutzekin handik 5, 10 edo 25 urtetara populazioko talde ezberdinetan?
- Zer geratu zaio eskolatik pasatu den baserritar, mediku, dendari, nekazari, kirolari, abokatu edo dena delakoari, bere bizitzan zehar, garai batean ikasitako Geografia, Historia, Matematika edo Hizkuntza haietatik?
- Nola lagunduko dute Informazio eta Komunikazioko Teknologiek irakaskuntzan?
- (...)

Irakurketarako metodoen ikerketa lerroa

- Nola ikasten ote da hobeto irakurtzen? Betiko eztabaida da, zein ote den irakurtzen erakusteko dagoen metodorik onena: “metodo analitikoa” edo ohikoa, hau da, letrak, hitzak, esaldiak erabiltzen dituen, ala Psikologia esperimentalak aurkitutako *gestalts*-en oinarritutako “metodo globala”, edo agian jokoan eta adiera mailetan oinarritzen den metodoa.

Hizkuntzak erakusteko metodoak

(...)

Laburbilduz, esango duguna da, Pedagogia zientifikoaren eta esperimentalaren aztergaien zerrenda oso emankorra dela, ia-ia mugagabea dela esan daiteke, hezkuntza eta heziketa errealitateak diren neurri berean. Honexegatik kezkatzen gaitu Pedagogia zientziaren gaur-gaurko egoerak. Eta gure ustez, konponbide bakarra, hezkuntza agintariei ezagutza pedagogikoaren manupean sartzen eta uztetik dator. Hau hala gerta dadin, Unibertsitatetik eta hezkuntzaren ikerketa zentroetatik apustu ausarta bat egin behar da, hezkuntzaren zientzia bat izan, badelako, non bere ikerketak, autonomoetan eta beste zientzietan bezala (medikuntzan adibidez), diru publiko zein pribatuarekin finantzatuak izan beharko bailukete. Baina hau horrela antolatzen ez den bitartean, jai dauka Pedagogia zientziak. Guk aspaldi egin genuen Pedagogia zientziaren aldeko apustua, eta gaurkoz, naiz eta kezkatu

egoteko arrazoiak egon, haren alde jarraitzen dugu lanean. Azaldu apustuaren isla da, hemen eraikitzen ari garen *Makilakixki* ipuinaren azterketa pedagogikoa.

1.4. Makilakixki pedagogia zientifiko eta esperimentalaren argitan

Pedagogiaren bilakaera ezagutu ondoren errazagoa da, *Makilakixki* ipuinaren azterketa pedagogikoa egitea, Pedagogia zientziaren argitan egitea, hau da, alde batetik Pedagogia zientifikoaren ikuspegitik eta, bestetik, Pedagogia esperimentalarenetik, beti ere, zentzumen arrunta, bat-batekotasuna nahiz sor dezakeen sentiberatasuna alde batera utziz.

Ipuin guztiak, gizatasuna hezteko erabiltzen diren neurrian, Pedagogia zientifikoaren aztergai dira. Ipuinak, hezkuntzari eta heziketari eskatzen zaizkien helburuak lantzeko oso egokiak dira (Bettelheim, 1982, 1984). Gorago esanak gaude, gizarteak hezkuntzari bi motako xedeak betetzea eskatzen diola; batzuek hizkuntzak, ohiturak, sinesmena, familia zein norberaren jarduerak ulertu eta sentitzeko balio behar dute eta hauek gizabanako zein giza taldearen alderdi iraunkorren ezaugarriak osatzen dituzten multzoan aurkitzen dira; besteak, berriz, belaunaldien arteko lokarri diren giza ekintzetan esku hartzeko duten eskubidea hezteko balio beharko luketenak dira.

Bainan aipatu helburu horien heziketak ez du baliorik izango, baldin onartzen ez bada, Bettelheimekin (1984:10) esanda, “haur baten hezkuntzaren zereginik zailena eta, aldi berean, garrantzitsuena, biziari zentzua aurkitzen laguntzea dela”. Zentzu hori lortzeko, haurrak bere garapenean zehar, esperientzia ugari edukitzea eskatzen du, eta hauen bitartez, beregan ardaztutako biziaren mugak gaingitzen ikasiko du. Lorpen honek, ongi sentiaraztera eramaten du gizabanakoa, bai norberarekin bai egiten ari denarekin ere. Biziaren zentzua eskuratze horretan, haurrak biziaren gurari menpe ez egoten ikasi behar du eta honetarako, bere barneko balia bideak garatzen ikasi behar du, bere-bereak

diren emozio, irudimena eta adimena haiengan babestuz, elkar aberastu daitezten. Ipuin klasikoak orokorrean, eta beraz *Makilakixki* ipuinak, asko lagundu dezake garapen horretan.

Pedagogia esperimentalaren bitartez, hezkuntzaren funtsezko giza egitatearen alderdiak hezteko, haurrak edo gizabanakoak nola hezi eta antolatu behar diren ikertzea dela diogu, prozesu pedagogikoen garapenak ikertuz, hain zuzen ere. Ipuinak, printzipioz, giza-garapenean eragin zuzena duten neurrian, Pedagogia esperimentalaren aztergai garrantzitsuak dira.

Baieztapen hau frogatzeko, euskal irakaskuntzaren barne, *Makilakixki* ipuinaren azterketa pedagogiko-zientifiko eta esperimentalala nola aztertzen den eta zertan gauzatu den agertuko dugu ondoren.

1.5. Makilakixki-ren erabilera pedagogikoa argitalpenen bidez

1980ko hamarkadatik aurrera ezagutu zuen *Makilakixki* ipuinak lehenengo argitalpen eta erabilera pedagogikoa, Ikastolatan hasi eta D ereduko ikastetxeetara zabalduz joan zelarik. Beraz, esan daiteke geroztik jaio eta euskarazko irakaskuntzan murgildu diren belaunaldiek eskolaren bitartez ezagutu dutela ipuin hau, andereño eta irakasleen eskutik, ia betidanik.

Makilakixki ipuinaren erabilera pedagogikoa hainbat argitalpen euskarriren eskutik egin da eta egiten jarraitzen du. Hiru liburuska argitaratu dira, bideo bat eta Cdrom bat, hain zuzen ere.

Makilakixki ipuinaren lehenengo argitalpena 1982koa da. Joexemiel Barandiarenek 1921ean, Felipe Apalategi ataundarrari, gure aittejaunari, atauneraz kontatu eta jaso ziola badakigu. Sagra rio Yarnoz iruindarrak egin zuen euskara batuzko lehenengo egokitzapena Elkar-entzat eta marrazkiak, berriz, Jesus Lucas-enak dira. Geroztik ezagutzen ditugun argitalpen guztietan, idatzizkoak zein Cdromekoak izan, eta betidanik Elkarlanean-en eskutik argitaratutakoak izan, deigarriak iruditu zaizkigu ondorengo bi puntu hauek: a) guztietan ez dela marrazki berdin-berdina era-

biltzen, nahiz eta marrazkilaria beti bera izan; b) guztietan ez dela euskara berdin egokituta agertzen; are gehiago, Elkarlanean-eko Mari Saileko alean ez dator euskararen moldaketaz arduratu denaren izena, eta moldaketa hau ez da Axut Sailekoaren berbera, edota Ikastolen Elkarteko Urtxintxa proiektuko *Makilakixki*-ren moldatzailea Joxan Ormazabal da, eta hemen ere ipuina beste era batera moldatua agertzen da.

Orokorrean hori esanda, banan-banako bilakaera nolakoa izan den agertuko dugu ondoren.

Lehenengo ipuin idatzia, koloretako irudiekin batera Elkar argitaletxearen eskutik sortzen da Axut sailaren barruan

Aipatu berri duguna kontuan hartuta, esan beharra dago, Mikel Prieto, Gipuzkoako “Arantzazuko Ama” ikastolako irakaslea izan zela, 5 urteko haurren euskara maila eta irakaskuntzaren bidez euskalduntzen ari ziren adin bereko haurren maila behatzeko premia ezagututa, ipuin hau *sistemaz* lantzen hasi zen lehenengo irakaslea. Euskalduntzen ari ziren haurren akatsak gainditzea zen bere asmoa. Irakasle hau izan zen, *Makilakixki* ipuin honetan oinarrituta, euskara proben ideia eta lehen diseinua egin zituena. 1983-1984 ikasturteetik hasita, “Pasaia” lizeoko Amaia Mendizabalekin batera, probak prestatu eta erabili zituzten bi ikastoletan.

“Haurtxoa” proiektua (Ikastolen Elkarte, 1983) zabaltzen ari zen neurrian, euskararen jabeakuntza ebaluatzeko probaren beharra ere gero eta larriagoa gertatu zen. Zazpi urtetan zehar, *Makilakixki* proba osatzen joan ziren: aurkitutako akatsak zuzentzen; ezarpenerako jarraibideak argitzen.

Ipuineko esaldiak, galderak, zuzenketarako argibideak, puntuazioak jasotzeko orriak egokitzen eta abar. Prozesu horren ondorioa, 1989-1990 ikasturterako prestatu zen “Makilakixki. Euskara proba” da (Prieto & Mendizabal, 1989). Proba hau pasatzeko eta datuak jasotzeko ondorengo materialak behar ziren:

a) Elkar argitaletxeko, Axut Saileko, 2. alea zen *Makilakixki* ipuinaren irudiak.


b) *Makilakixki* ipuinaren euskara probarako gidaliburua, ondoko atal hauetan antolatua: 1. Helburuak, edukiak eta materiala; 2. Probaren jarraipideak; 3. Ipuinaren irudiak; 4.

Ipuineko esaldiak; 5. Ipuinaren galderak; 6. Zuzenketarako argibideak, eta 7. Emaitzen orriak. Haur Hezkuntzako hirugarren mailako haurrek, ikasgela mailen arabera zein bakarka, ikasturte hasieran eta bukaeran lortu dituzten euskara emaitzak jasotzeko orri hauetan, ipuina erabiliz landu behar deneko hizkuntzaren 36 alderdiz osatutako ikuspegi orokorrara jasotzen da. Ondoko irudian agertzen da gidaliburu honen azala.

Proba honen asmoa, ez zen euskararen erabilpena bere osotasunean neurtzea, egileen (Prieto & Mendizabal, 1989: 3) hitzetan, beste hau baino: “Ipuin batean oinarritutako hizkuntza proba batek eta ipuin horren inguruan egin daitekeen galderen erantzunek, hizkuntza batek dituen erabilpen guztien artetik batzuk besterik ez ditu eragiten”.

Bigarren argitalpena berriz Elkarlanean argitaletxeak egingo duen ipuina dugu

1998an, beste bederatzi ipuinekin batera, “Mari” saila osatzen duen bilduman aurkitu daiteke argitaratua *Makilakixki*. Hona hemen ipuin honen aurreko eta atzeko azalak:



Ikastoletan ez ezik, D ereduko ikastetxe publiko eta pribatuetan erabili ohi den euskara proba ezaguna da *Makilakixki* ipuina. Adibide moduan gogoratuko dugu:

1. Egun Seaska-ko ikastoletan “*Makilakixki* euskara proba”k indarrean jarraitzen duela. Bertako orientatzailea den Alazne Petuyak agertu digun bezala: “Haur Hezkuntzako azken ikasturteko, 5-6 urteko haurrei, ikasurte haseran eta bukaeran, ikasgela mailan zein banaka pasatzen diegun proba da”. Laburdi, Zuberoa eta Nafarroa Behereko ikastoletako haurrei banan-banan pasatu ahal izateko, horretarako persona bat hartzen dute.
2. Iruñeko Mendillori auzoko Elorri eta Mendigoiti D ereduetako ikastetxe publikoetan egun orientatzailea den Izaskun Iturri Garateren eskutik lortu ditugu datuak: lehen aipatu dugun “*Makilakixki* Euskara proba”; 1998ko “Mari” saileko *Makilakixki* ipuinaren alea, euskara lan-tzeko egokitua; eta baita ere, hasieran aipatu dugun Iruñeko Udalaren 2003-2004 ikasturterako “Irakurtzea sustatzeko udalaren hezkuntza-programa”.

Aurrera jarraitu aurretik, nere eskerrik beroenak eman nahi dizkiet, Alazne eta Izaskuni eskaini didaten arretagatik.

Ondoren Iruñeko bi ikastetxe horietan erabili duten *Makilakixki* ipuin egokitua irduitan ekarriko dugu, bere erabilera didaktikoa adierazteko ezin hobea iruditzen zaigulako. (Elkarlanean, 1998: argazkiak eta testua). Gauzak horrela, *Makilakixki* liburuxka honetako 16 irudiak, haur bakoitzarekin euskara lan-tzeko testu egokituarekin batera, 1etik 16ra sailkatuta agertzen dira, eta hauen azpian datorren testua, “Mari” saileko ipuinaren arabera, irudi bakoitzari dagokion jatorrizko testua da.

MAKILAKIKKI



ELKARLANEAN

MARI saila euskal ipuin herrikoen bilduma da. Ipuin hauek, hamar guztira, ahozko tradizioan oinarritutakoak dira, Joxe Migel Barandiaranek *El mundo en la mente popular vasca* liburuan jasotakoak.


Bilduma hau hurrei zuzendurik dagoenez, testuaren egokitze lan bat beharrezkoa zen, eta lan hori Sagrario Yarnoz eta Joxan Ormazabal-en esku egon da.

Begi-bistakoa da ipuinei bizia ematen dieten marrazkien kalitatea. Jesus Lucas da beraien egilea.

Bihoazkio gure eskerrik beroenak Donostiako Ekintza ikastetxeari, zuzen-zuzenean parte hartu baitzuen proiektu honen sorreran.

ELKARLANEAN

1. Irudia eta testuak



4. - IPUINEKO ESALDIAK

1.- Etxe batean gizon bat bizi zen. Gizon honek (aita seinalatu) hiru seme zituen: handiena Karitz, ertaina Mikel eta txikiena Beñat. (seinalatu)

MIKELI eta BEÑAT.

M

unduan asko bezala, mendiko etxe batean, gizon zahar bat bizi zen. Gizon hark hiru Aritz, Mikel eta Beñat.

2. Irudia eta testuak



2. Haritz zaharrena zelako kanpora Joan zen lan egiterareta bere anaiak baterian gelditu ziren aitarekin.

Seme zaharrena
behar zituela erabaki
eta mendi handiak
zabalak igaro ere.


Azkenean, bizirik
asperturik, morroi
batean.



seme zaharrenak, Aritzek, bazterrak ikusi behar zituela erabaki zuen. Etxetik irten zen eta mendi handiak igo zituen; baita itsaso zabalak igaro ere.

Azkenean, bizimodu hartaz asperturik, morroi sartu zen etxe batean.

3. Irudia eta testuak



ogor egin zuen lan. Goizean goiz jaiki eta ardiekin mendira joaten zen. Egun osoan artzain ibili ondoren, gauerako etxera itzultzen zen.

Oso artzain ona zen Aritz. Nagusia pozik zegoen berarekin. Eta urtea pasa ondoren, asto bat eman zion. Baina ez zen asto arrunt bat. Hari “egin urrea” esanez gero, urre egiten zuen.

4. Irudia eta testuak

Asto berezi hura etxekoiei erakutsi behar zuela pentsatu zuen gure Aritzek. Beraz, nagusiari baimena eskatu eta etxerako bidea hartu zuen.

Egun osoa pasa zuen eta, gaua heldu zenean, osattu batean sartu zen lo egitera.

-Gabon! -esan zion ostalariari.

-Baita zuri ere!

-Gaua pasatzeko ohe bat emango al didazu?

-Bai, bai, emango dizut -esan zion ostalariak.

Ohera joan baino lehen, Aritzek hau esan zion ostalariari:

-Ez iezaiozu, mesedez, nire astoari "egin ezak urrea" esan.

-Ez, ez diot esango -erantzu zion ostalariak.



ziela pentsatu zuen gure Aritzek. Beraz, nagusiari baimena eskatu eta etxerako bidea hartu zuen.

Egun osoa pasa zuen eta, gaua heldu zenean, osattu batean sartu zen lo egitera.

-Gabon! -esan zion ostalariari.

-Baita zuri ere!

-Gaua pasatzeko ohe bat emango al didazu?

-Bai, bai, emango dizut -esan zion ostalariak.


Ohera joan baino lehen, Aritzek hau

Esan zion ostalariari:

-Ez iezaiozu, mesedez, nire astoari "egin ezak urrea" esan.

-Ez, ez diot esango -erantzu zion ostalariak

5. Irudia eta testuak



B

aina Aritz oheratu zenean, ostalaria joan zen astoa zegoen tokira eta honela esan zion:

-Egia ezak urrea.

Eta astoak urre asko egin zuen. Ostalariak Pentsatu zuen: “Asto honekin diru asko irabaziko dut. Neuretzat hartu behar dut. Eta gure asto zaharra utziko dut bere lekuan”.

6. Irudia eta testuak



H

urrengo gozean, Aritz esantu zen, eta
Aurpegia garbitu eta gosaldu ondoren, etxera
joan zen ostalariaren asto zaharra hartuta.

Etxean sartu orduko oihuka hasi zen:

-Aita, Mikel, Beñat! Urrea egiten duen
astoa ekarri dut!

Denek ikusi nahi zuten asto miresgarri
Hura. Lurrean maindire bat jarri zuten eta
Aritzek esan zion astoari:

-Egin urrea!

Mila aldiz urrea egiteko esan arren, urrerik
Ez zen han azaldu, kaka pilo galanta baizik.
Maidire guztia zikin-zikin eginda
Utzi zuen asto zaharrak.

7. Irudia eta testuak



7. - Mendik egun gutxiro. Mikel, bigarren esola,
etartik, kapora joan zen lino egiteko. Arrotzagi bitan aritu
zen. Inanek, Nagusia, jar arto egin zuelako, ez zabal, bat
nahi zuen galduta zion. Nahai bori, ez zen onabazina,
bera beharrik bazakaria jarzen best gure.

ndira joaten zen
mendian pasa
en zen etxera.
Mikel, Nagusia
in eta
doren,

Oso mahai berezia zen hura. -jar
ezak bazkaria- esanez gero, mahaiak
bazkaria edo afaria prestatzen zuen.



H


andik urte batzuetara bigarren semea ere, Mikel, morroi joan zen.

Honek ere gogor lan egin behar izan zune. Goizean goiz jaiki eta mendietara joaten zen egur biltzera. Egun osoa mendian pasa ondoren, gauerako etrotzen zen etxera.

Oso mutil zintzio zen Mikel. Nagusia oso pozik zegoen berarekin eta horregatik, urtea pasa ondoren, mahai bat eman zion.

Oso mahia berezia zen hura. “Jar ezak bazkaria” esanez gero, mahaiak bazkaria edo afaria prestatzen zuen.

8. Irudia eta testuak



Mahaia hartu eta etxekoei erakutsi behar zuela pentsatu zuen Mikelek. Beraz, nagusiari baimena eskatu eta etxerako bidea hartu zuen.

Egun osoan ibili ondoren, gaua heldu zenean, ostatu batean sartu zen lo egitera. Ostalari lapurraren etxea zen.

-Gabon! -esan zion Mikelek ostalariari.

-Baita zuri ere!

-Gaua pasatzeko ohe bat emango al didazu?

-Bai, bai, emango dizut -esan zion ostalariak.


Ohera joan baino lehen zera esan zion

Mikelek ostalariari:

Ez ieiozu, mesedez, nire mahaiari "jarzak bazkaria" esan.

-Ez, ez diot esango -agindu zion ostalariak.

9. Irudia eta testuak



B


aina Mikal oheratu zenean, ostalaria joan zen mahaia zegoen tokira eta honela esan zion:

-Jar ezak bazkaria!

Eta mahaia bazkari eder bat prestatu zuen. Ostalariak pentsatu zuen: "Mahai honekin diru asko irabaziko dut. Mahai hau lapurtu eta sukaldekoa jarriko dut bere ordeztu".

Eta halaxe egin zuen.

10. Irudia eta testuak



urrungo goizean Mikel esnatu zen, eta aurpegia garbitu eta gosal ondoren, ostalaria- ren sukaldeko mahaia hartu eta etxera joan zen.

Etxean sartu bezain azkar, bere aita eta anaiei deika hasi zen.

-Aita, Aritz, Beñat. Begira nolako mahia ekarri dudan!

Eta dene aurrean “jar ezak bazkaria” esan zion mahaiari.

Baina alfer-alferrik izan zen guztia. “Jar ezak bazkaria” eta “jar ezak bazkaria” ohikatzen zion Mikelek, baina mahai gainean ez zen ezer gertatzen.

11. Irudia eta testuak



11. Handik egun batuetara. Beñat, auzi taldeko kantuak jarduera zuzen lan egiteko eta behiak behintzen dituen lan oso jaizkoak, nagusiak eta makila bat hazi lan egiteko. Makila hazi lan oso jaizkoak, egindako gero, bera behintzen dituen bat zuten.

i batean morroi jarri

o egiten zuten Beñatek.
zen eta behiak larrera
behintzat belarra
ten zuten zelaietan. Egun
oren, gauean etxera

Nagusia oso pozik zegoen Beñatekin.
Horregatik, urte bete pasa ondoren,
makila bat erregalatu zion.

Makila haren aurrean "makilakixki" esanez gero, mugitzen hasten zen eta inguruan zeuden pertsona guztiak jotzen.




ta, azkenik, Beñat joan zen etxetik kanpora lanera. Baserri batean morroi jarri zen.

Etxe hartan lan asko egiten zuten Beñatek. Goizean goiz jaikitzen zen eta behiak larrera ateratzen zituen. Gero behintzat belarra ebaki eta biltzen jarduten zuten zelaietan. Egun osoz lanean aritu ondoren, gauean etxera itzultzen zen.

Nagusia oso pozik zegoen Beñatekin. Horregatik, urte bete pasa ondoren, makila bat erregalatu zion.

Makila haren aurrean "makilakixki" esanez gero, mugitzen hasten zen eta inguruan zeuden pertsona guztiak jotzen.

12. Irudia eta testuak



Beñatek nagusiari eskerrak eman eta etxerako bidean jarri zen. Egun osoa bidean pasa zuen eta, ilundu zuenean, lo egitera ostatu batean sartu zen.

Ostatu hartan astoa eta mahaia lapurtu zituen gizona bizi zen.

-Gabon! -esan zion Beñatek.

-Baita zuri ere! -erantzun zion ostalariak.

-Gaua pasatzeko ohe bat emango al didazu?


-Bai, bai, emango dizut -esan zion ostalariak.

Ohera joan baino lehen, Beñatek esan zion ostalariari:

-Ez iezaiozu nire makilari “makilakixki” esan.

-Ez, ez diot esango agindu zion ostalariak.

13. Irudia eta testuak



B

aina Beñat oheratuzenean. Ostalaria joan zen Makila zegoen tokira eta “makilakixki” esan zion.

Orduan makila joka hasi zen. Hartu zituen bizkarreko ederrak ostalari lapurrak. Oihuka hasi zen ostalaria, Beñati deika:

-Mesedez, geldu ezazu makila! -eskatu zion

14. Irudia eta testuak



-Ez, ez dut makila geldituko nire anaiei
lapurtu dizkiezunak ematen ez badizkidazu

14. - Ostalariak negarrez eta oihuka esaten zuten:
- Mesedez, gelditu makila hau!
Baita, salaparta horiekin ematu egin zen eta honek
esan zion ostalariari:
- Bai, bai, dena emango dizut, baina gelditu makila
hau, mesedez.
Orduan, Beatek, gelditu egin zuen makila.

zen zuen bitartean,
i guztiak hausten hasi
nahaiaak...
tia itzuliko dizut, baina
akila madarikatu hau!
ikila gelditu egin zuen.



z, ez dut makila geldituko nire anaiei
lapurtu dizkiezunak ematen ez
badizkidazu -esan zion.

-Nik ez dizkiet ezer lapurtu -esan zuen gezu-
rra ostalariak.

-Bai, astoa eta mahaia kendu dizkiezu.

Makila, ostalaria jotzen zuen bitartean,
Inguruan zeuden gauza guztiak hausten hasi
zen: basoak, platerak, mahaiaak...

-Ai, lapurtutako guztia emango itzuliko
dizut, baina geldi ezazu mesedez makila
madarikatu hau!

15. Irudia eta testuak




H

urrengo goizean, aurpegia garbitu eta gosaldu ondoren, astoa, mahaia eta makila hartu zituen Beñatek. Oso pozik joan zen etxera astoa aurretik zuela.

Etxean sartzearekin batera, bere aita eta anaiei deika hasi zen.

-Aita, Aritz, Mikel! Etorri hona, begira zer ekarri dudan!

16. Irudia eta testuak



Denak bildu ziren Beñaten inguruan eta, ostalariak lapurtutako gauzak ekarri zituela ikusi zutenean, oso pozik jarri ziren.

Aritzi bere astoa eman zion, Mikeli mahaia, eta Beñat makilarekin gelditu zen.

Handik aurrera denak oso ondo bizi izan ziren.

Hori hala ez bazan, sar dadila kalabazan.

Urtxintxa proiektua

Haur Hezkuntzako haurrekin euskara lantzeko Euskal Herriko Ikastolen Elkartearen materiala da. *Makilakixki* ipuina, 5 urteko haurrekin, ikasturtearen 2. hiruhilabeteen lantzeko erabiltzen den lau ipuinetako lehenengoa da; bostgarrena, berriz, bilduma mailan:

- *Makilakixki*
- Ziripot eta Miel Otxin
- Ahatetxo itxusia
- Erraldoi berekoia

Ipuin hau, dagoeneko oso argitalpen fin eta landua dela aitortu behar da, 10 irudi eta testu ditu, baina irudi bakoitzaren azpian haurrekin euskara maila probatzeko gomendioak datoz eta ipuinaren atzekaldean, abesti sorta bat, *Makilakixki* abestia barne delarik. Gorago aipatu dugun bezala marrazkien egilea Jesús Lucas da eta ipuinaren moldatzailea, Joxan Ormazabal.


Makilakixki ipuinaren Bideoa

“Euskal ipuinak” izeneko bideo bilduman ere, beste lau ipuinekin batera, *Makilakixki* ipuina 1989. urtean argitaratuta aurkitzen dugu:

- Tartalo
- Patxi errementaria
- *Makilakixki*
- Gizon harrigarriak

Makilakixki ipuina, CD interaktiboan

Bideoa, ipuina eta jokoak ditu lantzeko. Hau da bere azala:



2. Ondorio pedagogikoen garaia

Ipuin ikerlariek (Bettelheim, 1975, 1981, 1984; Perrot, 1993; Ruiz Huici, 2003) diote ipuinak izaki bizidunak direla, pertsonaiak ere biziak direlako. Hala, *Tartalo*, *Lamia*, *Sorgina*, *Basa-jaua*, *Mari*, *San Martin Txiki*, *Torto*, *Kixmi*, *Otsoko*, *Makilakixki*, eta abar. Gainera, ipuin mitologiko zein gainerako ipuinetako pertsonaiak, arreta jartzen duen edonorengan bizi daitezkeela gogoratzen dute. Antza denez, ipuinak, jende batzuen belarrietara bakarrik iristen omen dira; beraz, ez bazara gogotsu hurbiltzen haietara, ezkutatu egiten direla, diote. Atau herrian bertan, betidanik esan izan da: “Jentilek direnik ez da sinistu behar, baina ez direla ez da esan behar”.

Bestalde, ipuinek giza taldeen antropologia, soziologia, psikologia, literatura, historia, pedagogia (...) ezaugarriak ulertzeko balio izaten dutela badakigu. Ipuinen azterketa pedagogikoei esker, babesten dituzten heziketa mota ezberdinak antzeman

daitezke, baita hauen erabileraren ondorioak ere. *Makilakixki*-ren kasuan, hainbat ondorio pedagogiko nabarmenduko genituzke:

2. 1. *Ezkatuko balio pegagogikoa*

Makilakixki ipuina, euskal jatorriko produkzioa den neurrian, guk Pedagogiatik *defendatzen dugu*, Oteizak estetikatik (1993a, 1993b) eta beste batzuek euren jakintza arloetatik bezala, *euskalduna ez dela balore iraunkor eta estatikoetan erortzen den talde bat* eta gure ipuin tradizionalak oso orekatuak direla gizatasunaren aldetik aztertuta.

Lan honen hasieran genioen, *gizatasuna nola hezten* den ikertzeko eskatzen zaiola Pedagogia zientziari. Zientzia honen abiapuntua, Hezkuntza da, eta errealtate honen izatea, aipatu giza egitatearen funtsezko lau alderdien (fisiko, adimenezko, hunkipezko eta etikoaren) garapena bermatzen ahalegintzea da, heziketa bideratzen den edonon (etxean, ikastetxean, kalean, aisialdian, teknologi munduan, kominikabideetan, eta abar.). Pedagogia zientziak giza egitate hori nola finkatzen ari den aztertzen du.

Horregatik, *Makilakixki* ipuina barneratzen duen haurrak jaso dezakeen oparirik onena, ipuinak ezkututzen duen balio pedagogikoan datza: giza egitatea osotasunez bereganatzean, hain zuzen ere. Baina, aldi berean, ipuin “on” guztiak bezala (ohikoak –tradizionalak– klasioak ala berri-berriak izan), ipuin batek, orokorrean, haurrari bere bizitzaren zentzua finkatzen joateko aukera paregabea eskeintzen dio. Halaxe *Makilakixki*-k ere.

Aurkikuntza honi oso garrantzitsua deritzogu, besteak beste, egun *Makilakixki* bezalako ipuin motari ematen ari zaion toki zein erabilera eta argitaratzen ari den euskarazko haur literatura nolakoak diren ikusita.

Guretzat, gaur egungo euskal ipuin sorkuntzan, baloreen pisua gehiago nabarmentzen da tradizioaletan baino. Askotan entzuten da, baloreen krisia nabarmena dela gaurko gizarte modernoetan, baloreak oso erlatiboak bezala agertzen direla argudiatuz.

Gu ez gara ikuspegi honen aldekoak, gu Oteizak zioen balore iraunkor eta estatikoari erreparatzen diogu ipuin bat aztertzerakoan. Eta tradiziozko multzoa osatzen duten ipuin guztiek, egun aipatzen den “balio gehigarria” eskain dezaketela haurren garapenean, benetan sinesten dugu.

2. 2. *Gaitasun didaktikoak*

Garai guztietan ipuinak arreta-une ezin gozoagoak sortzeko erabili dira, eta bien bitartean, irakaspenenak txertatzeko oso egokiak izan dira. Nola elkartzen ote dira bi eginkizun hauek? Bestalde, ongi erakusten duenari, didakta ona dela esaten zaio, entzulearengana iristeko gaitasun duela. Nola erabil daitezke amarru hauek *Makilakixki* ipuinaren bitartez?

Ipuin klasiko bat dela esateak ez du inolaz ere adierazi nahi gaurkotasunik ez duenik edo gaurko hezkuntza eta heziketarako balio ez duenik. Ez da gutxiagorik ere.

Gaur egun indarrean dagoen hezkuntza eta Pedagogiaren eragina nabarmena da ipuingintzan, sortzen diren ipuin gehienak eskolan erabiltzeko pentsatuak dira, hau badakite idazleek eta oso arriskutsua da ipuin batentzat. Akaso horregatik ipuin “berri” bat “klasiko” bat baino baliagarriagoa al da heziketarako? Ez, ez dugu hori uste.

Zorionez, ipuin baten gaitasun didaktikoa ez dago eskolaren eraginaren menpe, alderantziz baizik. Horra zergatik:

- Hezkuntza eta heziketa jakin batera moldatzeko idazten bada ipuin bat, arriskuan jartzen dena sorkuntza bera da. Eragin hau arriskutsua izango da, ipuina sortzeko momentuan erabiltzen bada. Izan ere, ipuin baten kalitatea, sorkuntzan dago eta ez ustezko hitz eta esaldi jokoetan, hauek adierazpen estatikoak besterik ez baitira. Ipuinak, heziketarako balio dezaketen neurrian balioko dute bizitzaren dinamika ordezkatzeko. Gainera, edozein pedagogi eragin erabilita ere, ez dugu uste ipuin batek haurren gaitasun eta irudimena mugatzeko ahalmenik izan dezakeenik.

- Arriskutsua da, baita ere, gaitasun didaktikoa garatzeko orduan, gaur egun askotan erabiltzen den “ipuína-haurra” errealitateak, besterik gabe, elkartzea. Ez gaude ez batere ados horrekin; alderantziz, “ipuína-gizakia” lotzearen aldekoak gara. Haurtzaroa ez baita gizatasunaren nahitaezko urrats bat besterik, inoiz desagertzen ez dena gure bizitzetatik, bizitza osoan gurekin bidaiatzen duena da, inoiz utziko ez gaituena, alegia. *Makilakixki* ipuin hau ez da, gaur egun hainbeste erabiltzen den irakurketa ariketak egiteko asmatua, ezta ere, ustez, haurrek dituzten gustuak asetzeko asmatutakoa, edo haurtzaroari erantzuteko sortzen den ipuína, aitzitik, ipuin honetan jokoan dagoena gizarte oso bat da. Bertan, gizakiaren aro guztiek dute garrantzia, eta hauen barruan haurtzaroak, bereziki, beste aroekin bat eginez.

2.3. *Ipuinaren mezua*

Makilakixki ipuinaren mezua, oso irekia eta baikorra da. Bere asmoa bikoitza da, haurraren irudimena eta sorkuntzarako gaitasuna suspertzea ikasbide bat eskaintzeko asmotan.

Kontuzaharra zer den? Besteak beste, hauek dira haren ezaugarriak: 1) Haurrak gizarteratzeko prestatzen den ipuin bat da, gizartearen agertzen diren zenbait jokabide jokoan jartzen dituen; 2) Euren mezua, gizarte hobeko baten aldarrikapena egitea izaten da. (Oteiza, 1973; Apalategi, M. J, 1996, 2000, 2004); 3) Sorkuntza du iturburu, oso oparoa da edukiaren aldetik, eta aberatsa, hain zuzen, ez dagoelako haur eta irakurle zale mota bati egokitua, ezta ere ustezko ezaugarri didaktiko-pedagogiko eta literarioei zuzendua.

2.4. *Moldaketarik gabe sortua, eskolarako moldatua*

Gogoratuko dugu, *Makilakixki* ipuína ez dagoela espreski ikastetxe erakundean erabiltzeko asmatua, gaur egun sortzen diren

ipuin gehienen antzera eta beraz, jatorrian, ez duela moldaketa literariorik eta baldintza pedagogikorik ezagutu izan (Perrot, 1993:96). Baina “Axut” eta “Mari” sailetako bildumak osatu zituzten argitaletxeen hitzetan, “bilduma hau haurrei zuzendurik dagoenez, testuaren egokitze lan bat beharrezkoa zen, eta lan hori Sagrario Yarnoz eta Joxan Ormazabal-en esku egon da” (Elkarlanean, 1998: 3). Ohar honekin batera, *Makilakixki* itunaren euskarri pedagogiko guztietako marrazkiak Jesus Lucasenak direla esango dugu. Dena den, moldaera egiteko “... haurrei zuzendurik dagoenez...” esaldearekin argudiatzea ez dugu uste zuzena denik; aldiz, eskolako eta irakurketaren baldintza pedagogikoetara moldatu behar izan dela esatea, ulergarriagoa dela uste dugu. Izan ere, ezagutzen dugun jatorritik, ipuinaren erabilera haurrei zuzendua egon da beti.

Are gehiago, ipuin honek aipatu moldaerak eduki izanak, arreta berezia eskatzen du Pedagogia esperimentalaren aldetik.

2.5. *Bat eta bi*

Azkenik, ipuin hau Pedagogiak bere-berea duen hezkuntza eta heziketa arloen ikuspegitik aztertzerakoan, nabarmentzen den ondorio pedagogikoa oso garrantzitsua da bi arrazoiengatik:

Lehenik, gaur egun indarrean jarri nahi diren teoria pedagogikoen zurrunbilan kokatzen delako. Nola? Gizabanakoaren garapen pedagogikoa, ez dela bakarrik eskolara mugatu behar frogatzen duelako. 1921. urtean, Barandiaranek, Felipe Apalategi, gure aittejauna lekuko hartuta, ipuin hau jaso zuenean, mendez mendez, eta batik bat, etxeko haurren “gozamen fisikoa, intelektuala eta hunkigarria” hezteko zein, bien bitartean, “ikaspidetza edo lezio etikoren bat emateko” erabiltzen zela badakigu; beraz, esan dezakegu hezkuntzaren funtsezko giza egitatearen alderdiak hezteko erabiltzen zela. Heziketa honen berezitasuna, gaurko ikuspegitik hartuta, bikoitza zela esan daiteke, bata, ahoz-kotasunean oinarritua zegoelako, bestea, familiak heziketaren zuzeneko erantzukizuna zuelako.

Bigarrenik, ipuin honen erabilera anitzak frogatzen du hezkuntza eta heziketa “formala” zein “informala” ematen diren leku guztiak aintzakotzat hartu behar direla, hots: familia, lagunak, auzoa, eskolak, Unibertsitateak, barnetegiak, elizak, komunikabideak, barnetegiak, aisiialdirako tokiak, topaguneak, etab., guztien artean gauzatzen baita gizabanakoaren eta gizartearen garapena.

Pedagogiaren hitzekin bukatzearren, esango dugu gizatasunaren heziketa izadiaren izate aberats eta oparotik ezin dela aldendu, eta hori bermatzeko, ipuinak giza ekintza ezin hobeak direla.

3. Bibliografia

Liburuak

- AIZPURUA, Jon; Aizpurua, Jexux (1999): *Barandiaran*. Donostia: Elkarlanean “Biografia saila”
- APALATEGI BEGIRISTAIN, M. J. (1994): *Eskola erakuntza eta holo-linguistika*. Doktorego Tesia. Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea
- (1995): “Ikastetxearen erantzukizuna gizartean eta gizartearena ikastetxean”. *Huarte de San Juan*, Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatearen aldizkaria. 1. zk., 305-317 orr., Iruñea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa
 - (2000): *Hezkuntza erakuntza I: oinarri teorikoak*. Iruñean Nafarroako Unibertsitate Publikoa
 - (2004): “Oteiza: irakaslearen konpromisoa heziketa estetikoa”. *Hik hasi* aldizkaria, 14. alea, monografikoa, 8-19 orr., Donostia, Xangorin
- BARANDIARAN, J. M. (1972): *El mundo en la mente popular vasca. (Creencias, cuentos y leyendas)*. San Sebastian: Auñamendi. Colección Auñamendi, Tomo III, (nº 107) pp. 9-12

- (1973): *Obras completas: Eusko-Folklore*. Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca., tomo II, pp. 269-271
- BETTELHEIM, B R: (1975): *The uses of enchantement. The Meaning and Importance of Fairy Tales*. New York: Alfred A. Knopf
- (1982): *Educación y vida moderna*. Barcelona: Crítica, 6. argitalpena. 1952, 1960, 1962, 1976 eta 1979. Jatorrizko izenburua: *Surviving and other essays*, New York, Alfred A. Knopf
- (1984): *Psicoanálisis de los cuentos de hadas*, 9. argit., Barcelona, Grijalbo
- Europar Komunitateetako Batzordea (EKB) = Comisión de las Comunidades Europeas (CCE) (2001): “Informe de la Comisión: Futuros objetivos precisos de los sistemas educativos”, Bruselas
- FAURE, E. (1981): *Aprender a ser*. Madrid: Alianza Universidad, 7. argit.
- KALZAKORTA, J. (1997): *Lamia, Sorgin eta Tartaroren Erresuma ezkutua*, Bilbo, Labayru Ikastegia-Bilbao Bizkaia Kutxa
- LARROSA, J. (1990): *El trabajo epistemológico en pedagogía*, Barcelona, PPU
- MORENO GARCIA, E. (1980): *Anglosajones y latinos. Diferencias culturales y pedagógicas*, Zaragoza, Luis Vives
- MORANDO, D. (1969): *Pedagogía*, Barcelona, Luis Miracle
- OTEIZA, J. (1973): “Un modelo de hombre para el niño de cada país”, Ubalde Merino, J. L., in *Psicología, Física y Ecología*, Epílogo, Santander, Crispin, pp. 121-137.
- (2003): “Herri bakoitzeko haurrarentzako gizako eredua”. Itzultzailea: José Luis Padrón. *Hik hasi*, euskal heziketarako aldizkaria, 14. alea, Jorge Oteiza monografikoa, 41-47 orr.
- (1993a): *Quosque tandem...! Ensayo de interpretación del alma vasca*, Iruñea, Pamiela
- (1993b): *Ejercicios espirituales en un tunel. En busca y encuentro de nuestra identidad perdida*. 3. argit.; Iruñea: Pamiela

- PERROT, J. (1993): *Culture, texte et jeune lecteur*, Paris, Presse Universitaires de Nancy
- PIAGET, J. (1975): *Psicología y Pedagogía*, Barcelona, Ariel, 5. argit. Jatorrizkoa (1969): *Psychologie et Pédagogie*, Paris, Gonthier
- (1974): *A dónde va la educación*, Barcelona, Teide; Jatorrizkoa (1972): *Où va l'éducation*, Unesco
- PRIETO, M. & MENDIZABAL, A. (1989): “*Makilakixki*. Euskara proba. Haur Hezkuntzako azken ikasturteko 5-6 urteko haur-errentzat. Ikasturte hasierako eta bukaerako proba”, Donostia, Ikastolen Elkarte
- RUIZ HUICI, K. (2003): “Didaktismoa, pedagogia eta eduki ideologikoen eragina 90eko hamarkadako haur literaturan” *Behinola*, Haur eta Gazte Literatura aldizkaria. 9. alea, 31-40 orr., Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila
- SANVISENS, A. (1987): *Introducción a la pedagogía*, Barcelona.
- SPECK, J.; Wehle, G. (1981): *Conceptos fundamentales de pedagogía*, Barcelona, Herder

Hiztegiak

- GROUX, D. <dir.> (2002): *Dictionnaire d'éducation comparée*, Paris, L'Harmatan
- ELHUYAR (2003): *Hiztegi Entziklopedikoa*, Donostia, Elkarlanean S. L.

Aldizkariak

- Hik hasi*, euskal heziketarako aldizkaria (2004): *Jorge Oteiza*, 14. alea, Jorge Oteiza monografikoa, Donostia, Xangorin
- Behinola*, Haur eta Gazte Literatura aldizkaria (2003), 9. alea, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila.

Internet helbideak

<http://www.elkarlanean.com>

<http://www.es.eun.org> = Europa Elkarteko hezkuntza orria

<http://www.ikastola.net>

Erakundeak

Iruñeko Udala (2003-2004): “Irakurketa sustatzeko Udalaren hezkuntza-programa: 2003-2004 ikasturtea”, Iruñea.

Elkarteak

Elkar argitaletxea (1982): *Makilakixki ipuina*, “Axut” saila. Donostia, Elkar

(2003): *Makilakixki CD-rom: Bideoa. Ipuina. Jokoak*, Donostia, Elkar S. L.

Elkarlanean S. L. argitaletxea (1988): *Makilakixki*, “Mari” saila, Donostia, Elkarlanean S. L.

Elkarlanean–Ikastolen Elkartea <GIE> (2003): *Makilakixki*, Donostia, Elkarlanean S. L.

Ikastolen Elkartea (1983): *Haurtxoa proiektua*

(1989): *Makilakixki Euskara proba*

(2003): *Urtxintxa proiektua*

Barruko argazkiak eta hauen testuak

Elkar argitaletxea (2003): *Makilakixki CD-rom: Bideoa, Ipuina, Jokoak*. Donostia, Elkar S. L.

Elkarlanean S. L. argitaletxea (1998): *Makilakixki*, Donostia, Elkarlanean S. L.

MAKILAKIXKIREN AZTERKETA PSIKOSOZIALA

Jokin Apalategi
Soziologoa eta EHUⁿ Katedraduna

1. Justizia kontsistentearen inbentzioa

1. 1. Sarrera edo ipuinaren eta soziologiaren arteko lotura egiteko aitzakia

Aitona gurearen *Makilakixki*-k irakurketa psikosozial bat iradoki zidan lehen aldiz berarekin topo egin nuelarik. Geroztik neure buruan itzuliak eman badizkiot ere lehen iradokizun hari, gaur aitor dezaket ez dela lehen inpresio hura nire baitan lurrindu eta, gutxiago desagertu, beste irakurketa mota bati tokia emateko, alegia. Aitona gurearen ipuina portaera estilo edo kode etiko baten defentsa sutua da. Eta hala izaten jarraituko du desmodatutako portaera estilozat norbaitzuek eman badezakete ere. Izan ere, kode etikoen beharra bera hankaz gora baitabil ideia postmodernoen argi-arroan. Baina nola gizabanako mailan hala sozialean ezinezkoa da kode etikorik gabeko gizarteak orekatzea.

Laburbilduz, gogora ditzagun ipuineko pertsonaien nabardurak. Alde batetik, munduan asko bezala, etxe batean hiru

semerekin bizi omen zen aita daukagu. Amarik ez da aipatzen. Narrazioaren aszetismo beharrez ote amaren ausentzia hori? Ala areagoko beste esanahirik ere badu? Izan ere, ipuinean izendatuko diren pertsonaia guztiak genero bakarrekoak dira. Protagonismo soziala gizonezkoena bakarrik dela kontsideratu behar ote da? Bestalde, aita eta hiru semeak portaera estilo bakarraren pieza izanik, ordezkazina edo alborazina diren funtzioak elkarrekin bakarrik betetzen dituzte. Portaerak irauten duena irauten duelako eta, betetzen dituen funtzioak betetzen dituelako, mezuari muinekoa zaion *kontsistentziaren* eraikuntza ehuntzen da. Ipuinean ere, kontrajarririk, beste portaera mota bateko pertsonaia irudikatzen da: ostalariak ordezkutzen duena, alegia. Aurrekoenganako nagusitasunezko harremana erakusten duen esparru sozial bateko protagonista dugu. Ostalaria bera bakarrik izendatzen bada ere, nagusitasuna dutenen alorrean eragile, hala ere, ipuineko makila hasten denean bazter guztiak txikitu beharrean, denak joka, alegia, ostalaria eta etxeko beste guztiak erasotzen dituenen, esan daiteke bere nagusitasunaz abusatuz sortzen duen menpekotasuna edo areagoko gehiegikeria isilik edo gordean onartuz bizi dutenak ere gaizkidetzat ekarriak direla. Nagusitasunaren existentzia bera ez ezik, nagusitasunaren gehiegizko erabilera eta ari jarraiki sortzen den menpekotasunari amore ematen diotenen koldarkeria, biak dira salatzen. Ostalaria bere esparru sozialean jaun izatea onartu egiten da. Baina ipuineko aitaren hiru semeek beren bizimodu behartsuagatik ostalariaren esparru sozialetik igaro beharra dutenean, ostalariak behin eta berriz, hirutan, nagusitasun egoeraz baliaturik egiten duen lapurreta gaitzesten da. Batetik, bada, nagusitasuna eta justiziaren gaia egiten duena bereizten da, eta bestetik, justizia desbideratzean, kontsistente izanez –eutsiz, alegia, egoera zuzenkontra-koaren aurrean amore ez emanez–, bakarrik erremedia dezakegula erakusten da.

Bi galdera datozkigu ondorio bezala: nola sortzen da justiziaren ideia? Zer da kontsistentzia justiziari aplikatzen diogularik?

1.2. *Justizia ideiareen jatorriaz*

Aitona gurearen *Makilakixki* ipuinak lantzen duen justizia ideiak pertsonen unibertsoaren oinarrian edo zolan aurkitzen dugun iruzurgileen existentzia egiaztatu eta deskribatuz gero, horien deuseztapena lortzeko asmamena goraiapatzen du. Aristoteleren esaldi famatuarekin lehiatuz, pertsona arrazoiduna den neurri berean, gizabanakoak abere iruzurgile izateko gaitasuna ere baduela erakustera dator ipuinaren kontatzailea. Diferentzia nabarmeneko bi adierazpen hauek pertsona bat beraren jardunean eman daitezkeen bi eratako jokabide ahalak lotzen dizkigute. Pertsona iruzuregileak arrazionaltasuna erabiltzen bada kiela erakusten baitu. Arrazionaltasuna, orduan, ez da berez zintzotasunaren edo duintasunaren sinonimo. Lerro berean korapilotzen ahal baitira pertsona arrazionala eta iruzuregilea. Hortik pertsona iruzuregilearentzat justizia suntsitzailea erabiltzea aholkatzen digu aitona gurearen ipuinak. Eta justiziari adjektibo bat gehitu zaionez, mota desberdinetako justiziak daudela adierazi behar dugu. Honela, beharrezko egiten zaigu galdetzea: nondik dator justiziaren beharra? Zer da justizia? Galdera hauei erantzuna emateko Platonen (1940) gogoeta plazaratuko dugu, hasteko, eta J. Piageten (1932/1978) lan baten bidez aurre egingo diogu ondotik.

Platonek, uste denez, K.a. 370 urtean amaitu zuen *Errepublik*a bezala ezagutzen dugun bere obra nagusia. Berberak filosofo osotuaren adintzat aipatu zuena zeukanean idazten du, hain zuzen. Bidenabar —eta gure gaurko gaiari dagokionez, bere garrantzia duelako—, gehitu dezagun ere, azpitutulu bat ere eman izan zaiola obra horri, hots, “Justua denaz” litzateke. Orduan, gutxienetik tradizioak obra honi titulu bikoitza eman izan dio: “Errepublik

141

bezala bakarrik deskribatuko du hiri idealaren *politeia* (erregimena, konstituzioa, gobernu moldea, alegia).

Lehen liburutik hamargarrenera artekoan moral indibidualaren arazoa aztertzen da. Zer da, justua izatea, zuzena izatea, gizaki batentzat? Justizia ondasun bat al da, eta hala bada, zer gisatakoa da? Justua izan behar al da, eta zergatik? Sokrates galdera horiei erantzuten hasiko delarik, planto egiten du esanez Zephalek jada justiziaren definizio bat emana duela bertute moral partikularra den justiziaren izatasunaz. Eta gisa horretan, aburu konbentzional eta tradizionalen ezeztatze dialektiko baten zentzuan bideratzen da. Antzeko ondorio aporetikora ailegatzen da justiziaren baliotasunaz ari direnen errore metodologiak salatzen dituenean, zeren justiziaren abantailak eta desabantailak injustiziarenarekin konparatzera mugatzen baitira, aurrez justiziaren izatasunaz galdetu gabe. Elkarrizketako partaideak sakonki zatikatuak aurkitzen dira justiziari buruzko estimuaz. Zephale eta Polemarkek justiziak jasotzen duen onarpen soziala baiesten dute; Thrasimakek, aldiz, bortxarekin gaitzesten du, eta justizia betebeharrak mistifikatu bat dela erakutsi nahi du, boterearen jabeek darabiltena, beren interes propioan, haien menpekoez bizi, hauen interesen aurka. Pasarte honetan, lehen aldiz, *justiziaren dimentsio politikoa* dakar eztabaidaren alorrera, baina gaiaren inguruan egindako lehen hurbilketen luzean, justiziaren nozioa, gizabanakoak besteekin dituen harremanetan, modu jakin batean (goresgarritzat edo ergeltzat iritzi daitekeenean) portatzeko duen prestasuna bezala kontsideratzen da.

Bigarren liburuaren hasieratik justiziak justua denari ongia dakarkiola erakusten da, bere baitan lehenik, (zeren ondorioetan bakarrik balego ontasuna, horiek lortzeko izan gabe justuarena egitea egotz baitiezaiokegu norbaiti), eta bere ondorioetan gero, (zeren bere baitan bakarrik balitz ontasun, bere abantaila berezkoak beste nonbait arras garesti ordaindu beharko bailirateke). Aurrez, ordea, justizia zer den adierazi beharko da. Justiziari buruzko elkarrizketa, hain zuzen, *Politeia*-n gauzatuko den bihur-gunea desafio ikaragarri honi erantzunez hartu zuen Sokratesek.

Justizia, horrela dio, gizabanako batek eduki dezakeen propietate bat da; baina, hiri oso batena ere izan daiteke. Urrats hau emanik, gizabanakoarengandik abiatzen zen bidea alboratuz, hiritik abiatzen denera igarotzen da, azkenik gizabanakoarengana ailegatzeko.

Horrelako gogoetazko aldaketarik ez dugu aurkituko aitona gurearen ipuinean. Demostrazio osoa gizabanakoaren baitan geldituko baita, justiziaren alor psikosozialean gabiltzalarik. Platonen liburuan, aldiz, justiziaren alor soziologikora igarotzen da. Funtsezko azken ikuspegi honen arabera, justua eta injustua zentzu berean esaten ahal dira nola gizabanako batengatik hala hiri bategatik. Adierazten du ere zentzu hori errazago dela hirien mailan aurkitzea gizabanakoenean baino. Honen guztiaren ondorioak ere gogoan hartzekoak dira. Hiriaren justiziaz hitz egitean, hirian bizitzen den justizian pentsatzen dugula, alegia. Bere barne antolaketan hasteko, eta baita ere hiriko biztanleen artean banaturik dauden botere, ontasun, eginkizun eta erantzukizunetan. Pentsatzen dugu, baita ere, jakin daitekeela hiri horrek nolako portaerak dituen besteekin konparatzen direnean. Eredu honen arabera, beraz, justizia indibidualean birpentsatzean, justizia norbaitek besteekin bere harremanetan portatzeko duen prestasuna bezala kontsideratzeari utziaz, barnetik egituratutako molde jakin bat izatera igarotzen da. Beste behin esan behar dugu, argudiatzeko molde honen ondorioek inkesta politikoaren plangintza izugarri baldintzatzen dutela, jarrera horrek. gizabanako platonikoki justua eta ohiki justua dioguna berdina ote diren galdetzeraz eramaten baikaitu. Eredua jarraitutako norabidearen alderantzizko zentzuan eraiki izan balitz, justizia indibidualaren ohiko esanahian, alegia, hiriko justiziaren ohiko esanahia berrikustera behartua egongo zen, horretarako beste hiriekiko harremanak kontuan hartuz eta, aldi berean, zeharo eraikitako hiri bat irudikatuz, nola bere ingurune historikoan hala bere harreman zehatzen sarean. Baina Platon, egin zuen aukera egin zuelako, hiriaren barne justizia zein elementuren orekan altxatu beharko litzatekeen definitzera behartua aurkitu zen; gisa horretan,

eraikiko den hiriak eredu izaera hartuko du hiri eredu erakitzearekin batera.

Politeiaren presentzia eta urgentzia nagusitzen dira Platonen gogoetan. Hiriaren etorrerak grekoen ordurarteko mundu espaziala zilipurdika jarri baitzuen. Hirien sorrera antzinako Grezian gizabanakoak zergatik elkartzen ziren galdetzea bera zentzugabea zen, aitona gurearen mundu espazialean zen bezala. Naturaren parean kokatzen garelarik, bizirik dirauen zuhaitzak urtero zergatik hostatzen diren galdetu beharrik ez dagoen modura ikusten da gizabanakoen arteko elkarbizitza ere. Baina elkarren berririk ez duen jendea, multzo handitan pilaturik dagoena esparru unitate berean, elkarri errespetua gordez bizitzera behartuta aurkitzen denean, pertsonak zergatik duten elkartu beharra argudiatzea justifikaturik dago. Egoera honek egiten du Platonen eta aitona gurearen justiziari buruzko gogoetetan desberdintasun maila nabarmena aurkitzea. Platonek odolkidetasun legez beren arteko loturarik ez zutenak, hiritasun legez lotzeko argudioak ematen dizkigu. Jende horiek bakarka ase ezinezko beharrak elkaturik askiets ditzaketela adierazten digu: janariak, bizitokiak eta jantziak lortzeari jarraitzen dizkioten arazoak elkarrekin jardutean gaindituz, alegia. Anitz izateak elkarrekin borrokatu beharra baitakar, hiriko behar desberdinen arabera, erantzun zati-katu espezializatuak ematea, agian, egokiago izango dela gaineratzen du. Lan sozialaren zatiketa printzipioa seinalatzen digu. Hala ere, zatiketa ekonomia alorreko funtzioentzat besterik ez da aipatzen. Oinarrizko gogoeta horren azpian ez dago gobernatzaileez, legegileez edo epaileez inolako aipamenik³. Zergatik ote? Beharbada egungo neoliberalismoak bezala, beharren presiopean, espontaneoki oreka bat ezarriko dela gaitasun individualen eta behar kolektiboen funtzioen artean nola eginbeharrei buruzko

³ Lehen aldiz, 1513an, N. Machiavelliren *Printzea* obraren argitalpenarekin harrotuko da gaia eta 1748an, Ch. L. de Secondat edo Montesquieuren *Legeen izpiritua* obrarekin garatuko.

partikaketan hala ontasun eta zerbitzuen elkar trukean, pentsatzen zuelako agian? Eta hain zuzen, justizia eta injustizia elkar trukearen existentziaren baitan uzten direla adierazten ote zaigu? Sokratasek edukazio guztiarekin berehala gezurtatuko du ikuspegi hau.

Moral indibidualak Platonekin politeiarekin egin du topo. Baina politeiarik gabeko gizarteetan sozialaren objektua zerk egiten duen? Hau argitzeko, hain zuzen, haurren baitan murgilduko gara, hauek oraindik urrun baitaukate politeiaren kontzientzia; hala ere, moral indibidualak funtzionatzen diela ikusirik, nola egiten duten jakitean, politeiarik gabeko helduen egoera ulertzeko zilegizko ezagutza lor daiteke.

1.3. Justizia ideiarene erakuntza haurrengan

Justiziaren nozioa nola hautematen duten haurrek jakin nahi delarik, 6 urtez goitiko haurrei egingo zaien miaketako galdera negatiboan planteatzea izaten da onena, hots, zer den injustua edo ez-justua adieraz dezaten eskatzea; hala ere, ez dute beti ulertzen nozio horren gainean argitasun gehiago ematen ez bada. Behin ulertuz gero, zein objektuarekin lotzen duten jakitea ere adierazgarria da. Dena den, haurren adinaren arabera injustizia hautematea dakarren objektuarekiko harremana nola izatasunean hala proportzioetan aldatzen doala erakusten digu Jean Piagetek.

Haurrek adinaren arabera injustiziaren izatasunari buruz erakusten duten objektuaren hautemateaz, estatistikak benetan emaitza ziurrak dakarzkigu:

	Autoritatea	Jokoaren arauak	Desberdintasun debekua	Injustizia soziala
6-8 urtetan	% 64	%9	%27	—
9-12 urtetan	%7	%9	%73	%11

Justua ez denaren hautematea hasiera batean pertsona helduek edo adinekoek obeditzeko edo haien aginduak betetzeko orduan edukitako portaera makurrekin lotzen dituzte haurrek. 6-8 urte arteko haurrengan *autoritateak* du lehentasuna. Autoritatea, berriz, ezereen gainetik debekuen seinaleztatzailatzat agertzen zaie. Horrela, kontzientzia txarra du gezurtatzen duelarik, lapurtzen duelarik, desobeditzen duelarik, norbait jotzen duelarik, ezerez eta negar egiten duelarik, ergelkeriak egiten dituelarik, eta abar. Justua legeak inposatzen duenarekin nahasten da, eta legea erabat heteronomoa izanik, adinekoek inposatua da. Horregatik ere, justizia erretributiboaren (Piaget, 1932; 1971) alorrean, zigor oro zeharo zilegizkotzat ematen da. Adin horretako haurrak errealismo moralerako joera du, hau da, intentzioen baitan epaitu ordez, emaitza objektiboen arabera egiten du. Honela, sentimendu onarekin motibatutako trakeskeria larria errietagarriago agertzen zaio intentzionalitatez kausitutako kalte txiki bat baino.

Justua ez dena ere *jokoaren arauen* haustea litzateke. Jokoa-
ren arauak errespetatzea moralaren barnean funtsezkoa da. Arauari buruzko ikuspuntu praktikakotik begiratuta, J. Piagetek hiru aldi bereizten ditu haurraren bilakaeran: lehena motore eta indibiduala da, bigarrena egozentrikoa (besteek imitatzen dituztenean ere, haurrek eurentzat jokatzen dute), eta hirugarrena, zazpi eta zortzi urte bitartean sortu ohi dena, kooperazio jai-
o berriarena, alegia. Hirugarren aldi honetan bakarrik sortzen dira irabazi edo galdu eta tranpa egitea bezalako nozioak. Eta hamai-
ka eta hamabi urterekin bakarrik behar bezala kodifikatuko dira. Arauaren kontzientziari dagokionez, hemen ere hiru aldi ematen dira. Txikienetan ez da ematen arau hertsatzailearen hautema-
terik. Sei urte inguruan araua aldaezinezko eta sakratutzat ager-
tzen hasten zaio haurrari. Baina hamaika urtez gero, itun bidez eta adostasunez elkarrekin onartuz alda daitekeen zerbait bezala ageriko zaio. Bakoitzak bere aldetik praktikatzen duen errespetua-
ri, orain elkarrekin eraikitako errespetua gehitzen zaio. Hala ere, adin desberdinetako haurren baitan ez dago kontzientzia txar gehiegirik, jokoaren arauak ez betetzeagatik letorkeenik.

Justua ez dena desberdintasunarekin harremanetan jartzea, 8 eta 11 urte bitartean suspertzen da. Orain *berdintasunak* hartzen du lehentasuna haurraren baitan. Autoritatearen gaintetik, noski. Era berean, *berdintasun absolutuaren* eskaria hazten doa adin horretan. 11-12 urte arte nagusi izango den ikuspegia dugu haurrak berdintasuna modu absolutuan ikusten dueneko hori. Honi, 12 urtetik aurrera sortu ohi den ekitate edo zuzentasunaren ikuspegiak, hau da, berdintasun erlatiboaren egokitasunak jarraituko dio. Berdintasuna identitatean oinarritu ordez, gizabanakoen eskubide berdinak norberaren egoera partikularrari lotuz, hau da, erlatibizatuz hautematen da. Justizia aldian aldiko edo egoeran egoerako zehaztasunen menpeko ezartzeak, ondorio aringarriak ekarriko ditu, justizia erretributibuaren alorrean guztiei zigor bera ez aplikatzea, alegia.

Ekitatearen teoriak (E. Walster; G. Walster; E. Berscheid, 1978) argi eta garbi erakusten digu, bada, pertsona besteekiko harremanetan gutxituta sentitzen denean, *injustizia sozialaren* esparruan kokatzen dela egoera hori. Gizabanakook egoera jakin baten justizia maila ebaluatzen dugunean, helburu bat lortzerakoan gizabanakook egindako ekarpenetik eratorritako emaitzak dira kontuan hartzen ditugunak. Ideia hau ekuazio bezala formula daiteke. Bere printzipio nagusia da, ratio bat ezarri behar dela ekarpenen eta ordainsarien artean. Hori gure egoeraren antzeko giroan jarduten dutenekin gurea konparatuz gero jakiten ohi da. Eta ondoko aukera hauetan gauza daiteke:

1) $R_s / K_s < R_a / K_a$ izanaz. Nire ekarpen/ordainsarien zuzentasuna nire auzoarena baino gutxiago dela egiaztatuz, alegia.

2) $R_s / K_s > R_a / K_a$ izanaz. Nire ekarpen/ordainsarien zuzentasuna nire auzoarena baino gehiago dela egiaztatuz, alegia.

3) $R_s / K_s = R_a / K_a$ izanaz. Nire ekarpen/ordainsarien zuzentasuna auzoarenaren berdina dela egiaztatuz, alegia.

Baliabide sozial, material eta sinbolikoen partiketa justizia inmanentearen esku jarritz gero, ezin da odolezko, indarrezko edo karitatezko legeen arau arbitrarioekin bideratu. Gizabanakook

zein gizataldeek elkarrekin adostutako harremanetan eraikitako jokoaren erreferentzian kudeatu behar dituzte nola ordenaren mantenimendua hala aldaketa.

Berdintasun absolutuaren ala erlatiboaren, hots, ekitatearen ideiekin berdin erlazionatuta egon daitekeen justizia distributibuekin topo egiten dugu. Baina horretara ez da senaz iristen. Aitzitik, gizabanakoak, batetik, senaz datorkion jelsiari esker besteez beraz abusatzea eragozteko joera dakar, eta bestetik, hark daukan komunikazio beharrak eraginda, norbera besteez abusatzea oztopatu beharrean aurkitzen da. Hau horrela, berdintasun erreala eta elkarkidetasunaren benetako beharra sor daitezen, ezinbestekoa da arau kolektibo bat izatea, hau da, gizarte bizi-tzaren *sui generis* produktu bat eraikitzea, zeinaren eredura, gizabanakoek elkarrekin izandako ekintzen eta erreakzioen ondorio gisa, beharrezko oreka baten kontzientzia piztuz, aldi berean *alter*-a eta *ego*-a mugatuta geratuko baitira.

Baina gure gogoetan zehar ailegaturik gauden puntura, bete-beharraren edo *kooperazioaren* arteko aukeran justizia funtsatzeak dakartzan ondorioak aipatzera igaroko gara, hau egitean, aldi berean, berdintasun absolutuaren ala ekitatearen aldeko erabakia argitzen baitugu. Arazoa, berdintasunezko justiziaren bilakaeran jendetzaren osagaia den errespetu alde bakarrekoa ala kooperazioaren osagaia den errespetu alde askotakoa edo elkarkidea, zer zein faktoreri gailentzen zaion jakitean datza dena.

Beste gogoeta mota bat ere eragiten digu honek guztiak. Garrantzizkoa da, gainera. Justiziaren bilakaerak autonomia suposatzen duenez, autoritatea ezin da justiziaren iturritzat hartu. Hala ere, hemendik ez dezagun ondorioz atera pertsona helduak justiziaren bilakaeran zerikusirik ez duenik; justizia distributibuen kasuan ere beste horrenbeste esan behar da. Haurrarekin elkarkidetasuna praktikatzen duen neurrian eta jarraibidearekin predikatzen badu, ez hitz hutsekin, gaitzeko eragina izango baitu. Baina Bovetek (1925) erakutsi zigunez, helduen eraginaren efekturik zuzenena betebeharraren sentimendua da, eta kontradikzio moduko bat gertatzen da betebeharrak eskatzen duen menpeko-

tasuna eta justiziaren bilakaerak suposatzen duen erabateko autonomia aurrez aurre aurkitzen direnean. Izan ere, justizia, berdintasun eta elkarkidetasunaren gainean altxatzen denez, gizabana-koak hura libreki onartzean bakarrik eraikitzen ahal baita. Autoritate helduak, justiziarekin ados datorrenean ere, justiziari mui-nekoa zaion hura itzultzeko ondorioa besterik ez baitakar. Hori dela eta, esplikatzen ahal dira txikien jardunak, justua legearekin nahastuz, autoritate helduaren aginduz ezarrita dagoena legetzat hartzen baita. Bestalde, anitz pertsona helduk arau formulatua-rekin berdintzen baitu justizia. Kontzientziaren autonomia lege idatziaren aurriiritzi sozialaren gainetik jartzen ez dakitenak dira horiek.

Modu honetan, argi eta garbi gelditzen da, autoritate heldua, nahiz eta beharrezko une bat gertatu haurraren moral bilakaeran, ez dela aski justiziaren adierazkortasuna eraikitzeko orduan. Kooperazioak eta elkarkidezko errespetuak aitzinamendua egiten duten neurrian bakarrik garatzen da justizia, hasteko haurren arteko kooperazioan, gero heldu eta haurren artekoan, eta guztia haurrak nerabera jotzen duen neurrian eta gutxienetik bere barruan helduaren pareko kontsideratzen denean.

Aitona gurearen ipuinean zer-nolakoa da aurkitzen dugun justiziaren hautemate mota hori? Ez da eztabaidan jartzen autoritate. Areago oraindik, ageri dena da errespetu guztia duela aitaren autoritateak semeen aldetik. Semeek ere ugazabarekiko ez dute kexurik. Ostalariaren beraren autoritatea ere ez da haserre iturri. Jokoaren arauak beteak dira. Inork ez ditu auzitan jartzen ez hitzez ez obraz. Justiziak hainbat zilipurdika egin duen desberdintasuna, berriro bere dimentsio identitarioan edo jatorrizkoan onartu egiten da. Ez da jabetzaren izatearekin bukatzea eskatzen. Ez da hierarkia soziala apurtzea bilatzen. Zer da, orduan, salatu eta kondenatzen dena? Injustizia sozialaren boterea borrokatzen da. Lapurreta, iruzurra eta lehia desleiala erasotzen da. Justizia distributiboaren alorretik ekitatearen bidea seinalatzen da. Norberari berea aitortzean helduko da oreka soziala. *Alter-a* eta *ego-a*, biak aldi berean bateratuz lortutako oreka beharrezkoa,

alegia. Eta portaera mota hau zapuzten denean, zer? Oreka hausten duenarekin nola jokatu behar da? Hemen dator aitona gurearen ipuinean kontatzen den makilakixkiren desafioa ulertzeko zailtasuna. Baina ez da ustekabekoa. Horretarako igaro gaitezen justizia erretributiboaz gogoeta zabaltzera.

Lehen itxuran badirudi erretribuzio edo zigor nozioetan ez dagoela elementu razionalik. Izan ere, bilakaera intelektuala gertatu ahala, berdintasun ideiaaren balorea goraka doan era berean, zigor ideiarena beheraka doala uste baita. Baina gai honetan zehatzak izateko, distribuzioaren ideian bi elementu bereizi behar ditugu: alde batetik, zigor ideian dagoen espezifikoa egiten duten ordaina edo sariaren nozioak, eta bestetik, berezikuntzagarik edo ekintza errudunagarik hautsitako elkarkidetzaren lotura birsortzera zuzendutako neurriak. Azken nozio hauek, “elkarkidetzagariko zigorrak” bezala izendatzen ditugunak, badirudi eskusiboki berdintasun edo elkarkidetasun ideien menpe daudela. Nozio hauetariko lehenak baztertuak izatera heldu ohi dira heteronomiaren edo autoritatearen moralak autonomiaren moralari gain hartzen dionean. Bigarrenak, aldiz, sendagoak dira, zeren zigorraren ideiaz desberdin den zerbaiten gainean sostengatzen baitira.

Erretribuzioaren sorrera baldintzatzen ahal dutenen artean hiru iturri izenda ditzakegu: banako erreakzio zenbait, ordainketa nozioaren formakera adierazten duen helduen presioa, eta zigor nozioaren ondorengo norakoen berri ematen ahal digun kooperazioa.

Zigorraren ideiarri erro psikologikoak aurki diezazkiokegu. Egia da ukaldiek ukaldiei dei egiten dietela, jarrera atseginek erantzun atseginak dakartzatela, eta abar. Are gehiago ere esan daiteke honetaz: erretribuzioaren bilakaerako lurraldea gauzatzen duten sinpatia eta defentsa bezalako sen erreakzioak elkarkidetzaren elementalaren espezie bat zedarrizten dutela, alegia. Baina, lurralde hau ez da aski eta banakako faktoreek, besterik gabe, ezin dute mendeku odol-beroaren maila gaintu, eta horretarako nahitaezkoa da, inplizituki bederen, justizia erretributiboa eguratzen duen zigorren arautegia edo kodifikazioa ezartzea.

Gizabanako helduaren parte-hartzearekin gauzak tokia hartzen joaten dira. Haurraren munduan gertatzen dena begiratzen badugu, berehala jabetuko gara haurraren portaera jarraituki epaitzen dugula gizabanako helduok, haurra hizkuntzaren jabe egin aitzinetik ere bai. Kariaren arabera, haurrari bere portaera onartu eta irripar batekin eskertzen zaio, ala aurpegi txarra jarri eta negar egiten uzten zaio. Gizabanako helduaren ahots doinuek, besterik gabe, erretribuzioak adierazten dituzte. Bizitzak aitzina egin ahala ere, haurra jarraituki zaindua egoten da, esanen duen oro kontrolatuko diote, laudorioak eta errietak jasoko ditu eta gizabanako heldu gehienek mota guztietako zigorrak, baita gorputz zigorrak ere, zilegizkotzat kontsideratuko dituzte. Nolanahi ere, gizabanako helduen erreakzio hauek, ohiko neke edo urduritasunari zor zaizkionak izanik ere, anitzetan hoztasun guztiz kodifikatuak daude eta, jakina, ordainezko zigorraren ideiarekin abiapuntu psikologikoa egiten dute. Izan ere, haurrak helduaren ganako larderia edo deskonfiantza bakarrik esperimentera baleza, ertzeko kasuetan gerta daitekeen bezala, sinpleki gerra irekia izanen litzateke. Baina haurrak bere gurasoak maite dituzten eta haien portaerari errespetua dioenez, zigorra moraliki halabarrezkotzat ematen du, eta eragin duen ekintzari nahitaez loturik agertuko zaio. “Bekatu” ororen printzipioa den desobedientzia, bada, guraso eta haurraren arteko harreman arrunten haustura da. Esan nahi baita erreparazio edo barkamen moduko bat beharrezkoa duela, eta nola gurasoek zigor forman jartzen duten eta erreakzio desberdinen bidez agertzen duten beren amorrazioa, zigor horiek onartzea erreakzio naturaletako bat bihurtzen da. Gisa honetan, momentuz etendako harremanek zigor minaren bidez lehengoratuak dirudite eta ordainaren ideiak moral autoritarioan hartzen du gorputza. J. Piageten (1932; 1971) ustez, bada, oraingo zigorraren nozio primitibo eta materialista ez letorke gizabanako helduak haurrari inposatzen dioenetik, eta litekeena da kontzientzia psikologikoki helduak asmatua ere ez izatea. Baina, ezbairik gabe, zigorraren emaitza zorrigaitzokoa dugu, zeren zigorra haurraren mentalitate mistikoki errealistan islatzen baita.

Honela, bada, argi eta garbi dago, zigorraren ideia autoritatezko moralaren eta alde bakarreko errespetuaren parekide dela, eta hemendik ondorioaz atera dezakeguna da elkarrenganako errespetuan eta kooperazioan emango den aurrerapen orok naturalki baztertuko duela eta, pixkanaka ere, zigor nozioaren ordain ideia eta modu honetan zigorra elkarkidetzaren neurri simple edo erreparazio sinplearen proportzioetara murriztuko dela. Ikuspegi hau, hain zuzen, haurrei so egiten zaienean ikasten da.

Gizabanako helduen zigorrarekiko errespetua gutxitzen doan eran, justizia erretributiboaren barnean sailkaezinezko portaera batzuk garatzen dira. Gero eta justuagoa agertzen da ukaldietatik norberak bere burua babestea eta jasotako ukaldiak itzulzea. Erretribuzioarenean gaude, baina epaiketa hauetan ordainaren ideiak badirudi ez duela gutxienezko rolik ere. Elkartruketa besterik ez dago: Norbaitek ukabilkada bat emateko eskubidea ematen badio bere buruari, niri ere eskubide bera onartzen dit. Gauza bera amarrutsuaren jokabideari dagokionez, zeren iruzurrak egiten dituen neurrian faboretua ikusten baita eta, ondorioz, zilegizkoa da, berdintasunera itzularazteko, jokotik baztertzea edo hala jardunaz lortutakoak kentzea.

Gisa honetako moral batek ez garamatzala urrutira pentsa dezakegu, zeren kontzientzia helduen elitea elkartruketa simple bat baino zerbait gehiago eskatzen ari baita, bizitzaren egunerokoan. Anitzen begientzat berdintasun sinplea erraz gaintitzen baitute irainen barkamenak eta karitateak. Zentzu honetan, moralistek behin eta berriz azpimarratu izan dituzte maitasun eta justiziaren arteko gatazkak, zeren batzuetan justiziak agindu egiten baitu maitasunak gaitzesten duena, eta alderantziz ere. Baina, hain zuzen, elkartruketaren kezka jasotako adina ukabilkada emateko joera gaintitzera garamatzalako da. Elkartruketa gogozko errealtate bat denez, garapen autonomoaren arabera eta ez kanpoko presiopean bilakatzen da. Hala ere, bi elkartruketa bereizi behar ditugu, bata ideala edo eskubidezkoa, eta bestea egitatezkoa. Haurra, hain zuzen, elkartruketa praktikatzan hasten da, lehen hurbilketa batean uste duguna baino zailago dena. Gero, egita-

teen orekaren formara ohitzean, “xok” moduko bat gertatzen da bere baitan eta formak edukira eramaten dute. Ez dira bakarrik justuak aurkitzen elkartrukezko portaerak, baizik funtsean elkartruketasun mugagabea duten portaera gaiak dira izan. Zeureztat gogoko ez duzuna ez egiezu besteei egin aginduak ordurarteko berdintasun astakiloa ordezkatzeko du. Haurra mendekuaren gainetik barkamena ipintzen hasten da, ez ahuleziagatik, baizik eta mendekuaren soka “behin ere ez litzatekeela amaituko” ulertzen duelako. Moralitatearen alorrean elkartrukeak portaeren garbiketa inplikatzeko du bere norabide barnekoenean, mailaz maila unibertsalitatez hedatuz. Honela, elkartrukearen alorretik atera gabe, eskuzabaltasuna justizia sinplearekin elkartzeko da.

Ondoriotuz, autoritatearen moralak, betebeharrarena eta obediencia denak, justiziaren alorrean, justua dena legez ezarrita dagoenarekin nahastera eta ordainezko zigorraren onarpenera garamatza.

Aitona gurearen *Makilakixki*-n ageri den justizia suntsitzailerak hemen azaldu berri ditugun kontzeptuak eta bilakaera etapak esplizituki agertzen ez badira ere, kontakizunak jarraitzen dituen justiziaren planteamendurako prestakizunetan hori guztia betetzen dela esanien dugu. Milaka urtez iraun duten hainbat kultur ondaretan ohiko den hiru urratsetako prozesua betetzen da aitona gurearen ipuinean: lehen aldiz norbaitek zapalketa egitate aldebakartasunez praktikatzeko duenean, konturatu zarela, sentitu duzula, baina barkatu egiten diozula erakutsi behar zaio. Honela, denbora eta okasioa jartzen zaio bide horretan aurrera egiten ez jarraitzeko. Aitona gurearen ipuinak argi eta garbi seinatzen du lehen ikasgai hau betetzen duela. Ostalariaren lapurreta salatzen da, baina bigarren semea ostatu berean gaua igarotzen gelditzen da.

Bigarren aldiz pertsona berak zapalketa alde bakarreko praktikatzeko duenean, kultur ondare zaharretako jakintzak dio, barkamena ez baina eroapena bai erakutsi behar dela. Aitona gurearen ipuinean bigarren aholku hau ere bete-betean praktikatzeko da. Berritoki, ostalariak egin duen lapurreta burutu eta

gero ere, hirugarren semea ostatu berberara gaua igarotzera joan dadin onartzen da. Baina, aldi berean, hirugarren aldiz gauza bera gerta baledi, ordainezko zigor neurriak aurrikusten dira.

Hirugarren aldiz pertsona berak zapalketa alde bakarrekoa egin baleza, kultur ondare zaharreko jakintzak dio justizia suntsitzailea eragin behar dela. Hau da *Makilakixki* bizituko delarik helduko dena. Errespetu alde askotakoa lehengoratzeko ez da aski aurrez gertatutakoa ahantzi eta berriro abiatzea; aitzitik, lapurretaz, irainaz eta abar ontasunak edo abantailak lortu dituenari aurrerantzean horretan saiatzeak ez duela ondorio onik erakutsi behar zaio.

1.4. Justiziaren garapena edo pertsona helduen argumentario moralaren egitura

J. Piagetek haurrekin egindako justiziaren ulerpenari buruzko ikerketak lan berrietarako ideiak ere ematen zituen, eta hala ulertu zutenek geroztik egindako ekarpenak joriak bezain adierazgarriak gertatu izan dira anitzetan. L. Kohlbergek (1958) Chicagoko auzo txiroetako 10etik 16 urte bitarteko gazteekin “arazo moralen konponketa” jokoan zeuden eginbehar batzuen bidez epai moralaren forma kognitibo desberdinak bereizi zituen. Horretarako Heinzen dilema ospetsua bezalako esaldiei buruz (“gizabanako batek ba al du eskubiderik arras eri dagoen bere emaztea salbatzeko, farmazeutiko batek asmatua duen sendagaia, prezioz ezin ordainduzko egiten zaiona, lapurtzeko”) beren aburua erakutsi behar zuten eta beren arrazoibidearen galdegaiak esplizitatu behar zituzten. Argumentazio moralaren egitura eta ez, hain zuzen, edukia atzeman nahirik, hiru mailatan biltzen diren sei egoera bereiziko ditu. Lehen mailatzat 1 eta 2 egoerak kokatzen direneko *prekonbentzionala* aipatzen du. Egoeran jokoan dauden baloreak kontuan hartu gabe, ekintzen ondorio fisikoetatik (zigor, sari, faborezko truketik) eratorritako dohain moralak esleitzen dituzte. Lehen egoera norabide egoentriko eta heteronomoak markatua da: zigortua ez izateko legeak bete behar dira eta saritua

izateko ongi aritu behar da. Bigarren egoerak truke egoista, instrumental eta pragmatikoaren ikuspegitik hedatzen du aurrekoa. Interes indibidualaren zerbitzurako bitarteko bezala erabiltzen da elkarkidetasuna. Bigarren mailatzat 3. eta 4. egoerak agertzen dira eta hori tipifikatzeko *kombentzionala* aipatzen du. Familian, taldean eta nazioan oinarritutako itxaropenei lehentasuna leialtasunez eta barnetasunez emanaz, gizabanakoak bere berehalako interesei uko egitea onartzen du. Hirugarren egoerak pertsonarteko itxaropenak kokatzen ditu. Besteei plazer egiten diena edo zerbitzua ekartzen diena moralizat kontsideratzen da. Laugarren egoerak gizarte arauak eta autoritatea ditu ezartzen guztiaren gainetik; eta hori sistema sozialaren funtzionamendu egokirako legeak jarraitzean eta eginbeharrak betetzean gauzatzen da. Hirugarren mailatzat 5. eta 6. egoerak agertzen direnekoan, *postkombentzionala* dator. Orain autonomia morala eta printzipio norabidetzailer funtsezkoak nagusitzen dira. Bosgarren egoeran hitzarmen soziala burutzen da. Sozialki landu eta onarturiko arauak emandako atxikimendu libre eta inpartzialak eskubide indibidualak bermatzea dakar. Baloreen aniztasunari buruzko kontzientzia hartzea dago, eta ondorioz adostasunetara ailegatzeko arau prozeduralen beharra agerian jartzen da. Hala ere, bizitza eta askatasuna bezalako balore batzuk absolututzat hartu behar dira, gehiengoaren aburutik at. Seigarren egoera –geroago Kohlbergek (1984) zeharo hipotetikotzat kontsideratu zuena–, printzipio etiko unibertsal abstraktuekiko konpromezu pertsonalak beteko luke.

L. Kohlbergentzat, garapen moralaren egoerak hierarkizatuak, aldaezinak eta unibertsalak lirateke. Egoera batetik besterako urratsa bi printzipio determinatzaile bidez ematen da: heldutasuneko prozesu endogenoen bidez, zeina dezentrazioko gaitasun kognitiboen aurreratzeari dagokiona baita bereziki, eta gizabanakoak bestearekin edukitako harremanetan bizitako esperientzia moral propioei esker.

Teorilarien joera da beren lorpenak unibertsaltzat aldarrikatzea, eta ez da joera horretatik aldenduko L. Kohlberg bera ere. Honela dio: “kultura orotako gizabanako orok hiru kategorია

berberak darabiltzala oinarrizko kontzeptu edo printzipio moralizat, eta kultura orotako gizabanako orok igarotzen dituela ordena berean garapenaren estadioen sekuentzia berberak, nahiz eta maiztasunean eta garapen terminalaren puntuan aldaketak eman daitezkeen” (1971).

Hala ere, L. Kohlbergen ekarpenak geroztik eztabaidatuak izan dira. E. Turielek (1983) dio haurrak goiztiar eta naturalki bereizten dituela epai sozialaren oinarrizko hiru kategoria. Epai sozialaren alorren teoriaren arabera, haurrak, naturalki, baina garapen kognitiboen sostenguz eta esperientziek ziztaturik, oinarrizko hiru kategoria eraikitzen ditu: alor konbentzionala, morala eta pertsonala, alegia. Zehaztasun gehiago ere ematen dizkigu gaiaz. Alor konbentzionala, “testuinguru kultural eta sozialei atxikia eta ezin orokortuzkoa” (Turiel, 1989, 95) kontsideratzen dena, kontingentziazkotzat joko luke gizabanakoak eta, ondorioz, oinarri kontsentsualaren edo alterabilitatearen gainean aldaketak jasotzera prestatuko litzateke. Alor moralari dagokionez, “justiziaren epai agintzaileen, eskubideen eta jendea bata besteekiko portaeretan ongi sentitzeko beharrezko diren egiteko moduen gainean oinarrituko litzateke” (Turiel, 1983, 2). Alor moraleko aginduak “behartzaileak, jaidura pertsonalagatik determinatu gabeak, oinarri arbitrario batengatik aldaezinezkoak eta egoera eta testuinguru desberdinetan aplikagarriak kontsideratzen dira” (Turiel, 1983, 95). Esfera moraletik jalgitako portaerak inpersonalak izango lirateke, hobespen indibidual sinpleetatik ez datozen neurrian. Gainera, portaera horiek baldintzatzen dituzten irizpideak ez dira hartzen adostasun sinple edo adostasun sozializat. Izan ere, konbentzio sozialen ezagutza talde sozialetatik eratorritako agindu inplizitu edo esplizituei jarraiki eratzen dira; aldiz, arau moralak esperientziazatik eta, zehatzago esanda, besteei pairarazitako lege-hausteen efektu intrintsekoetatik sortzen dira. Biktima batekin identifikatzeak edo norbera ofenditua sentitzeak, kategoria morala gizabanakoagaren ikuspegitik eraikitzea eragiten du. Moralaren eta konbentzionalaren arteko bereizketa honi beste hirugarren kategoria bat gehitzen zaio, zeina hertsiki

portaera pribatuetatik bailetorke eta hautaketa indibidualei eta hobespen pertsonalei lotua bailegoke (Nucci, 1981). Turielek ere jasotzen ditu kritikak. “Eraikuntza sozialaren” (Berger; Luckman, 1986) teorien aurka baitoa hein batean, zeintzuek gizakien izpiritua txertu kulturalengatik gaindeterminatuta ematen baitute eta, interakzio sozialen erregulazioari dagokionez, arauen maila desberdinen artean bereizketa egiteko gaitasun gabea baita. Beste eraso bat, horrela adierazi bageneza kritika, planteamendu behaviorista eta neo-behavioristetatik heldu zaizkie J. Piaget, L. Kohlberg eta E. Turielen planteamenduei. Planteamendu berri hauen jarraitzaileek (Bandura, 1990) diote arau moralen eskuraketan kanpoko eraginen rola estimagarria gertatzen dela, bereziki portaera bat sariz edo zigorrez ordaintzen delarik. Portaera errefortzatuena edo autoerrefortzatuena ondorioak aztertu izan dira. Dena den, gertaera sozialaren teorilariak prest daude onartzeko haurrek maila kognitibo jakin bat behar dutela arrazonomendu moral zenbait ulertzeko. Bestalde, balore moralen internalizazioaren garrantzia aipatzen dutenen kritikak daude (Hoffman, 2000). Araua ezartzeko moduak edo ereduaren eta objektuaren arteko atxikimenduak beren tokia daukate moralitatearen ekuaizioa erabakitzeko unean. Gaur egun interiorizazioko mekanismoen eskuratzeko ikasten duten lanak ugari dira. Baina, funtsean, gaian egondako planteamendu fundatzaileen kezka eta lortutako jakintza balio osoan agertzen da.

Aipatu ditugun psikologia moralari buruzko ulerpen hurbilketa nagusiak lau arazo zeharkakoekin erkatuak ageri zaizkigu: portaera moralean osagai kognitiboek duten eragina; kultura desberdinek moralitatea unibertsalizatzeko orduan planteatzen duten arazoa; emozioen presentziak moralitatea norabidetzeko unean daukan baldintzapena; ideologia politikoen dimentsio sozialak epai moral indibidualekiko dakarren areagoko begirada baten beharra.

Argi eta garbi faltan botatzen dena, gizakien moralitatearen teoria integratu bat da. Bistan da aitona gurearen ipuinak ez zuela horrelakorik pretenditu. Baina, bere mezu sinpleak ez dio

trabarik ipintzen eginkizun mota honi. Azken gogoeta gaiatzat hartuta, aitona gurearen ipuinean hain amorratuki defendatzen den justiziaren kontsistentziari eskainiko diogu.

1.5. Justizia kontsistentea

Gizabanakoak bere buruarekin ados egotea bilatzen du bizitzaren une eta egoera guztietan, eta horri barne bakearen presentzia deitzen diogu. Gizabanakoak beste pertsona batzuekin edo erakunde ez-pertsonalekin harremantzean sentsazio baikorrak edo ezkorrak bizi ditzake. Erne edo borroka egoeran bizi dugu oro barne bakea zaintzeko. Izaki desberdinak gurutzatzen direlarik pertsonaren bizitzan, batasun kognitiboaren beharra pizten zaigu (Festinger, 1957), eta hurbilekoak, antzekoak edo norakoz berdinak eginarazteko joera dugu. Batasun hori lortzean, atsedean hartzen dugu. Ezagutzen eta sentimenduen arteko harremanak orekatzeko egoera bat lortzea dute helburu. Gatazkatsua dena eta aurreikuspenik gabeko aldaketa ekiditea bilatzen dugu. Bizitzaren ibilbidean tipo desberdinetako oreka egoerak aurki ditzakegu. Lehena beste pertsoneri dagokien horretan aurkitzen ahal dugun sentimendu eta ezagutza homogeneotasuna da. Bigarrena beste pertsona bakar bati buruz sentimendu eta ezagutza harremanetan irekitzen ahal dugun egoera orekatua da. Kasu honetan egoera orekatua dela diogu, harreman oro lerro baikor edo ezkor bakar batean biltzeko lain garenean. Hirugarrena beste bi pertsonarekin edo erakunde ez-pertsonalekin ditugun harremanak oro baikor eginez edo bat baikor eta gainerako oro ezkor lerrokatuz lortzen dugun orekan datza (Heider, 1958).

Baina pertsonak jarrera eta portaera gurutzatzen dituzenez, bere baitan dauka oreka beharrik handiena eta zorrotzena. Hala ere, jarrerak diogunean, osagai afektiboz, kognitiboz eta konatiboz osatutakotzat hartu behar ditugu. Pertsona baten jarreraren osagai afektibo eta kognitiboen artean kontsistentzia dagoenean bakarrik nagusitzen baita barne bake iraunkorra. Horregatik, pertsona bere inkonsistentziaz ohartzen delarik, bere jarrera

osatzen duten osagaietako bat edo biak aldatzera bultzaturik egongo da, gisa horretan berriro kontsistentziari helduko diola-koan. Eta jarrera bat kontsistentzia afektibo-kognitiboz eta estabilitatez emango delarik, ozenki esan dezakegu portaera zehatz baten adierazle izango dela (Rosemberg, 1968).

Hala ere, erantzun afektibo simple eta bakar batek beti ez du egokiro irudikatzen jarreraren objektu zehatz batekin harreman-dutako sinismenen unibertsoa. Horregatik, aurreikuspen baten orduan pertsona baten jarrera ezagutzeaz gain, bere gainerako sinismenen unibertsoa kontuan hartzen badugu, anitzez ziurrago lortuko dugu bikain egitea.

Pertsonak zenbat eta esperientzia zuzenagoa eduki jarrera jakin baten aurrean, orduan eta egitura aktitudinalaren organiza-zioa hierarkizatuago eta konplexuago dela ikusi da eta, ondorioz, egitura hori faktore afektibo simple batetik gutxiago irudika daitekeela. Zuzeneko esperientzian oinarritu gabeko jarrerentzat, erantzun afektiboaren neurketa aski izan daiteke jarreraren egitura osoaren bilduma egiteko. Eta portaeraren aurreikuspen bezala osagai afektibo horietan zeharo fida gaitezke. Baina zuzeneko esperientzian oinarritutako jarrerekin besterik gertatzen da. Jarreraren objektu zehatzarekiko erantzun afektiboen oinarrian egin-dako portaera aurreikuspen emaileak ez direla onenak ikusi da, jarreraren objektuaren inguruko sinismenen ezagutza gehitzean anitzez aberasten dela, alegia (Fazzio; Zanna, 1981).

Gainera, behin eta berriz erakusten zaigu zuzeneko esperi-entziaz jasotako jarrerak, argitasun adierazleago izanik, egonkor-tasun iraunkorragoa dakartela. Zuzeneko esperientzian oinarritu-tako jarrerak erabilgarriago ere badira eta jarrerazko zein portae-razko harremana indartsuago produzitzen dute.

Aitona gurearen ipuinean ageri den justizia jarreraren eta portaeraren arteko lotura, kontsistentziaren aldetik begiratuta, eredugarria da. Justizia zerbait bada norberaren baitan, erroturiko jarrera-portaera izan behar da. Justiziak ez du egoismorik, nepo-tismorik, alderdirik, klaserik eta naziorik mugatzat edo gidatzat onartu behar. Justiziak gizabanakoaren bizitzeko eta errespetu

alde askotakoan jardunaz beti, nonahi eta zernahiri buruz aske erabakitzeke aukerak zaindu behar ditu oinarrian. Gainerako guztiak oinarri horren gainean eraikiko ditu.

Gure egunotan bizi dugun justizia inkontsistentearen adibide bat jarriaz emango diogu bukaera gogoeta honi. Horretarako, Estatu Batuetako Michael Moore zinegileak berriki pantailetara eraman duen Fahrenheit 9/11 filmean aurkitzen den pasarte bat gogoraraziko dut. George W. Bush lehendakariaren gobernuak daraman atzerri politikaz galdeketa anker bat eginaz, gaur egun Estatu Batuek jarrera eta portaeren arteko inkontsistentzia itsuan nola bizi diren erakusten digu. George W. Buhsek eta honen aholku emaileek, alde batetik, begiak ixten baitituzte, Arabia Saudiko aberatsen eta irailaren 11ko sarraskien arteko loturak estaltzen laguntzeko. Eta, bestalde, sarraskiaz baliatuz Iraken dauden petrolio eta beste aberastasunak eskuratzeko okasioa aurkituko baitute. Gogora ekarriko dizkigu Bush sendiak Arabia Sauditako erregetiar sendiarekin eta Ben Landen klanarekin dauzkan lotura pertsonal eta ekonomikoak. Iraken gerra lehertzen delarik “demokrazia eta bakearen” jarrera publikoki aitortuaren azpian dagoen portaera sarraskitzaile eta errugabeen hiltzailea nabarmenduko digu. Borrokaren lehen fasea amaitzean, George W. Buhsek “garaipena” oihukatzen du, garrasi horren itzalean militarren soldatak jaitsi eta berme sozialetan beherakada lotsagabeak prestatzen dituenean. Eta Amerikagatik hiltzeko fientasuna eta ohorearen aipupean, langabeziak jota bizi diren auzo defaboretuetan armadako kontratatzaileek lizeoetan dabiltzan gaztetxoak gerrarako biltzen saiatzen direla erakusten zaigu. Estatu Batuetako herritarren diruz eta odolez eta irakiar herritarren sufrimenduz eta sarraskiz Iraken lortutako aberastasunen kudeaketa nola planifikatzen duten munduko lider ekonomiko lagunekin erakusten da ere. Eta amerikar justizia horren inkontsistentziaren gailurra Washingtoneko Lege-Biltzarraren aurrean kamerak jarritz hainbat legegileri galdeketa egiten saiatzen denean (beti ez baitu lortzen eskapatzen direlako gaiaren berri jakitean) ageri da. Lege-Biltzarreko kide bezala hainbat lege sinatu baituzu

gerra egoera onartuz, zure jarrera kontsistentea bada prest egongo zara zure seme-alabak gerra horretara igortzeko, ezta? Legebiltzarkide bakar batek ere ez dio baietzik ematen. Hala ere, Michael Moore zinemagileak aitortzen du lege-biltzarkide guztien artetik bakar batek bakarrik duela Irakeko gerran seme bat. Portaera inkonsistentegorik ezin da eman. Baina ez da salbuespenezko gertaera bat aipatzen duguna, gure mundu osoa, bere erakunde guztietan da inkonsistentea, jarrera-portaera harremnaren ikuspegitik neurtzen badugu bederen.

Aitona gurearen *Makilakixki*, bada, eredugarria da justizia kontsistentea aldarrikatzen duen edonorentzat.

2. Bibliografia

- BANDURA, A. (1990): "Selective activation and disengagement of moral control", *Journal of Social Issues*, 46, 27-46 orr.
- BERGER, P.; Luckman, T. (1986): *La construction sociale de la réalité*, Paris, Meridiens Klincksieck.
- BOVET, P. (1925): *Le sentiment religieux et la psychologie de l'enfant*, Neuchâtel, Delachaux et Niestlé.
- FAZZIO, R. H.; ZANNA, M. P. (1981): "Direct experience and attitude-behavior consistency", in Berkowitz, L. (ed.), *Advances in Experimental Social Psychology* (vol. 14), New York, Academic Press.
- FESTINGER, L. (1957): *A Theory of Cognitive Dissonance*, Stanford, Stanford University Press.
- HEIDER, F. (1958): *The Psychology of Interpersonal Relations*, New York, Wiley.
- HOFFMAN, M. (2000): *Empathy and moral development. Implications for caring and justice*, New York, Cambridge University Press.

- KOHLBERG, L. (1958): *The development of modes of moral thinking and choice in the years 10 to 16*, Unpublished doctoral dissertation, University of Chicago.
- (1971): “From is ought: How to commit the naturalistic fallacy and get away with in the study of moral development”, in L. Mischel (ed.), *Cognitive development and epistemology*, New York, Academic Press.
- KOHLBERG, L. (1984): *Essays of moral development*, vol 2, *The psychology of moral development*, New York, Harper and Row.
- NUCCI, L. (1981): “Conceptions of personal issues: a domain distinct from moral or societal concepts”, *Child Development*, 52, 114-121orr.
- PIAGET, J. (1971): “La génesis de la conciencia moral en el niño”, in *El criterio moral en el niño*, Ed. Fontanella.
- PIAGET, J. (1932; 1978): *Le jugement moral chez l'enfant*, Paris, F. Alcan.
- PLATON: *La République* (1940ko edizioa), *Œuvres complètes*, I, Paris, Gallimard, La Pléiade; Léon Robinek itzulitako testua eta landutako oharrak.
- ROSENBERG, M. J. (1968): “Hedonisminauthenticity, and other goadstoward expansion of a consistency theory”, in R. P. Abelson, E. Aronson, W. J. McGuire, T. M. Newcomb, M. J. Rosenberg and P. H. Tannenbaum (ed.): *Theories of Cognitive Consistency: a sourcebook*, Chicago, Rand McNally.
- TURIEL, E. (1983): *The development of social knowledge*, Cambridge, Cambridge University Press.
- (1989): “Domain-specific social judgements and domain ambiguities”, *Merill-Palmer Quarterly*, 35 zk.
- WALSTER, E.; G. Walster, G.; Berscheid, E. (1978): *Equity: Theory and Research*, Boston, Allyn and Bacon.

EPILOGOA: JOXEMARTIN GOGORATUZ

Ur Apalategi Idirin:
Eleberrigilea eta literatur irakaslea U.P.P.A.n

Poz eta kontsolamendu handia da senide guztiontzat, gaurkoan, berari egindako agur gisa, Joxemartinez modu libre eta pertsonalizatuan hitz egin ahal izatea. Izan ere, Joxemartin gauzak ahal bezainbat pertsonalizatzearen aldekoa baitzen. Esaterako, egunerokotasunean ezagutzen genuenok badakigu ez zuela uzten argazki bakar bat bera ere atzean anotatu eta bertan agertzen ziren guztien izenak, tokia eta data, nahiz erretratuaren une zehatzeko zirkunstantziak gutxienez idatzi gabe. Zuetako askok izango duzue etxean Joxemartinek artoski anotaturiko argazkiren bat, berak eskainita, maite baitzuen argazkia egindakoan egindakoari ale bat oparitzea. Baliteke antropologoaren deformazio profesionalaren ondorioa izatea halako joera. Baina nik uste dut alderantzizkoa dela, hau da, pertsonak eta gizarte egoerak beraien singularitasunean, beraien ordezkazintasunean maite zituelako bihurtu zela antropologo.

Horregatik guztiagatik argazki batzuk datozkit gogora osaba Joxe Martin dudala hizpide. Gogoratzen naiz Joxe Martinez daukadan lehen argazki mentala txiki txikia nintzenekoa dela. Nire amaren familia guri bisita egitera etorria zen Bizkaira.

Badakit Ondarroako ikastolan irakasle zela ordu hartan eta Kapaxin deitzen niola.

Hurrengo argazkia, kronologiari jarraituz, Ataungoa da. Herriko jaietakoa. Eukene eta Lorea lehengusinekin amona eta aitonaren etxean egoten ginen opor askotan eta Joxemartinek, ume batzuk besterik ez ginela gure lehen rock kontzertua entzuzera eramán gintuen. Akelarrek jo zuen herriko plazan eta osaba Joxe Martinek, gure harridurarako, rocka dantzatzen zekien. Uste dut “–osaba modernoa–” deitu geniola lehengusu artean.

Beste argazki bat, baita ere Ataunen hartua da. On Joxemiél Barandiaranen etxean hartua, zehatzagoa izateko. Hara eramán gintuen behin baino gehiagotan, garrantzitsua zeritzolako guk ere gizon hura ezagutzea, bera inspiratu zuen ataundar lehen antropologoa. Aipatu nahi nituzkeen hurrengo argazkiak mundu osotik bidali ohi zizkigun postalenak dira. Euskal Herriari zion atxikimendua munduari orokorrean zionari uztarturik baitzegoen. Ez zen ez asperdura mundu asko ikusia zen Joxe Martinen postalen atzealdeko hitzetan nabari zena. Aitzitik, gizakia eta gizartea toki guztietan berdinak eta aldi berean anitzak eta aldakorrak zirela konstatatzeak beti harrিতuta uzten zuen. Bidaia berrietarako prest.

Hurrengo argazkia familiako bazkarién mahaiarena da. Urte askoz amona eta aitonaren etxeko mahaiarena eta Bittor jatetxeko mahaiarena azken urteotan. Joxemartinek ez zuen inoiz huts egin halako bazkaririk eta Inixio eta Natalia bere buraso eta gure aitona-amonen ondoan esertzen zen beti. Urtean bitan elkartzen ginen gutxienez, herriko jaietan eta urte berri egunean. Aurtengo urte berrikoa izan da huts egin duen lehen bazkaria.

Beste argazki bat bizileku dudán Donibane Lohitzunen kokatzen da. Pantxika nire emaztea eta Amane gure alaba sortu berria bisitatzea etorri zenekoa bere lagun Fernandorekin.

Beste argazki bat berak niri Berrian idatzitako artikuluaena da, nire azken nobela argitaratu berritan. Nobela berezia zen bere edukiagatik eta publikoki bere sostengua eta antropologo iritzia azaltzea ez zen osaba batengandik espero daitekeen gutxiénkoa

baizik eta berak espontaneoki egindako adierazpen ausart bezain eskuzabala.

Hurrengo argazkia ez da oso atsegina baina aipatu beharra dago. Osaba fisikoki aldatuta ikusi dugu azken aldion. Bere mugimenduak geldoagotuz joan dira, ahotsa ahuldu eta findu zaio eta bagenekien arren ziurrenik gurgildun kadira batean bukatuko zuela ezustean harrapatu gaitu bere heriotzaren berriak. Hala ere, gogoan gorde nahi dudana bere azken aldiko ahots ahuldu finduaz esaten zuena da, bizitzak eman zion guztiagatik esker ona ematen jarraitu baitu bukaera arte, irribarrea ahoan.

Pixka bat lehenagokoa da azken aurreko argazkia. Aitona zendu zitzaiguneko, hain zuzen. Orain hamar urte, gaurkoa bezalako neguko egun hotz batez, Joxemartinek hartu zuen hitza senideon izenean egun hartan, hementxe hartu ere, nagoen tokian. Eta alaiki mintzatu zitzaigun, animuak altxatzeko gisan. Ez dut oroitzen, jakina, zehatz-mehatz berak esandakoa baina badakit honelako zerbait esan zigula: ongi etorri denoi eta milesker gurekin batzeagatik Jainkoan, Alan, Budan, Euskal Herrian, gizakian, ia ezertan ala sinpleki bizitzaren balioan sinesten duzuenoi. Horregatik, nik ere hitz hauek berak zuzendu nahi dizkizuet gaur, azken argazki bat anotatu aurretik: ongi etorri denoi eta milesker gurekin batzeagatik Jainkoan, Alan, Budan, Euskal Herrian, gizakian, ia ezertan ala sinpleki bizitzaren balioan sinesten duzuenok.

Gaurko azken argazkia ez da zuentzako, Joxemartinentzat baizik. Anotaturik bidali gura diot hemen ikusten dudana, berak anotatzerakoan zerabilen estiloa neure eginez: Ataunen, San Gregorio auzoko elizan, otsailaren 9ko iluntzeko zazpietan, Joxe Martin Apalategi Begiristainen hileta elizkizunaren karietara etxetik, herritik eta urrutiagotik, batzuetan askoz ere urrutiagotik, azken agurra ematera etorritako jende multzo eder eta beroa, bere izena ondo merezi duen otsoen hilabeteko arratsalde goibel bezain hozkirria, baina zure oroitzapenak argitu eta goxatua. Ikusi arte osaba Joxe Martin eta guztion besarkada.